





# **E G A**

2001 - 2002

Azterketak  
eta  
erantzunak



**Nafarroako Gobernua**  
Hezkuntza Departamentua

Gure eskerrik beroenak Euskadi Irratiari entzunaren  
ulermeneko probak osatzeko bere programazioko  
zenbait entzungai erabiltzeko baimena eman digulako

Izenburua: EGA 2001-2002. Azterketak eta erantzunak  
Azala: Asis Bastida  
Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua  
Fotokonposizioa: Pretexto  
Inprimatzailea: Ona Industrias Gráficas  
L.G.: NA-2984/2004  
ISBN: 84-235-2719-0

© NAFARROAKO GOBERNUA. Hezkuntza Departamentua.

---

Sustatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fonda  
Komunikazio Zuzendaritza Nagusia  
Navas de Tolosa kalea, 21  
Telefonoa: 848 42 71 21  
Faxa: 848 42 71 23  
31002 Iruña  
fondo.publicaciones@cfnavarra.es  
www.cfnavarra.es

## AURKEZPENA

Atsegin handiz aurkezten dut *EGA 2001-2002 azterketak eta erantzunak* liburua. Bi atal ezberdin ditu; lehenengoan sarrera bat egiten da, eta bertan atariko, idatzizko eta ahozko probak zuzentzeko egitura eta irizpide nagusiak ematen dira. Bigarren atalean, berriz, 2001 eta 2002 urteetako deialdien azterketak eskaintzen dira.

1985eko irailaren 11n Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Euskararen Gaitasun Agiriak emateko ardura bere gain hartzea. Orduan ere, Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari eskerrak eman zizkion egindako lanagatik. Geroztik, 20 deialdi egin dira.

Ibilaldi luze horretan beti egon gara kezkatuta azterketen kalitatearekin. Ematen diren tituluek bermatzen dute EGAdunak euskararen gaitasun nahikoa erdietsi duela hizkuntza maila aurreratuko egoeretan moldatzeko.

Deialdiz deialdi, baita oraingo deialdian ere, hainbat alderdi gaurkotu dira proben antolaketan, egituran eta edukietan. Hezkuntza Departamentuaren mende dauden Euskara Zerbitzuko eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko teknikariek prestatu ohi dituzte probak. EGA azterketaren Batzorde Ofiziala arduratzen da azterketa antolatu, prestatu eta gainbegiratzeaz. Gaur egun esan dezakegu EGA titulua lortzeko azterketaren probak, bai formatuaren, bai edukiaren aldetik, bat datozela Hizkuntzen marko europar komunak planteatutako eskakizunekin.

Orain arte 11.000 EGA matrikula egin dira eta 2.500 titulu eman dira; datu horiek garbi erakusten dute EGAREN beharra eta onespenez soziala.

Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) lortzea helburu duten pertsonen zuzentzen zaie lan hau. Pertsona horiei euren ahaleginagatik eskerrak eman nahi dizkiegu, baita lan hau eskaini ere, lagungarria izango delakoan.

Luis Campoy Zueco  
*Hezkuntza kontseilaria*



## AURKIBIDEA

I. Sarrera .....	9
II. Azterketak .....	17
1. 2001eko lehenengo deialdia .....	19
Atariko Proba .....	21
Erantzunak .....	43
Proba Idatzia .....	45
2. 2001eko bigarren deialdia .....	51
Atariko Proba .....	53
Erantzunak .....	73
Proba Idatzia .....	75
3. 2002ko lehenengo deialdia .....	81
Atariko Proba .....	83
Erantzunak .....	103
Proba Idatzia .....	105
4. 2002ko bigarren deialdia .....	111
Atariko Proba .....	113
Erantzunak .....	133
Proba Idatzia .....	135
III. Ahozko proba .....	141
IV. Eranskina: entzungaien transkripzioa .....	161





## **Euskararen Gaitasun Agiria: datu historikoak**

Nafarroako Gobernuak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) emateko ardura 1985ean hartu zuen bere gain. Ordura arte Euskaltzaindiak egiten zuen lan hori: D titulua ematen zuen Nafarroan. Harrez geroztik ezarri zen, batetik, Hezkuntza Departamentuak jarduera hori egiteko legezko esparrua zehaztuko zela eta, bestetik, horretaz arduratuko ziren organoak eratuko zirela (Nafarroako Gobernuaren 1985eko irailaren 11ko Ebazpena).

Ildo horri jarraikiz, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) sortu zuen (1535/1985 Foru Agindua).

1986an Euskararen Gaitasun Agiria eskuratzeko arauak onartu ziren foru agindu bidez (541/1986 Foru Agindua).

1990ean Nafarroako Hizkuntza Eskolaren esku utzi ziren Euskararen Gaitasun Agiria eskuratzeko probak antolatu, burutu eta zuzentzeko eginkizun teknikoak (152/1990 Foru Agindua).

1998an Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Euskara Zerbitzuak bere gain hartu zituen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko probak antolatu, prestatu, burutu eta zuzentzeko dagozkion eginkizun teknikoak. Halaber, lan hori egiteko EGA azterketaren batzorde ofiziala eta epaimahaia eratu zituen (463/1998 Foru Agindua, abenduaren 15koa).

1998tik hona urteroko deialdiek arautzen dituzte Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko probak.

## **Zer da Euskararen Gaitasun Agiria?**

Euskararen Gaitasun Agiriak aditzera ematen du agiridunak euskaraz badakiela eta trebe dela euskaraz idatzi eta hitz egiteko. Halaber, frogatzen du Euskaltzaindiaren arauak ezagutzen dituela.

Euskararen Gaitasun Agiriak euskararen ezagutza-maila ona ziurtatzen du, pertsona batek lan munduan beharko lukeen euskara mailaren parekoa lau hizkuntza trebetasun hauetan: entzunaren ulermena, irakurriaren ulermena, adierazpen idatzia eta ahozko adierazpena.

## Deialdiak eta antolamendua

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko, urte bateko deialdietan hiru probak (atarikoa, idatzia, ahozkoa) gainditu beharko dira, nahitaez.

Ekaineko deialdian atariko proba eta proba idatzia gainditu dituztenek ez dituzte iraileko azterketan proba horiek egin beharko.

## Azterketaren egitura

Euskararen Gaitasun Agiriak hiru atal ditu, nahitaez gainditu beharrekoak hirurak:

- A) Atariko proba (gramatika, entzunaren ulermena eta irakurriaren ulermena).
- B) Proba idatzia (idazlan laburra eta luzea).
- C) Ahozko proba.

### A. Atariko proba

Proba objektiboa da (test erakoa) eta ondoko gaitasunak eta jakintzak ebaluatze-ko balio du:

- *Hizkuntzaren ezagutza*. Azterketaren zati honetan, aukera anitzeko proba baten bidez neurtzen da zenbateraino ezagutzen diren praktikan ahozko eta idatzizko komunikazioan eskuarki erabiltzen diren hizkuntza baliabideak eta Euskaltzaindiak euskara estandarerako eman dituen arauak. Horiek guztiak hartzen dira kontuan ondoko arlo hauetan:
  - Aditza
  - Datak, zenbakiak, puntuazioa...
  - Deklinabidea
  - Egokitasuna
  - Erdarakadak
  - Esamoldeak
  - Lexikoa
  - Sintaxia
    - *Galdera kopurua*: 70 (1etik 70era)
    - *Puntu kopurua*: 70
- *Entzunaren ulermena*. Grabazio bat entzuten da eta hartan oinarritutako aukera anitzeko hamar galderari erantzun behar zaie. Aukeran jarritako lau erantzunen artean zuzena hautatu behar da.

- *Galdera kopurua*: 10 (71tik 80ra)
- *Puntu kopurua*: 15 (puntu eta erdi galderako)
- *Irakurriaren ulermena*. Testu baten edukiaren gainean aukera anitzeko hamar galderari erantzun behar zaie. Aukeran jarritako lau erantzunen artean zuzena hautatu behar da.
  - *Galdera kopurua*: 10 (81etik 90era)
  - *Puntu kopurua*: 15 (puntu eta erdi galderako)

Lehen atalean 100 puntu atera daitezke gehienez. Atal hau gainditzeko 65 puntu atera behar dira gutxienez.

Azterketa osoa irakurgailu optikoz zuzentzen da. Azterketa berrikusi nahi bada, alde zuzentzen da eta gero irakurgailu optikoak emandako notarekin alderatzen da.

## **B. Proba idatzia**

Proba idatziak bi zati ditu:

- *Idazlan laburra*. Proposatutako bi gaien artean bat aukeratu eta gutun, ohar edo antzeko zerbait idatzi behar da. 100 hitzekoa izanen da gutxienez, hasierako eta bukaerako formulak kontuan hartu gabe.
 

Proba hau zuzentzean, egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna eta, batez ere, zuzentasuna neurtuko dira.

  - *Puntuazioa*. Gehienez, 10 puntu. Gutxienez, 5 puntu.
- *Idazlan luzea*. Proposatutako hiru gaien artean bat aukeratu eta gutxienez 300 hitzeko testua idatzi behar da.
 

Proba hau zuzentzean, egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna eta, batez ere, zuzentasuna neurtuko dira.

  - *Puntuazioa*. Gehienez, 30 puntu. Gutxienez, 15 puntu.

Proba idatziaren zatietako bakoitza gainditu behar da, nahitaez.

Proba osoa gainditzeko 22 puntu atera behar dira, gutxienez.

Maila-bateratasuna ziurtatzeko, idazlan bakoitza gutxienez bi aztertzailek zuzenduko dute. Probei emandako bi kalifikazioen artean izan daitezkeen desadostasunak desegiteko, bi aztertzaileak bildu eta zuzentze-irizpideak erkatuko dituzte nota bakarria adosteko. Hala ere, desadostasunak bere horretan jarraitzen badu, beste aztertzaile batzuek zuzenduko dute azterketa.

Azterketa berrikusi nahi bada, alde zuzentzen da eta gero irakurgailu optikoz zuzentzen da.

## Idazlanak zuzentzeko irizpideak

Idazlan laburra eta luzea balioesteko, lau alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- *Zuzentasuna*
  - Ortografia: *h* letra, hitz elkarketa, *-a* itsatsia, *bait-* partikula...
  - Deklinabidea, atzizkiak...
  - Aditza: aspektua, erregimena, komunztadura, aditz trinkoak, aditz perifrastikoak...
  - Sintaxia: erlatibozkoak, osagarriak (konpletiboak, zehar-galderak...), konparaziozkoak, nominalizazioa...
- *Testuaren antolaketa* (koherentzia eta kohesioa)
  - Koherentzia:
    - Informazioa: informazio gutxiegi / gehiegi dago? Ideia guztiak egokiak dira?
    - Egitura: informazioa ongi antolatuta dago? Badago progresiorik? Paragrafo bakoitzean ideia bat lantzen da?
  - Kohesioa:
    - Puntuazioa: bada errakuntza / akats larriak? Bada komarrik subjektuaren eta aditzaren artean?
    - Lokailuak: bada oker erabilitako lokailurik? Testu antolatzaileak egokiak dira?
    - Izenordainak-eta: anaforak, kataforak... ongi erabili dira?
- *Egokitasuna*
  - Erregistro egokia: kontuan hartu da hartzailea nor den eta zer maila duen? Gaiak eskatzen duen tonua eman zaio?
  - Asmo ulergarria: garbi daude helburua, ideiak eta informazioa? Xede komunikatiboa bete da?
  - Aurkezpen egokia: marjinak, kaligrafia, izenburua, paragrafo bereziak...
- *Aberastasuna*
  - Sintaxiaren konplexutasuna
  - Lexikoaren aberastasuna
  - Hartutako arriskua
  - Bariazioa

Lau alderdi horietako edukia laburbildurik, honako kasu hauetan ez da azterketa gaindituko:

- Atal horietakoren batean behin eta berriz egiten bada huts.
- Sistematikoki ez bada ere, bat baino gehiagotan egiten bada huts.
- Idazlanak (laburrak zein luzeak) ez badu nabarmenki eskatzen zaion adinako luzerarik.
- Idazlana eskatutako gaiari lotzen ez bazaio.
- Idazlanak, osotasunean, Euskararen Gaitasun Agiriak (EGAk) eskatzen duen mailarik ez badu.

### **C. Ahozko proba**

Ahozko probak bi zati ditu eta jarraian egiten dira. Azterketariek hiruak egiten dute proba, salbuespenak salbuespen:

- Ahozko azalpena. Hiru azterketariek gai beraren inguruko testu bana izanik, irakurri eta laburtu beharko dute. Horretarako 20ren bat minutu izanen dute. Gero, 5 minutu inguruz arituko dira hizketan epaimahaiaren eta taldeko gainerako azterketarien aurrean.
- *Eztabaida*. Ahozko azalpenak bukatu, azterketari talde horretako kideak elkarrekin arituko dira eztabaidan egokitu zaien gaiaren gainean, betiere alde aurretik ezer ere prestatu gabe. Horretarako, epaimahaiak emandako gidoia hartuko dute oinarri azterketariek.

Bigarren zati hau gehienez 10 minutukoa izanen da.

Ahozko probaren bi zatiak batera balioetsiko dira. Kalifikazioak GAI edo EZ GAI izanen dira.

Ahozko azterketa berrikusiko da baldin eta EGA egiteko eskabidean azterketa grabatzeko eskatu bada. Berrikusi ahal izateko, hartarako ezarritako egunean eskatu behar da ordua.

#### Ahozko proba zuzentzeko irizpideak

Honako hauek dira ahozkoan kontuan hartuko diren alderdiak:

- *Zuzentasuna*
  - Ergatiboa
  - Aditza: aspektua, erregimena, komunztadura
  - Konpletiboak, zehar-galderak...
  - Erlatibozkoak, konpletiboak [-(e)na -(e)la]

- Esaldiaren antolamendua, hitz ordena
- Gehiegizko autozuzenketa
- *Jariotasuna*
  - Naturaltasuna
  - Erritmoa
  - Isiluneak
  - Moteltasuna (neurri batekoa)
- *Ahoskera - Intonazioa*
  - Txistukarien ebakera garbia: s/z, ts/tz...
  - Ñabardurak egiteko gaitasuna: haserrea, poza adierazteko...
- *Aberastasuna*
  - Hiztegi zabala
  - Bariazioa (sintaxian, kohesio baliabideetan...)
  - Esamolderik edo horrelakorik erabili duen
  - Makuluak ("gauza", "kontu"...)
- *Mezua - Elkarreragina*
  - Erregistro egokian ematea
  - Informazio garbia ematea
  - Ongi antolatuta egotea (idea nagusiak, bigarren mailakoak...)
  - Erraz komunikatzea
  - Parte hartzea eztabaidan
  - Solaskideari entzutea eta baita erantzutea ere

Azterketariak honako alderdiok hartu beharko ditu kontuan, besteak beste:

- Gaiaren azalpena hizkera landuan, nahiko jasoan egin beharko du, eta ez lagu-narteko-edo moldean. Batuan zein norberaren euskalkian mintzatzen ahal da.
- Ez da nahikoa solasean aritzea etengabe; gaiaren mamia azaldu behar da, eta ez inguru-minguru ibili. Zer esanik ez, aukeratutako gaiari atxiki beharra dago.
- Azalpenak, lehenik eta behin, zuzena beharko du izan, gramatikala; beraz, egitura ez-zuzenek edo traketsak puntuazioa jaitsiko dute. Era berean, ahoskera traketsak edota ez-egokiak kontuan hartuko ditu epaimahaiak.

Epaimahaiak, bere aldetik, honako alderdi hauei erreparatuko die:

- Azterketariak normal eta naturaltasunez hitz egiten dakiela erakutsi beharko du; hots, ez duela etenik egiten esan behar duena nola esan pentsatzeko.

- Autozuzenketak onartuko ditu baldin eta noizbehinkakoak badira; ez, ordea, behin eta berriro egiten badira, informazio garbiaren kaltetan.
- Hitz egitean, abiadura minimo bat eskatuko da. Halere, zaila da jakitea moteltasun hori hiztunak noiz duen berezkoa eta noiz, aldiz, zer esana eta nola esana gehiegi pentsatu beharretik heldu zaion. Azterketari batzuk abiadura berean mintzatuko baitira euskaraz eta gaztelaniaz.
- Azterketa balioesterakoan, goian esan bezala, honako puntu hauek hartuko dira kontuan: gaiari lotzea, zuzentasuna (ergatiboa, aditzaren aspektua eta komunztadura, erregimena, etab.), aberastasuna...





# II AZTERKETAK

2001/1

2001/2

2002/1

2002/2

Liburu honetako azterketak 2001eko eta 2002ko deialdietan erabilitakoak dira. Hori hala izanik ere, hainbat aldaketa egin da 2003ko deialditik aurrerako azterketen egiturara egokitzeko. Bate-tik, "Esaldiak berridatzi" proba desagertu da 2001eko azterketetatik. Bestetik, "Ahozko proba" atalean 2003ko deialditik aurrera erabiltzen direnak jarri dira.



# 2001eko lehenengo deialdia

2001/1

Atariko proba  
Erantzunak  
Proba idatzia



# EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

## ATARIKO PROBA

### Ohar garrantzitsuak

- EZ JARRI IZENIK EDO SINADURARIK AZTERKETA ORRIETAN ETA ERANTZUN ORRIAN, plika sistema erabiliko baita.
- Arkatzez idatzi. Honela, okertzen bazara, erantzun okerra ezaba dezakezu.
- Azterketa osoko erantzunak **ERANTZUN ORRIAN** markatu behar dira. Orri-multzo hone-tako erantzunak ez dira kontuan hartuko.
- Entzunaren ulermena goizeko **11:00**etan eginen da.

<i>Proba</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Galdera kopurua</i>	<i>Gehienezko puntu kopurua</i>
Aukera anitzeko galderak	1-8	70	70
Entzunaren ulermena	9-10	10	15
Irakurriaren ulermena	11-15	10	15
<b>Azterketa gainditzeko, gutxienez, 65 puntu atera behar dituzu.</b>			

## I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

### 1. Zein da zuzena?

- a) Saiatu, saiatu ziren; baina alperriko ahalegina egin zuten.
- b) Saiatu, saiatu ziren; baina alperrikako ahalegina egin zuten.
- c) Saiatu, saiatu ziren; baina alferriko ahalegina egin zuten.
- d) Saiatu, saiatu ziren; baina alferrikako ahalegina egin zuten.

### 2. "Onik aterako ahal naiz!", esan zuen bere artean.

- a) Ezin zuen sinetsi onik aterako zela.
- b) Haien artean ongi ateratzea nahi zuen.
- c) Onik atera ahal izateko denen laguntza behar zuela esan zuen.
- d) Berekiko esan zuen onik atera nahi zuela.

### 3. Fabore bat zor dizut, opor-leku hori ... ezagutu bainuen.

- a) zure bizkar
- b) zure ezker
- c) zure bitartez
- d) zuregandik

### 4. "Azkenean hara abiatu ziren preso guztiak, errenkadan". Hau da:

- a) Estropezuka abiatu ziren preso guztiak.
- b) Nekatu antzean abiatu ziren preso guztiak.
- c) Ilaran abiatu ziren preso guztiak.
- d) Tirriki-tarraka abiatu ziren preso guztiak.

### 5. Nor da "mordoiloizalea"?

- a) Zuhurra, diruzalea.
- b) Hizkera nahasia erabiltzen duena; bi hizkuntzatarako hitzak erabiltzen dituena.
- c) Janzkera zaharra, baldarra erabiltzen duena.
- d) Odolkiak eta beste tripakiak gustuko dituena.

### 6. Erortzean ...

- a) min asko daukat.
- b) mina egin dut.
- c) kolpea eman dut belaunean.
- d) min hartu dut.

### 7. Mutikoak ez omen zion ... ulertu maisuari.

- a) ezeri
- b) ezer ez
- c) deus ez
- d) ja ere

**8. Aldarte gozo eta otzanez zegoen, barrengo harrik gabe.**

- a) Eguraldi gozoa baina hotza zegoen, goitiko lainorik gabe.
- b) Umore oneko eta lasai zegoen, barruko zimikorik gabe.
- c) Etxartean gozo eta otzanez zegoen, ederki jan baitzuen.
- d) Gozo zegoen izara artean etzanda, barruko arroparik gabe.

**9. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?**

- a) Lurrera ez erortzeko, besotik heldu zidan.
- b) Lurrera ez erortzeko, besotik heldu ninduen.
- c) Lurrera ez erortzeko, besotik heldu nintzen.
- d) Lurrera ez erortzeko, besotik heldu nuen.

**10. Zein da zuzena?**

- a) 2004eko apirilak 11an, 12,00-etan, ezkonduko dira.
- b) 2004eko apirilaren 11n, 12:00etan, ezkonduko dira.
- c) 2004ko apirilaren 11ean, 12:00n, ezkonduko dira.
- d) Martxoaren 7an, ostiralarekin, ezkonduko dira.

**11. "Ez gara galtzen ohituak, horregatik ...". Zein da jarraipen zuzena?**

- a) Amore emango dugu!
- b) Ez dugu etsiko!
- c) Ez diogu eutsiko!
- d) Makurtuko gara!

**12. "Apetak zer eman, hura egiten du beti". Hau da:**

- a) Ematen zaizkion lanabesekin baino ez du lanik egiten.
- b) Dena egiten du bere neurrian.
- c) Beti egoten da besteek zer aginduko.
- d) Nahi duena egiten du beti.

**13. "Hor ari dira marmarrean: ... haurdun dagoela; ... mozkorra dela; ... jokozalea dela".**

- |             |          |          |
|-------------|----------|----------|
| a) urlia    | sandia   | berendia |
| b) erlea    | berendia | urlia    |
| c) berendia | sandia   | urlia    |
| d) sandia   | urlia    | baranda  |

**14. Goizeko ... abiatu ginen ...**

- a) hirutan Donostiaruntz.
- b) hiruretan Donostiarantz.
- c) hiruetan Donostiruntz.
- d) hiruretan Donostirantz.

- 15. "Gezurra dirudi zein gibel-handia zaren!". Zein da erantzun egokia?**
- a) Bai zera! Bost kilo galdu ditut.
  - b) Bai, egia; urduri samarra naiz.
  - c) Bai; baina zikoitza izatea ez da bekatu.
  - d) Tira, patxadatsua izatea ez da hain txarra.
- 16. "..., aurkezpenak egingo ditugu". Hurrengoetatik zein EZ DA zuzena?**
- a) Lehengo
  - b) Lehenik
  - c) Lehenbizi
  - d) Aurrena
- 17. Talde horretako buru guztiek ere pistola daramate beren arazoak konpontzeko. Horregatik, hura ez da haiek baino okerragoa.**
- a) Hura ez da nagusiak baino okerragoa, denek baitaramate pistola beren arazoak konpontzeko.
  - b) Talde horretako guztiak dira gaiztoak, pistola baino ez baitaramate.
  - c) Hark ez ezik, beste guztiek ere pistola erakusten dute.
  - d) Horrelako taldeetan denek daramate pistola, horregatik inor ez da burua baino hobea.
- 18. Dantza ikastaroa egingo balu, tangoa eta flamenkoa dantzatzen ...**
- a) lekike.
  - b) bazekien.
  - c) lekizke.
  - d) zekizkien.
- 19. "Hura pagotxa zela esan, eta ziria ederki sartu nion". Beraz:**
- a) Pagoaren adarra ederki sartu nion.
  - b) Aukera ederra zuela esan, eta ederki engainatu nuen.
  - c) Nork esango zidan ordainketa hura ez zela azkena izango.
  - d) Sute ederra egin genuen, pago egurra baitzen.
- 20. Arazo hori konpontzeko, guztion parte hartzea ezinbestekoa da. Ados?**
- a) Noski ezetz.
  - b) Bai, noski.
  - c) Noski baietz.
  - d) Inondik ere.
- 21. Zein da zuzena?**
- a) Komeni zitzaion gauza horiek guztiak esatea.
  - b) Komeni zitzaizkion gauza guztiak esatea.
  - c) Komeni zitzaion gauza guztiek horiek esatea.
  - d) Komeni zitzaizkion gauza guzti horiek esatea.



**22. Horrelako istorioak edonori gertatzen ahal zaizkio; zuri ere gerta ...**

- a) diezaioke.
- b) dakizkizuke.
- c) zakizkioke.
- d) zekizkizuekeen.

**23. Pozik nago lan berri horretan arduradunak aintzat hartzen ...**

- a) zidalako.
- b) nauelako.
- c) zitzaidalako.
- d) nautelako.

**24. Zuek agertu ez arren, dozena erdia ... bilduko gara.**

- a) batik bat
- b) gutxienez
- c) eskuarki
- d) batez ere

**25. Bihar ..., etor zaitezte oinez, tipirri-taparra, ez autoz.**

- a) etortzerakoan
- b) etorri gero
- c) etortzekotan
- d) etorritakoan

**26. Oso esanekoa da; agintzen dioten guztia ...**

- a) ez egiteko aitzakiarik aurkituko du.
- b) behin baino gehiagotan errepikatu behar zaio.
- c) otzan-otzan egiten du.
- d) gaizki egiten du.

**27. Zenbat hautagaik dakite euskaraz?**

- a) Zazpiek bai eta hamabiek ez.
- b) Zazpiek bai eta hamabik ez.
- c) Zazpik bai eta hamabik ez.
- d) Zazpik bai eta hamabiek ez.

**28. Zein erabiliko du errementariak?**

- a) Goldea
- b) Aitzurra
- c) Ingudea
- d) Eskuarea

**29. Hondarrean partidak luze jo zuen.**

- a) Langan jo zuen.
- b) Lasterka bukatu zuen.
- c) Hondartzako futbol zelaia luze samarra zen.
- d) Uste baino gehiago iraun zuen partidak.

**30. Zein EZ DA zuzena?**

- a) Garrantzi handiko partida da hori.
- b) Beti izaten du aitzakiaren bat.
- c) Antza handia dute.
- d) Donostiara joan behar dut.

**31. ... etortzeko esan dizut!**

- a) Lehen bait lehen
- b) Lehenbailehen
- c) Lehen-bait-lehen
- d) Lehenbaitlehen

**32. Heldu den oporraldian ez gara ... joango, eta ez dugu ... lo egingo.**

- a) noranahi      non-nahi
- b) nora nahi      non nahi
- c) noranahi      non nahi
- d) nora nahi      nonahi

**33. Ez nintzen elurretara joan, ...**

- a) gaixotu bait nintzen.
- b) gaisotu bainintzen.
- c) gaixotu bainintzen.
- d) gaixotu baitnintzen.

**34. "Aurki merkatuko elikagai transgenikoek izartxo gorria delako ezaugarria galduko dute". Hau da; elikagai transgenikoak ...**

- a) gorriak izango dira.
- b) izartxo gorriko merkatuetan aurkituko dira bakarrik.
- c) ez dira merkatuetan salduko, izartxo gorria izanez gero.
- d) orain arte izartxo gorriaz bereizi dira.

**35. "Larrutik ordainduko didak!". Beraz:**

- a) Nork berea ordainduko du.
- b) Ederrak emango dizkiat.
- c) Azaleko kontua besterik ez da izan.
- d) Mesedea ordaintzeko hitzak dira horiek.

**36. Zer ez du gorputzak sortzen?**

- a) Behazuna
- b) Makarra
- c) Berakatzia
- d) Gernua

**37. "Austria herria hain dago emana ordenari eta hierarkiari, non edozein funtzionario doktore den". Beraz:**

- a) Austrian ordena eman ahal izateko funtzionario guztiak doktore dira.
- b) Austrian doktore izateko hierarkia eta ordena errespetatzeaz gain, funtzionario izateko mailak gorde behar dira.
- c) Austriak, berez, ordena eta hierarkia oso bereak ditu, eta horren isla funtzio publikoa da.
- d) Austriak ezingo du gehiagotan eman edozein funtzionariok doktore titulua lortzeko agindua.

**38. "Oihana ezagutu? Ezagutuko ez dut, ba!". Beste era batera esanda:**

- a) Oihana ezagutzen dut.
- b) Ez dut Oihana ezagutzeko gogorik.
- c) Ez dut Oihana ezagutzen, baina ezagutuko dut.
- d) Ez dut Oihana ezagutzen, ezta ezagutuko ere.

**39. Hurrengoetatik zeinetan dago "gorri" hitza gaizki erabilia?**

- a) Gorriak esan zizkion lagunari atetik azaldutakoan.
- b) Mendia soil eta gorri gelditu da hainbeste sute eta lehorteren ondorioz.
- c) Liburu gorritan geratu da liburutegia, goitik behera hustu eta gero.
- d) Dirurik gabe joanez gero, gorriak eta beltzak ikusiko dituzu.

**40. Laranja jak ..., oiloak ..., eta azeriak ...**

- a) zuritu            lumatu            larrutu
- b) zuritu            kimatu            larrutu
- c) pelatu           lumatu            zuritu
- d) zuritu            larrutu            lumatu

**41. Oso pisu txikia zutenez, ...**

- a) etxez aldatu dira.
- b) etxez aldatu dute.
- c) etxeaz aldatu dira.
- d) etxeaz aldatu dute.

**42. "Segi ezak kalera, ..."**

- a) alproja horrek!
- b) alproja hori!
- c) alprojak!
- d) alproja horiek!

**43. Zein EZ DA zuzena?**

- a) Aldian-aldian joaten gara zinemara.
- b) Han-hemenka aurkituko dituzu horrelakoak.
- c) Bulegoz-bulego ibili izan arren, ez du argibiderik lortu.
- d) Esku artean duzun komikia utz ezazu eta has zaitez lanean, behingoz!

**44. Zer da zirimola?**

- a) Zurrunbiloa
- b) Zirina
- c) Ziria
- d) Zirria

**45. "Sustapen txandako lanpostuak bete ezean, txanda irekikoari gehituko zaizkio".  
Zeri buruz ari da?**

- a) Oposizio-lehiaketa baten gainean.
- b) Txanden hurrenkerari buruz.
- c) Lan jardunaldiari buruz.
- d) Sustapen saileko lan txanden antolaketaren gainean.

**46. Ez jantzi arropa hori umeari, ...**

- a) oso gaizki usaintzen du-eta.
- b) asko usaintzen du-eta.
- c) oso txarra usaintzen du-eta.
- d) oso usain txarra du-eta.

**47. Aukera ezazu zuzena.**

- a) Gaur elkar gosalduko dugu.
- b) Jose Mari elkarrengana hurbildu da.
- c) Bi ume jo zuten elkarri.
- d) Elkarri begira gelditu gara.

**48. Zer da litxarrerria?**

- a) Beharrik gabe jaten diren gauza gozoak.
- b) Borroka itsusia, inondik ere egin behar ez dena.
- c) Arropak garbitzeko erabiltzen den isurkari alkalinoa.
- d) Edariak edukitzeko erabiltzen den ontzia.

- 49. "Tema horretan segituz gero, sesioan amaituko dugu". Zer esan nahi du?**
- Ikasgaia bukatzeaz batera amaituko dugu eskola.
  - Proba hori gaindituz gero, hurrengo mailara pasatuko gara.
  - Kirol horretan segituz gero, sasoiaren egongo gara.
  - Ez izan tematia eta utzi kontu hori; bestela, haserretuko gara!
- 50. "Ez uste jokalaria hori bere onenak emanda dagoenik!". Zer esan nahi du?**
- Jokalaria hori ez dela onena.
  - Jokalaria hori maldan behera hasi zela aspaldi.
  - Oraindik ere baduela zer erakutsia.
  - Jokalaria hori hutsaren hurrengo izan dela jardunean hasi zenetik.
- 51. "Horrengandik ez espero gauza handirik, beti luzamendutan ibiltzen direnetakoa da-eta". Hau da:**
- Ez dio inoiz arazoari heltzen.
  - Beti lan eske ibiltzen da.
  - Lanak gehiegi biribiltzen ditu.
  - Lana bukatu ahalean, egiteko berriak asmatzen ditu.
- 52. ... antsia eta ezinegona neukan, non ezin ... geldirik egon.**
- |                     |                  |
|---------------------|------------------|
| a) Hainbesteraino   | bainintzatekeen. |
| b) Hainbesterainoko | bainintzatekeen  |
| c) Hainbesteko      | bainintzateke    |
| d) Hainbaterainoko  | bainintzateke    |
- 53. "Epelkerietan ibiltzeko garaia igaro da". Beraz:**
- gogor jokatzeko garaia da.
  - hotza dator.
  - orain arte epelak entzun behar izan ditugu.
  - eperrak ehizatzeke garaia pasatu da.
- 54. Juanitok 5 urte pasatu ditu espetxean. Gaur aske da, ...**
- bost urteren buruan.
  - bost urte barruan.
  - bost urte barru.
  - bost urteren buruz.
- 55. "Bilerarako deia ... egin zuen, ez zuzendariak.**
- idazkariak bera
  - idazkari berberak
  - idazkari berak
  - idazkariak berak

**56. "Hango kuxidada!" , esan zuen lagunak kamionetan sartzean. Hau da:**

- a) Kamionetaren indarrak izutu zuen.
- b) Kamioneta barrukoa inoiz ikusi zuen dotoreena zen.
- c) Kamioneta hura, kasualitatez, berea bezalakoa zen.
- d) Kamioneta barruko zikinkeriak ez zuen parekorik.

**57. Zein da zuzena?**

- a) Inoiz agertuko den esperantza dugu.
- b) Inoiz agertuko denaren esperantza dugu.
- c) Inoiz agertuko dela esperantza dugu.
- d) Inoiz agertuko delakoaren esperantza dugu.

**58. Gaizki egindakoaren damua ..., ez zuten barkamenik eskatu.**

- a) izatearren
- b) izateagatik
- c) izanagatik
- d) izateko

**59. ... amari ... alabari, biei gustatzen zaizkie pastelak.**

- a) nola            nola
- b) hala            nola
- c) bai             baita
- d) baita           ere

**60. Nola idazten da 777?**

- a) Zazpirehun eta hirurogeita hamazazpi.
- b) Zazpirehun eta hirurogei eta hamazazpi.
- c) Zazpiehunda hirurogeita hamazazpi.
- d) Zazpiehun eta hirurogeita hamazazpi.

**61. "Hezea ez dena, bizitasuna galtzeraino lehortuko dena".**

- a) Ihia.
- b) lharra.
- c) lhintza.
- d) lfrentzua.

**62. Besteak kritikatzan ..., geuri egindako kritikak hartzen ere jakin behar dugu.**

- a) ez ezik
- b) ezean
- c) izan ezik
- d) ezik

**63. Guk, ... nagiak atera gabe ginela, ez genuen txantxa hura ulertu.**

- a) ordutik
- b) artean
- c) dagoeneko
- d) honezkero

**64. Zein zerrendatan ageri da ortografia-akatsen bat?**

- a) Otso, etsai, jaitsi, zintzarri, leiha
- b) Hurbil, saihestu, horma, kutsadura, hesi
- c) Zozo, etsi, sexu, testu, zital
- d) Sustatu, milioi, leiho, goxo, ziur.

**65. "Antzinako kontuak ahotan hartuta mintzatu zen". Hau da:**

- a) Ideia aurrerakoiak gustuko zituela mintzatu zen.
- b) Mintzaldian lehengo gertaerak aipatu zituen.
- c) Mintzatu baino lehen, kontuan hartu zituen esateko zituenak.
- d) Kontu guztiak ahoz esan zituen.

**66. Lurrean egiten den zulo luze eta meharra:**

- a) Luberria
- b) Lubakia
- c) Luhesia
- d) Luizia

**67. Hara non agertu zitzaigun ... buruan zuela.**

- a) txano gorriarekin
- b) txano gorria
- c) txano gorriaz
- d) txano gorriz

**68. Ez da egunkari txarra. ..., asko behar du besteen parera ailegatzeko.**

- a) Ez ezik
- b) Halabiz
- c) Nolanahi ere
- d) Baino

**69. Hantxe utzi behar izan genuen auto zaharra, alde guztietatik kea ...**

- a) zirudiela.
- b) zerizkiola.
- c) zirauela.
- d) zeriola.

**70. Hurrengo esaldietatik, zein da zuzena?**

- a) Lan hauek ez dira etzirako, astelehenerako baizik.
- b) Lan hauek ez dira etziko, astelehenerako baizik.
- c) Lan hauek ez dira etzirako, astelehenarako baizik.
- d) Lan hauek ez dira etziko, astelehenako baizik.



## II. ENTZUNAREN ULERMENA

*Entzungaia liburuari erantsirik datorren CDan dago eta haren transkripzioa liburuaren bukaerako eranskinean.*

### 71. N 132 D izarra erraldoia omen da:

- a) Eta argiak izar hori alderik alde gurutzatzeko bi argi-urte beharko lituzke.
- b) Eta argiak bi urte erabiliko lituzke izar horren diametroak dituen milioika kilometroak egiteko.
- c) Eta argiak bi urte beharko lituzke izar horri itzulia emateko.

### 72. Zer dio izarren tamainaz?

- a) Eguzkia ere orain baino handiagoa zela bere gaztaroan.
- b) Gure izar hau, erraldoia izanik ere, ez dela beste asko bezain handia.
- c) Hil-hurren daudenean hedatu egiten direla.

### 73. Izarrak jaio eta hil egiten omen dira:

- a) Bai; eta tamaina nolakoa, biziraupena halakoa.
- b) Izar erraldoiek 9 milioi urte irauten dute, gutxi gorabehera.
- c) Eta izar handienek, Eguzkiak kasu, iraupen handiagoa izaten dute.

### 74. Zenbat denbora iraungo du N 132 D izarrak?

- a) Ez du Eguzkiak bezainbat iraungo.
- b) Orain arte bizi izandakoa halako bi.
- c) Oraingoz ez dago zehazterik. Ongi aztertu beharreko kontua da.

### 75. Zergatik ez dugu lehenago izar honen berri izan?

- a) Behaketaren alorrean atzerapen handiz gabiltzanez, argitsuenak baino ezin ditugulako ikusi.
- b) Astronomiaren ikuspuntutik hau baino interesgarriagoak diren izar asko daudelako zeruan.
- c) Gugandik milaka milioi urtera dagoelako 899an sortutako izar hau.

### 76. Nola sortzen dira izarrak?

- a) Inguruko izar batean gertatutako erreakzio nuklearren eraginez gasa askatzen hasten da, eta, izugarri berotzen denean, hodei handi bat sortzen du, gerora izar bilakatuko dena.
- b) Batez ere gasez osaturiko hodei ikaragarri handietan, non erreakzio nuklearren ondorioz izarrak pizten diren.
- c) Fenomeno bortitz baten ondorioz sortzen dira. Esate baterako, inguruko hodei bat ikaragarri berotu eta suak hartzen duenean.

**77. N 132 D. Zergatik izen hori?**

- a) XXI. mendearen atarian gaude, eta jada erromantizismoak ez du tokirik izarrak sailkatzeko garaian.
- b) Teleskopioarekin hauteman daitezkeen izar kopurutzar hori sailkatze aldera, izendatze sistema horixe aplikatzen delako.
- c) Teleskopioarekin hainbeste dira ikus daitezkeen izarrak, non argitsuene baino ez duten izen berezia hartzen, eta besteek zenbakia eta letra.

**78. Izarraren argitasunari erreparatuz, bere adina jakin daiteke:**

- a) Bai, argitasunaren zenbatasunaren nahiz nolakotasunaren analisiak emango digu izarraren adina.
- b) Bai, zenbat eta argitsuago, orduan eta helduago.
- c) Bai, eta horretarako izarrak igortzen dituen X izpiak aztertzea da erabakigarriena.

**79. Izar gazte hau aurkitu izana oso inportantea da:**

- a) Oso gutxi baitira izar jaioberriak; gehienak helduak dira, itzaltzekotan daudenak.
- b) Eta aurkikuntza honek izarren sortze prozesuaren ezagutzan aurrera egitea ahalbidetuko digu.
- c) Izan ere, izar hau bere gaztetasunean aurkitu izana oso baliagarria izango zaigu heriotza-prozesua nolakoa izango den aurreikusteko.

**80. Zer da arkeoastronomia?**

- a) Astronomiarekin lotura estua du, baina zientzia izatera iritsi gabe.
- b) Zientzia bat da, historiaurrea eta konstelazioak astronomiaren ikuspuntutik aztertzen dituena.
- c) Zientzia bat da, historia, kultura eta astronomia uztartzen dituena.

### III. IRAKURRIAREN ULERMENA (I) GALDERAK

#### 81. Zein da egia?

- a) Portaera suizidari lotuta agertzen diren arrisku-faktoreak sozialak, psikiatrikoak eta afektibitate gabeziakoak izan daitezke.
- b) Portaera suizidak sakonki ezagutzea zaila izan arren, horiek errazten dituzten arrisku-faktoreak egon badaudela esan dezakegu. Horiei irtenbide egokia emanez gero, urrats garrantzitsua emango litzateke suizidioaren prebentzioan.
- c) Ikerketa epidemiologikoen hau frogatu dute: suizidioari lotutako arrisku-faktore sozialak zein psikiatrikoak ezagutuz gero, suizidioa, neurri handi batean, aurreikus daitezke eta, hortaz, ekidin.
- d) Suizida gehienek ondoko gaixotasun psikiatrikoen konbinazio bat sufritzen dutela diote ikerketa epidemiologikoen: depresioa, alkoholismoa -edo bestelako drogen abusua- edo eskizofrenia.

#### 82. Depresioa da, zalantzarik gabe, suizidioari maizen lotuta ageri den gaixotasun psikiatrikoa.

- a) Zenbaitetan -gizonezkoen kasuan, batik bat- bestelako faktore batzuk ageri dira suizidioaren eragileen artean.
- b) Depresio bete-betea sufritzen dutenengan suizidio-arriskua izugarri igotzen da urtearen lehenengo hiru hilabeteetan.
- c) Eta depresio bete-betea sufritzen dutenen artean emakumeak dira suizidio-arriskua handiagoa dutenak.
- d) Depresioak jota dauden gizonezkoen kasuan bestelako faktoreak dira suizidatze- ra bultzatzen dituztenak; besteak beste, alkoholaren abusua.

#### 83. Depresioaren kontrako tratamenduan farmakoak oso baliagarriak omen dira suizidio-arriskua altua denean.

- a) Ikerketa baten arabera, depresioa zuten suiziden ia erdiak tratamendu psikiatrikopian egonik ere, % 3k baino ez zuten depresioaren kontrako farmakoren bat hartu.
- b) Suizidioaren prebentzioan tratamendu farmakologikoa funtsezkoa izanagatik, ez omen da diagnostiko egokia egitea bezain garrantzitsua.
- c) Antidepressiboetan oinarritutako tratamendu egokia zehatz-mehatz jarraitzeari esker suizidio-kasuak nabarmen jaitsi direla frogatu da.
- d) Eta tratamendua egokiro ez betetzeak portaera suizida saihestu baino gehiago, bultzatu egin lezake.

**84. Alkoholikoengan ere suizidio kopurua oso altua da.**

- a) Eta suizida alkoholiko gehienek tratatu gabeko gaixotasun psikiatrikoren bat sufritzen zutela ere ageri da.
- b) Nolanahi ere, tratamenduan dauden alkoholikoengan suizidio-arriskua erdira baino gehiago jaisten da.
- c) Alkoholikoen erdiak baino gehiago depresioak jota egoten dira, eta bi gaixotasunen elkarreraginak suizidiora eramaten ditu askotan.
- d) Badirudi gaixotasun psikiatrikoek adina suizidio eragiten dituela alkoholaren kontrako tratamendu ezak.

**85. Eta askotan alkoholismoa eta depresioa elkarri lotuta agertzen zaizkigu.**

- a) Batez ere emakumezkoengan gertatzen da binomio hori, alkoholaren atzaparretan erori direla ezin beren buruari onartu eta, ondorioz, deprimitu egiten dira.
- b) Emakumezkoengan maizago gertatzen bada ere, gizonaek dira zulo beltzetik, depresiotik, ateratzeko alkoholean penak itotzen dituztenak.
- c) Gizonaek zein emakumezkoengan gerta daiteke batera agertzearena, baina bi arazoak agertzeko ordena da generoaren arabera aldatzen dena.
- d) Eta biak sufritzeko arriskua gizonaek baino baxuagoa da emakume alkoholikoetan.

**86. Eskizofrenia ere suizidioarekin erlazionatuta dagoen beste gaixotasun psikiatriko bat da.**

- a) Eskizofrenia sufritzen duten gaixoen artean gizonaek gazteek adinduek baino arrisku handiagoa dute beren buruaz beste egiteko. Izan ere, energia eta indarra behar dira erabiltzen dituzten metodo bortitzen bitartez suizidatzeko.
- b) Eskizofrenikoei, gainera, beren buruaz beste egiteko metodoetan nabari zaie gaixotasunak dakarkien kontrol eta kontzientzia galera eta, hortaz, erabiltzen dituzten metodoak askoz bortitzagoak izaten dira.
- c) Behin ospitaletik irtenda, bikoiztu egiten da gazte eskizofrenikoei beren buruaz beste egiteko arriskua, medikuen jarraipen ezak kontrola galtzera baitaramatza.
- d) Gaixoarengan eskizofrenian izaten diren sintoma negatiboak baino nabariagoak badira positiboak, beren buruaz beste egiteko arriskua areagotu egingo da.

**87. Baina gaixotasun psikiatriko honek tratamendu zaila du, eta, ondorioz, nekez egin daiteke suizidioaren prebentzioa.**

- a) Gaixoak erakusten duen jarrerak zaildu egiten du tratamendua, ez baitu bere gaixotasunaren batere kontzientziarik. Eta, horrenbestez, nekez joko du profesional batengana laguntza eske.
- b) Ez dago farmakoen laguntzarekin kontatzerik, horiek alferrik hartuko dituela uste baitu eskizofrenikoei, eta edozein aitzakia erabiliko du tratamendua bertan behera uzteko.
- c) Izan ere, gaixoak ez du bere gaixotasunaren kontzientziarik eta, gogoz kontra ez bada behintzat, ez du laguntza psikiatrikorik eskatuko, eta bere burua hilko du erremediorik gabe.
- d) Eskizofrenikoei duen arazo garrantzitsuenetakoa da gaixoak ez duela bere gaitzaren berri izan nahi. Bere burua engainatzen ibiliko da eta ez du laguntzarik eskatuko.

**88. Gaixotasun psikiatrikoak ez ezik, faktore sozialak ere badaude suizidioarekin erlazionatuta.**

- a) Gazteen artean suizidio kasuak izugarri ugartu dira, gehienetan jasaten dituzten tratu txarrak tarteko.
- b) Bananduta egoteak, lanik ez izateak, ezkongabea izateak edo bakarrik bizitzeak ez dute adinak eta generoak beste eragiten portaera suizidan.
- c) Generoak eragina du, gehienetan gizonezkoen artean gertatzen baita suizidio kasurik gehien. Urteetan aurrera sartu ahala, agidanez, joera hori nabarmenago egiten da, gainera.
- d) Gazteen artean, eta batez ere mutiletan, suizidio kasuak izugarri ugaltu dira. Estatu Batuetan, esaterako, 15-19 urte bitarteko gazteetatik ia-ia % 28 suizidio-arriskuan daude.

**89. Egoera ekonomikoak ere eragin nabarmena du suizidioan.**

- a) Esate baterako, Errusian, Sobiet Batasuna desagertu zenetik, krisi ekonomiko larrian murgildu dira eta horrek % 4 igorazi du suizidio-arriskua.
- b) Gerra garaian gertatzen diren suizidio kasuak ez dira krisi ekonomiko garaietan bezainbat.
- c) Errusian suizidioak ikaragarri ugartu dira Sobiet Batasunean zuten osasun zerbitzuari ezin eutsiz dabiltzan honetan, prebentzio lana burutu ezina baita.
- d) torkinen suizidio kopurua, egun, oso altua da, bizi duten egoera ekonomiko latzak, herriminarekin eta gizartean bakartzearekin bat egiten baitu.

**90. Kontuak kontu, eta esanak esan, honako hau da estatistikek diotena.**

- a) Populazioaren % 5ek suizidio saiakeraren bat egin dute inoiz edo behin, eta horien % 10ek burutzea lortu dute.
- b) Kasu gehienetan suizidak, era batez edo bestez, eta argi ez bada ere, bere asmoen berri emango die ingurukoei. Hortaz, sendagileen eta familiakoen arteko elkarlana ezinbestekoa izango da suizidioa eragozteko.
- c) Osasun arloko profesionalek arrisku-faktore guztietan jarri beharko dute arreta, kasuan kasuko asistentzia edo laguntzaren beharra balioetsi ahal izateko.
- d) Bizitzan zehar beren buruaz beste egitea pentsatu dutenen artean, hamarretik batek egingo du saioaren bat, eta horietatik % 10 azkeneraino iritsiko dira.

### III. IRAKURRIAREN ULERMENA (II) TESTUA

#### **SUIZIDIOA. Zergatik? Nola aurre egin?**

*Elhuyar*, 1999ko iraila (egokitua)

Portaera suiziden eragina, hedadura zein joera baloratzea oso zaila izan arren, ontzat joenezake, zalantzarik izan gabe, suizidioari lotutako zenbait faktore badaudela. Ildo horretan, suizidio-gertakarien lagin zabalak erabiliz egindako ikerketa epidemiologikoek adierazten dute badaudela portaera suizidari lotuta zenbait arrisku faktore sozial zein psikiatriko garrantzitsu. Arrisku faktore horiek ezagutu eta konponduz gero, aurrerapauso baliagarriak eman daitezke suizidioaren prebentzioan.

#### **Gaixotasun psikiatrikoak**

1959. urtean, *Robins eta kideek* lehen aldiz frogatu zituzten suizidioaren eta gaixotasun psikiatrikoen arteko loturak. Beraiek egindako ikerketan, aztertutako suiziden % 94k bere buruaz beste egitean gaixotasun psikiatrikoaren bat sufritzen zutela frogatu zuten. Haietako % 45ek arazo afektiboak zituzten, eta beste % 23k alkoholismoa zuten diagnostikotzat. Beste hainbat ikerketak baieztatu du depresioa, alkoholismoa zein bestelako drogen abusua eta eskizofrenia suizidioarekin lotura handia duten gaixotasun psikiatrikoak direla.

#### **Depresioa**

Depresioa da, zalantzarik gabe, suizidioari maizen lotuta ageri den gaixotasun psikiatrikoa. Aldi berean, ontzat jotzen da depresio bete-betea sufritzen duten gaixoengan suizidio-arriskua % 19koa dela. Horregatik, suizidioaren prebentzioa zaila izan arren, depresioak jotako gaixoen benetako suizidio arriskua aztertzeko, gertakizun depresiboaren larritasun-maila zehazteak ezinbestekoa dirudi.

Gaixotasun depresiboen artean, depresio bete-betea argi eta garbi diagnostikatu zitzaizen gaixoen eta horretarako baldintza guztiak betetzen ez zituztenen arteko ezberdintasunak frogatu dira. Adibidez, bigarren multzo horretan gizonezkoak dira nagusi, eta bertan, maiz, suizidioa erlazionatuta dago alkoholaren abusuarekin edo mendekotasunarekin, nortasun-arazoekin edo depresioaren aurreko gaixotasun fisiko larriren batekin. Aitzitik, depresio bete-betea nagusiki emakumezkoengan gertatzen da, eta, kasu askotan, diagnostikoa bakarria izaten da.

Bestalde, depresio bete-betearen lehenengo hiru hilabeteetan edota errepikatzen diren gertaera depresiboetan suizidio-arriskua handiagoa omen da.

Gaixo deprimituek euren buruaz beste egitea eragozteko eta prebenitzeko jarraitu beharreko tratamenduaren eta beharrezkoa den laguntza psikiatrikoaren betebeharrak

eztabaida gogorak piztu izan ditu. Ikerketa batzuen arabera, oso garrantzitsuak dira depresioaren tratamendu psikologiko edota farmakologiko egokiak suizidiorako arrisku faktoreak gutxitzeko. Hori kontuan hartuta, depresioaren aurkako tratamenduan farmakoren bat erabili beharko litzateke, batez ere suizidio-arriskua nabarmena den kasuetan. Hori horrela izanda ere, *Isometsä eta kideek* 1994an egindako ikerketan agerian jarri zuten benetako egoera zein den.

Esaterako, depresioa zuten suiziden % 45 soilik zeuden tratamendu psikiatrikopen bere buruaz beste egin zutenean, eta % 3k baino ez zuten hartu depresioaren aurkako farmakoren bat dosi egokietan. Egindako beste ikerketa baten arabera, deprimituen erdiak baino gehiagok mediku batekin egon ziren bere buruaz beste egin aurreko hiru hilabeteetan, baina haien erdiei soilik eman zitzaien depresioaren aurkako farmakoren bat, eta azken horien herenek soilik zeuzkaten antidepresibo-aztarnak odolean autopsia egin zitzaientean. Datu horien guztien arabera, tratamendu ezak, tratamendu desegokiak edo tratamendua egoki ez betetzeak portaera suizida susta lezake. Era berean, diagnostiko egokiak zein depresioaren aurkako farmakoen bidez egindako tratamenduek gaixo deprimituen suizidio-arriskua nabarmen murrizten dutela frogatu da.

## Alkoholismoa

Alkoholikoen arteko suizidio kopurua ere populazio arruntarena baino dezente altuagoa da. Gaur egungo alkoholikoen suizidio-arriskua % 8tik 11 bitartekoa da, baina tratamenduan dauden alkoholikoengan % 3,4ra jaisten da. Hala ere, hil baino lehen suizida alkoholikoen erdiek baino gehiagok bestelako gaixotasun psikiatrikoren bat sufritzen dutela ere demostratu da. Horren arabera, alkoholismoaren eta bestelako gaixotasun psikiatrikoren arteko elkarrekintza portaera suizidarako arrisku-faktore garrantzitsua da.

Sarritan alkoholismoa eta depresioa elkarri lotuta agertzen zaizkigu. Horrela, alkoholikoen depresioa sufritzeko duten arriskua alkoholiko ez direnena baino bi aldiz handiagoa da. Bi arazo horiek sarriago agertzen dira batera emakumezkoen artean. Gainera, agertzeko ordena ere generoaren araberako kontua da. Esaterako, gizonezkoen % 78tan alkoholismoa agertzen da lehenengo, eta alkoholismo horren ondorioz deprimitzen dira. Emakumezkoen artean, ordea, % 66tan depresioa da lehenengo arazoa eta, ziur aski, depresio horrek bultzatuta alkoholismoa agertzen da gero.

Bestalde, badirudi alkoholaren abusuak gazteen suizidioarekin zerikusi handia duela. Adibidez, euren buruaz beste eginda hil ziren gazte finlandiarren % 50ek detektatzeko adinako alkohol maila zeukaten odolean. Gazteen kasuan, gero eta nabarmenagoa da alkoholak ez ezik, bestelako drogek ere suizidioarekin duten lotura.

## Eskizofrenia

Eskizofrenia sarritan suizidioarekin erlazionatuta dagoen beste gaixotasun psikiatriko bat da. Eskizofrenia sufritzen duten gaixoek jende arruntak baino 10-20 aldiz suizidio-arrisku handiagoa dute. Hortaz, eurengan heriotza goiztiarraren arrazoi nagusietakoa suizidioa da. Arrisku hori gizonezko gazteen artean handiagoa da eta, besteen artean ez

bezala, adinean aurrera joan ahala murriztu egiten da. Bestalde, gaixo eskizofrenikoen suizidio-arriskua ospitalean dauden bitartean txikiagoa izaten da, baina ospitaletik atera ondoren bikoiztu egiten da. Gaixo eskizofrenikoek modu askoz ere bortitzagoak eta normalean hilkorragoak erabiltzen dituzte beren buruaz beste egiteko.

Gehienetan eskizofrenian bi motatako sintomak agertzen dira: negatiboak (emozio eza, afektibitatea desagertzea, jendearekiko mesfidantza eta erlazio falta...), eta positiboak (haluzinazioak, asaldura, hiperaktibitatea, susmagarritasun paranoikoak...). Sintoma positiboak negatiboak baino nabarmenagoak diren heinean, suizidio-arriskua altuagoa izango da.

Dena den, eskizofreniaren arazo garrantzitsu eta larrienetariko bat ondorengo da: gaixoak berak ez du bere buruaren gaixotasunaren inolako kontzientziarik. Horregatik, eskizofrenia sufritzen duten gaixoek sendagileekiko joera guztiz negatibo eta mesfidagaitza dute, eta, horren ondorioz, normalean ez dute laguntza psikiatrikorik eskatuko. Gainera, tratamenduan hasita ere, eskizofrenikoek farmakoak hartu beharra eraso gisa ikusten dute eta, eskuarki, edozein aitzakiaren bidez tratamendua uzten saiatuko dira. Horrela, bere buruaz beste egiteko arriskua areagotzen da.

## **Arrisku-faktore sozialak**

Aurreko guztiaz gainera, portaera suizidarekin erlazionatuta egon daitezkeen zenbait faktore sozial ere badaudela frogatu da. Dirudenez, ezkongabea izatea edo bananduta egotea, langabea izatea edo bakarrik bizitzea suizidioa eragin dezaketen egoera sozialak dira. Ildo beretik, adinak eta generoak ere portaera suizidarekin zerikusirik izan dezakete. Adibidez, suizidioa gehiago gertatzen da gizonezkoen artean emakumezkoetan baino. Badirudi, gainera, salbuespenak salbuespen, adinarekin batera handiagotzen dela joera hori. Hala ere, azken boladan, gazteen artean -batez ere mutiletan- suizidio-tasaren igoera nabarmena izan da. Adibide gisa, 1980tik 1992ra bitartean, Estatu Batuetan, 15etik 19 urte bitarteko adin-tartean, suizidio-kopurua % 28 igo zen, eta 10etik 14 urte bitarteko adin-tartean % 120. Gazteen kasuan, familia arazoak, ikasketa arazoak eta gurasoek emandako tratatu txarrak dira, nabarmen, euren buruaz beste egiteko arrazoia.

Pertsona zaharren kasuan, aitzitik, bakartze soziala, bakardadea eta jendearekiko komunikazio eza izan ohi dira suizidio-eragile.

Suizidioen kopurua gerra garaian txikiagoa da. Depresio ekonomikoko garaian, berriaz, nabarmen igozten da, jendearen egoera ekonomikoa behera doan heinean, suizidio arriskuak gora egiten baitu. Adibidez, Sobiet Batasuna desagertzearen ondorioz sortutako krisialdi ekonomikoa dela eta, Errusian suizidio-tasa % 4 igo da.

Testuinguru horretan, immigranteen edo etorkinen suizidio-arriskua oso altua izan- go da, euren egoera ekonomiko txarrak, bakardadearekin eta bizi duten gizarte-bakartzearekin bat egiten baitu.

Azkenik, suizidio gehiago gertatzen dira egunean zehar gauean baino. Era berean, astearen hasieran eta udaberrian sarriago gertatzen dira beste inoiz baino.



## Ondorioak

Laburbilduz, asko dira portaera suizidarekin zerikusirik izan dezaketen arrisku-faktoreak eta, badirudi, horiek ikertzea ezinbestekoa dela suizidioaren benetako prebentzioa lantzeko. Ezin dugu ahaztu, estatistiken arabera, populazioaren % 5ek bere bizitzan zehar behin, gutxienez, beren buruaz beste egitea pentsatu dutela. Gainera, beren buruaz beste egiten duten pertsona askok medikuarengana jotzen dute aurreko hilabetetan edo egunetan. Gaixo bakoitzaren suizidio-arriskuaren balioespenak pertsona horren osagai guztiak hartu beharko lituzke kontuan, gaixoak bere buruaz beste egitea saihesteko. Gainera, kasu gehienetan suizidak bere erabakia aditzera emango du lehenago. Horregatik, suizidio-saioei arreta handia eskaini behar zaie, aurrerantzean horietako % 10ek benetako suizidioa burutuko baitute.

Oro har, osasungintzako profesionalek erne egon beharko lukete faktore horien guztien aurrean, kasu bakoitzean asistentzia edo laguntza espezializatua beharrezkoa ote den baloratzeko eta gaixoa ondoen dagokion moduan bideratzeko.



## I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. d	16. a	31. b	46. d	61. b
2. d	17. a	32. a	47. d	62. a
3. c	18. a	33. c	48. a	63. b
4. c	19. b	34. d	49. d	64. a
5. b	20. b	35. b	50. c	65. b
6. d	21. a	36. c	51. a	66. b
7. d	22. b	37. c	52. b	67. b
8. b	23. b	38. a	53. a	68. c
9. a	24. b	39. c	54. a	69. d
10. d	25. c	40. a	55. d	70. b
11. b	26. c	41. a	56. d	
12. d	27. c	42. b	57. a	
13. a	28. c	43. c	58. c	
14. b	29. d	44. a	59. b	
15. d	30. c	45. a	60. d	

## II. ENTZUNAREN ULERMENA

71. b	76. b
72. c	77. b
73. a	78. a
74. a	79. b
75. c	80. c

## III. IRAKURRIAREN ULERMENA

81. b	86. d
82. a	87. a
83. d	88. c
84. b	89. b
85. c	90. c



# EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

## PROBA IDATZIA

### Ohar garrantzitsuak

- Azterketa honek 10 orri ditu, 2 multzotan banaturik.
- Ez jarri izenik edo sinadurarik azterketa orrietan.
- Idazteko boligrafo beltza edo urdin iluna erabili.

<i>Proba idatzia</i>		<i>Puntu Kopurua</i>	
		<i>Gehienez</i>	<i>Gutxienez</i>
Idazlan laburra	100 hitz, gutxienez, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe. 2 GAI aukeran.	10	5
Idazlan luzea	300 hitz, gutxienez. 3 GAI aukeran.	30	15
Azterketa osoa gainditzeko, GUTXIENEZ, 22 puntu atera behar dira.			

## IDAZLAN LABURRA

- \* Proposatzen diren bi gaien artean **bat** aukeratu behar duzu.
- \* Idazlana, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe, **gutxienez, 100** hitzekoa izanenda (15-20 lerro).
- \* Proba honetan gauzak zehatz adierazteko gaitasuna baloratu nahi dugu. Hortaz, estu-estu lotu "Gaia", "Egitekoa" eta, batez ere, "Nahitaez eman behar duzun informazioa" izeneko atalei. **Labur eta argi** adierazi azaldu beharrekoa, alferrik luzatu gabe. Ez ahaztu atal honetan zuzentasun handia eskatuko zaizula.

### 1. idazlana

---

#### Gaia:

Supermerkatuko produktuen errotulazio elebiduna kendu dute.

#### Egitekoa:

Bezero ez ezik, auzoko Euskara Taldeko partaide ere bazara, eta produktuen errotulazio elebiduna kendu dutenez, supermerkatuko arduradun nagusiari kexa-gutun bat idatzi behar diozu taldearen haserrea adierazteko.

#### Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ▶ Errotulazio elebidunaren aldeko jarrera adierazi eta arrazoitu.
- ▶ Taldekideen haserrea adierazi.



### 2. idazlana

---

#### Gaia:

Ikastetxeko jantokiko menutik behikia kentzea.

#### Egitekoa:

Ikasle baten gurasoa zara eta "behi eroen" gaitza dela-eta, ikastetxeko zuzendariari eskabidea egin behar diozu jantokiko arduradunarekin hitz egin dezan behikia eguneroko menutik kentzeko.



#### Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ▶ Nor zaren eta zure kezkaren nondik norakoak zein diren azaldu.
- ▶ Zuzendariari bitartekari lana egin behar duela garbi adierazi.

## IDAZLAN LUZEA

### OHARRAK:

- \* Proposatzen diren hiru gaien artean bat aukeratu behar duzu.
- \* Idazlanak **300 hitz** eduki behar ditu, **gutxienez**.
- \* Idazlana egiteko orri hauek informazioa erabiltzea aukerakoa da. Beraz, ez zaude erabiltzera beharturik.
- \* Proba honetan gaia garatzeko duzun gaitasuna erakutsi behar duzu.
- \* Gogora ezazu ezin duzula zure benetako izena erabili sinatzeko.
- \* Proba baloratzeko lau alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, testuaren antolaketa (koherentzia eta kohesioa), egokitasuna eta aberastasuna.

## 1. GAIA GOSEA MUNDUAN

826 milioi lagun goseak jota bizi dira munduan. Horrek esan nahi du zazpi segundoz behin ume bat hiltzen dela gosearen eraginez.



Duela bost urte karga basati  
batean Brasilgo poliziak 19  
nekazari hil zituen lur hektarea  
batzuk okupatzera  
zihoazenean.

"Klima aldaketak ere eragin handia izango du gose direnengan".

### Ondoko puntu hauek baliatzea:

- ▶ Europan neurritz gain ekoizten den esnea, hauts bilakatu ondoren, Indian ere saltzen da nahiz eta munduko esne ekoizlerik handiena izan.
- ▶ Batzuen ustez, landare transgenikoak irtenbide ona izan daitezke.
- ▶ Egungo neoliberalismo basatiak hainbat ondorio dakar: nekazari xumeen desagertzea, ingurumenaren hondamena, kontsumitzaileen osasuna arriskuan jartzea...

## 2. GAIA MINBIZIA

*"Gogorra da benetan minbiziak  
jota zaudela jakitea".*

"1973-1978 bosturtekoarekin alderatuta,  
1993-1998 epean minbizi kasuen  
kopuruak gora egin du: % 45 gizonezkoen  
artean eta % 29 emakumezkoetan".



"Adituek jakinarazi dute gaur egun minbizi kasu berrien erdiak larruzalekoak direla eta, gainera, horietako 2/3 inguruk eguzkia hartzeko ohiturarekin dutela zerikusia".

### **Ondoko puntu hauetaz balia zaitetzke:**

- ▶ Tabakoa da minbiziaren eragile handienetariko bat.XXX
- ▶ Azal beltzarana edertasun seinale bihurtu zaigu azken urteotan. Hala ere, belzteko sistema artifizialak zein eguzkitan luzaro egotea azaleko minbiziaren iturritzat jotzen dituzte adituek.



### 3. GAIA

#### ANTISORGAILUAK

“Emakume gazteen % 3k bakarrik jasotzen dute antisorgailuen gaineko informazioa sendagilearengandik”.

Inkesta batean kondoiaren erabiltzaileen % 70ek arrazoi ezberdinak eman zituzten antisorgailu hori erabiltzeko, baina bakar batek ere ez zuen aipatu HIESAren birusa harrapatzeko arriskua saihesteko baliatzen duenik.



Hona  
hemen  
zenbait  
antisorgailuren  
segurtasun edota  
eraginkortasun maila: pilula % 99,5;  
preserbatiboa % 95 behar bezala erabiliz  
gero; espermizidak % 75 eta biharamuneko pilula  
% 75etik % 80ra bitartekoa”.

#### Ondoko puntu hauetaz balia zaitetzke:

- ▶ Nahiz eta antisorgailuen gaineko informazioa gero eta zabalagoa izan, Nafarroako gazteen % 14k oraindik ez dute antisorgailurik erabiltzen.
- ▶ Antisorgailu berrien artean biharamuneko pilula da gehien ahotean dabilena: ikastetxeetan banatu behar ote den, Osasunbidearen esku egon behar ote duen...



# 2001eko bigarren deialdia

2001/2

Atariko proba  
Erantzunak  
Proba idatzia



# EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

## ATARIKO PROBA

### Ohar garrantzitsuak

- EZ JARRI IZENIK EDO SINADURARIK AZTERKETA ORRIETAN ETA ERANTZUN ORRIAN, plika sistema erabiliko baita.
- Arkatzez idatzi. Honela, okertzen bazara, erantzun okerra ezaba dezakezu.
- Azterketa osoko erantzunak **ERANTZUN ORRIAN** markatu behar dira. Orri-multzo hone-tako erantzunak ez dira kontuan hartuko.
- Entzunaren ulermena goizeko **11:00**etan eginen da.

<i>Proba</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Galdera kopurua</i>	<i>Gehienezko puntu kopurua</i>
Aukera anitzeko galderak	1-8	70	70
Entzunaren ulermena	9-10	10	15
Irakurriaren ulermena	11-15	10	15
<b>Azterketa gainditzeko, gutxienez, 65 puntu atera behar dituzu.</b>			

## I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. **Entzun nahi zituzten kontutxoak kontu ... isilik egon ziren.**
  - a) geniezazkien
  - b) genkizkien
  - c) geniezaien
  - d) genizkien
  
2. **Esaldi hauen artean, zein da zuzena?**
  - a) Emazkiozu goraintziak nire partetik!
  - b) Norengandik galdetu zuela diozu?
  - c) Zuk pertsonalki egin behar duzu.
  - d) Laster ikusiko gara elkar.
  
3. **Sei seme-alaba ziren, eta ... gazteena zen bihurriena.**
  - a) seitik
  - b) seitan
  - c) seiretan
  - d) seietan
  
4. **Nik, ..., ez dut sekula zu bezalakorik ezagutu.**
  - a) gutxienez
  - b) behinik behin
  - c) behin edo behin
  - d) behinola
  
5. **Atzo babarrunak jan zituzten. Eta zuek?**
  - a) Zuek ere baita.
  - b) Etxean ere.
  - c) Guk ere bai, jantokian.
  - d) Gu jantokian ere.
  
6. **Oso ongi moldatzen ziren Iratxerekin; izan ere, ...**
  - a) begitan zuten.
  - b) begi onekin ikusten zuten.
  - c) begiko zuten.
  - d) begiz jota zuten.
  
7. **“Sarri ikusiko dugu”. Zer EZ DU esan nahi?**
  - a) Berehala ikusiko dugu.
  - b) Laster ikusiko dugu.
  - c) Aurki ikusiko dugu.
  - d) Arestian ikusiko dugu.

**8. "Hegalik gabe hegatu nahi du horrek". Zer esan nahi du?**

- a) Nola edo hala beti bereari eusten diola.
- b) Hegaziak hegan egiteko hegalak hedatu behar dituela.
- c) Ikusten duen oro nahi duela.
- d) Inork lagundu gabe egin nahi duela dena.

**9. Zein da zuzena?**

- a) Iruñea, 2002ko ekainaren 28
- b) Iruñea, 2002ko ekainaren 28a
- c) Iruñea, 2002ko ekainak 28a
- d) Iruñean, 2002ko ekainak 28an

**10. "Hura bere kolkorako esan zuen". Alegia:**

- a) Hura bere alde esan zuen.
- b) Hura berekiko esan zuen.
- c) Hura bere probetxurako esan zuen.
- d) Hura ahopeka esan zuen.

**11. "Europako zergak kudeatzen dituen batzorde eragileak berdintasunaren aldeko ekimenak sustatuko ditu". Zer esan nahi du?**

- a) Berdintasunaren aldeko borroka, hemen ez ezik, Europan ere kudeatuko da.
- b) Europara lekutuko diren zergak berdintasunaren alde erabiliko dira.
- c) Europako batzorde batek zergak gainbegiratuko ditu eta berdintasunaren alde jokatuko du.
- d) Berdintasuna xede duten programak diruz lagunduko ditu Europako batzorde batek.

**12. Zein da "kalakaria"?**

- a) Hitzontzia
- b) Kakatia
- c) Kantari fina
- d) Kalekumea

**13. Zein da "arrangura" hitzaren sinonimoa?**

- a) Kezka
- b) Azkura
- c) Bekaitza
- d) Nekea

**14. Istripua izan nuenetik, ez dut autoa hartu; beraz, ...**

- a) gidatzea ere ahaztu zait.
- b) gidatzea ere ahaztu dut.
- c) gidatzeaz ere ahaztu naiz.
- d) gidatzen ere ahaztu zait.

**15. Zein da zuzena?**

- a) Hospitalara noa, lagun bati bisita egitera.
- b) Ospitalara noa, lagun bati bisita egitera.
- c) Hospitalera noa, lagun bati bisita egitera.
- d) Ospitalera noa, lagun bati bisita egitera.

**16. ... bidea hartu behar da zoriona ... bihur dadin?**

- a) Noiztiko      betirako
- b) Noizko        betirako
- c) Noizerako    etzi arteraino
- d) Norako        betiko

**17. Eguraldi hotza dugu gaur; ..., galtza motzetan dabil.**

- a) halere
- b) halatan
- c) halaber
- d) orobat

**18. Tristura arintzeko ez dago lagunartea ...**

- a) beste onik.
- b) bezalakorik.
- c) hainbeste onik.
- d) hain ona.

**19. Aritz ... hutsa da. Den-dena, nahi ez nuena ere, azaldu zion izebari.**

- a) kontakatilu
- b) kontu-kontari
- c) hitzeko
- d) koplari

**20. "Barrenak eduki behar dira hori bezalako jauregi bat erosteko". Hau da:**

- a) Eduki behar da jauregi hori zerekin bete.
- b) Edozein ez da jauregi hori erostera ausartzen.
- c) Bankuan diru asko eduki behar da jauregi hori erosi ahal izateko.
- d) Diru-mailegurik gabe ezin erosi hori bezalako jauregirik.

**21. "Maskuria lehertzekotan daukat". Hau da:**

- a) Buruan ez daukat beste ezertarako tokirik.
- b) Amaginarreba haserre dago nirekin.
- c) Poltsa leporaino beteta daramat.
- d) Txizagura daukat.



**22. Zein da zuzena?**

- a) laz goizeko lauretan joaten nintzen lanera, eta arratsaldeko seiretan bueltatu.
- b) laz goizeko lauetan joaten nintzen lanera, eta arratsaldeko seiretan bueltatu.
- c) laz goizeko lauretan joaten nintzen lanera, eta arratsaldeko seietan bueltatu.
- d) laz goizeko lauetan joaten nintzen lanera, eta arratsaldeko seietan bueltatu.

**23. Bederatziak dira, lagunok. Zer, ...**

- a) goaz?
- b) goazen ba?
- c) joanen gara?
- d) goazen?

**24. Ezagutu dudan hiririk alaienetako bat da, alaiena ez bada.**

- a) Munduan ez omen da hura bezain hiri alairik.
- b) Oso hiri alai da, haren pareko beste asko ezagutu ditudan arren.
- c) Ez izan zalantzarik! Ezagutzen dudan hiririk alaiena da.
- d) Ezagutu dudan hiririk alaiena da, naski.

**25. Zeinek EZ DU zerikusirik besteekin?**

- a) mainontzi
- b) negarti
- c) zinkurin
- d) malkartsu

**26. Zein da animaliak txikienetik handienera ordenatuta dauzkan zerrenda?**

- a) Mozoloa, azeria, moxala, liztorra
- b) Azeria, liztorra, moxala, mozoloa
- c) Liztorra, mozoloa, azeria, moxala
- d) Moxala, liztorra, mozoloa, azeria

**27. Zakurrak zaunka gehiago egin ... lapurrari, baina isildu zen.**

- a) ziezaioketen
- b) dakioke
- c) ziezaion
- d) ziezaiokeen

**28. Zein EZ DA zuzena?**

- a) Zurekin dantzatu nintzen; ez zara oroitzen?
- b) Deitu digu ezin duela etorri esateko; beraz, has gaitezen.
- c) Film txarra da, hobeki esanda, piperrik balio ez duena.
- d) Zuk agintzen badiguzu ere, ez dugu zertan egin.

**29. ... joan zen Ugandara, baina bi urte besterik ez ... pasatu.**

- a) Misiolari bezala        zituen
- b) Misiolari                zuen
- c) Misiolari                zituen
- d) Misiolaria                zen

**30. Hori gelakide guztiekin moldatzen da ongi; hau, ..., bakar batekin ere ez.**

- a) hala eta guztiz
- b) aldiz
- c) gutxienez
- d) berez

**31. Mozolo horiek mugitzerako bukatua da festa.**

- a) Mozolo horiek mugitu baino lehen bukatua izanen dugu festa.
- b) Mozolo horiek mugitu baino lehen jai daukagu.
- c) Festa ez da bukatuko harik eta mozolo horiek mugitu arte.
- d) Mozolo horiek mugitutakoan festa bukatzeaz zegoen.

**32. "Ez dugu astirik; beraz, ...".**

- a) zirt edo zart egin behar dugu
- b) tirri-tarra egin behar dugu
- c) plisti-plasta egin behar dugu
- d) zirti-zarta egin behar dugu

**33. "Zurrun-zurrun jokatzen du beti jende guztiarekin". Hau da:**

- a) Ez du inoiz poltsikoa astintzen.
- b) Gogor samar jarduten du jende guztiarekin.
- c) Azpijokoa ohiko da bere portaeran.
- d) Jendeari ihes egiten dio beti.

**34. "Aldapa erdian gelditu zen txirrindularia, arnasa hartu ezinik, goitik bota beharrean".**

- a) Ez zen hasi, bada, aldapa erditik, guri garrasika!
- b) Beherako bidea hartu behar zuen, itsu-itsu gora jo ordez.
- c) Gora jo izan balu, ez zitzaiokeen horrelakorik gertatuko.
- d) Oka eta guzti egin behar zuen, nekearen nekez.

**35. Nola irakurtzen da 1775/I/17?**

- a) Mila zazpirehun eta hirurogeita hamabostako urtarrilak hamazazpi
- b) Mila zazpirehun eta hirurogeita hamabostaren urtarrileko hamazazpi
- c) Mila zazpiehun eta hirurogeita hamabosteko urtarrilaren hamazazpia
- d) Mila zazpiehun eta hirurogeita hamabosteko urtarrileko hamazazpi

**36. Lanpostu bat eskuratzeko irrikan zaudelarik:**

- a) Emango bazidaten!
- b) Emango ahal didate!
- c) Mesedez, ematea!
- d) Eman ahalko didate!

**37. Zornea garbitu beharko duzu ... horretatik.**

- a) zauri
- b) zapata
- c) motor
- d) igerileku

**38. Epailleak zuek akusatuko ..., abokatuok zuek defendatuko ...**

- a) bazintuzte zintuzketegun.
- b) bazintuztete gintuzkezen.
- c) balizute genizuekeen.
- d) bazintuzte zintuzketegu.

**39. Zein da zuzena?**

- a) Ez zenituen ikusi? Klosko ondo-ondoan zeudeten-eta!
- b) Beñateri ez zaio esnea gustatzen.
- c) Hautagaiek baldintz guzti horiek bete behar dituzte.
- d) Hamarna minutu izango dituzte egindakoa adierazteko.

**40. Zein EZ DA zuzena?**

- a) Lopez arrandegia.
- b) Pentsa zer nahigabe eman didazun!
- c) Har ezazu burdina hori eta eraman hara!
- d) Eliza honetan ezkondu zen gure aita.

**41. Ikasturte hura ... izan zen, izugarri ongi pasatu genuen-eta!**

- a) galgarria
- b) gogoangarria
- c) gogaikarria
- d) gogoetagarria

**42. Heldu den asteburuan ... ez dugu eguzkia ikusiko, elurra ...**

- a) ere ez baino.
- b) ez ezik baizik ez.
- c) baina izan ezik.
- d) ere baizik.

- 43. "Lagun hori ez da batere aldatu!". Zein da erantzun egokia?**
- a) Badakizu: zaharrak berri.
  - b) Bai; horrek lehengo lepotik burua.
  - c) Aldatzea ere!
  - d) Zaharraren zaharrez.
- 44. "Ez duzu luzetsita egoteko motiborik, ama!". Zein da jarraipen egokia?**
- a) Azkenean, berandutxo bada ere, iritsi gara-eta etxera.
  - b) Altxa zaitetz ohetik, horrek ez dizu-eta batere onik egiten.
  - c) Ez harrotu hainbeste, zure seme-alabak ez dira-eta hain zintzoak.
  - d) Ez goaz-eta horren azkar.
- 45. "Zuzendariak kargu hartu zion idazkariari". Hau da:**
- a) Zuzendariak postutik kendu zuen idazkaria.
  - b) Zuzendariak haserre egin zion idazkariari.
  - c) Zuzendariak koipe eman zion idazkariari.
  - d) Zuzendariak kargu berria eman zion idazkariari.
- 46. Zein ordu dago ondo idatzita?**
- a) Zazpiretan ez zineten azaldu.
  - b) Zortzitan hots egin dizuegu.
  - c) Bosterdietarako bukatuko dugu.
  - d) Hiruretan ez deitu, mesedez, lo kuluxka eginen baitut.
- 47. "Gurasoei ez diezu galdetu behar ..."**
- a) Seme bereri galdetu behar diezu.
  - b) Semea berari galdetu behar diozu.
  - c) Semeari berari galdetu behar diozu.
  - d) Seme beraiei galdetu behar diezu.
- 48. Hori guztia egin behar dudala ... beldurra ematen dit.**
- a) pentsatzeak besterik ez
  - b) bakarrean pentsatzeak
  - c) hutsean pentsatzeak
  - d) pentsatze hutsak
- 49. "Hori lortzeak lan handia ekarri dit. Neke adina probetxu aterako ahal diot!". Zer esan nahi du?**
- a) Nekeak eta probetxuak paretsu doaz.
  - b) Lan horri ez diot probetxu adina nekerik ateratzen ahalko.
  - c) Hori lortzeko dezente nekatu banaiz ere, probetxu ederra aterako diot, seguru...
  - d) Hori lortzea oso nekagarria izan denez, probetxu asko atera nahi nioke; nekeak bezainbeste.

**50. Arnasbeheran biriketarik botatzen den airea:**

- a) Hatza
- b) Hutsa
- c) Hutsala
- d) Hatsa

**51. Maite ... lore sorta ederra emanen dizu.**

- a) dizunak
- b) zaituena
- c) duzuna
- d) zaituenak

**52. Aukera ezazu euskara batuaz zuzen idatzitako esaldia.**

- a) Nere ustez, eta inguruko beste hainbaten eritziz ere bai, alferrik da zai egotea.
- b) Nere ustetan, eta inguruko beste hainbaten iritziz ere bai, alferrik da zai egotea.
- c) Nire ustez, eta inguruko beste hainbaten iritziz ere bai, alferrik da zain egotea.
- d) Nire ustez, eta inguruko beste hainbaten eritziz ere bai, alferrik da zain egotea.

**53. Iruñeko erdigunean erosi dugu etxebizitza, ...**

- a) igogailua eta guzti.
- b) igogailu eta guzti.
- c) igogailua eta guztiz.
- d) igogailuarekin eta guzti.

**54. ... da, dudarik gabe, altzaririk aproposena gela horretarako.**

- a) Hango hau
- b) Horko hura
- c) Horrelako hori
- d) Honako hau

**55. ..., bihar greba egingen dugu.**

- a) Gertatutakoa gertatu
- b) Gertatutakoa gertatu ere
- c) Gertatzen dena gertatzen dela
- d) Gertatutakoa gertatzen dela

**56. "Batzarrean den-denak bere alde azaldu baziren ere, ..."**

- a) pozez zoratzen joan zen.
- b) kaskasoil joan zen.
- c) kopetilun joan zen.
- d) pozarren joan zen.

**57. Zeinetan EZ zenuke "eman" aditza erabiliko?**

- a) Nola izan hori presidente, edanari emana bada aspaldidanik?
- b) Gezurtzat eman zuen nik esandako guztia.
- c) Hogeit urte eman ditu preso Andaluziako kartzeletan.
- d) Franco hil zen urtean eman ziren gertaera horiek guztiak.

**58. "Hori da, agidanez, esan behar zidan guztia". Hau da:**

- a) Enegarrenez esan zidan hori guztia.
- b) Gezurra badirudi ere, besterik ez zidan esan behar.
- c) Hori besterik ez zidan esan behar, nonbait.
- d) Presaka esan zidan esan beharreko guztia.

**59. "Dirua erruz irabazi zuten zure lagun horiek". Alegia:**

- a) Bortxaz irabazi zuten zure lagunek diru hori.
- b) Ez zegokien dirutza irabazi zuten zure lagun horiek.
- c) Zure lagun horiek ez zuten gizalegez irabazi diru hori.
- d) Dirua barra-barra irabazi zuten zure lagun horiek.

**60. Hurrengo esaldietatik zeinetan dago HALA gaizki erabilia?**

- a) Aktore asko azaldu ziren; hala nola Imanol Arias, Penélope Cruz, Javier Bardem...
- b) Bai, nagusi. Hala-hala egingo dugu!
- c) Lurra kamionetatik atera behar dugu, hala nola zabaldu, ureztatu, ongarritu...
- d) Nola esan amak, hala errepikatu zuen semeak pare bat urte geroago.

**61. Ondoko zerrendetatik zein da tokiz kanpoko hitz bat duena?**

- a) Irmo, sendo, azkar
- b) Emagaldu, maritzar, urdanga
- c) Txima, adats, aldaka
- d) Iseka, trufa, irri

**62. Zein EZ DA zuzena?**

- a) Herri gusti horietan ibili gara inolako arazorik gabe.
- b) Ez dizu kasurik egingo, berera baitoa.
- c) Guk, behinik behin, ez dugu deus aditu.
- d) Ez ezan horrelakorik egin, neska!

**63. "Egitasmo horrek ez dit kilikarik egiten". Hau da:**

- a) Egitasmo horrek ez dit problemarik ekartzen.
- b) Egitasmo horrek ez nau gogobetetzen.
- c) Egitasmo horrek ez dit enbarazurik egiten.
- d) Egitasmo horrek ez nau ezertara ere behartzen.

- 64. "Enpresako gerentea naizen aldetik ..."** Hurrengoetatik zein EZ DA jarraipen zuzena?
- a) ez dut, inondik ez, proposatutakoa onartuko.
  - b) ez dut, inondik ere, proposatutakoa onartuko.
  - c) ez dut, inolaz ere, proposatutakoa onartuko.
  - d) ez dut, inondik inora, proposatutakoa onartuko.
- 65. Hurrengo esaldietatik zein da zuzena?**
- a) Handi samarra bada ere, ongi ematen dizu soineko horrek.
  - b) Julenen galtzak pixka bat itsusiak iruditzen zaizkit.
  - c) Neska hori eder askoa da, baina pixka bat zakarra.
  - d) Nekatutak daude eta ez dute lanik egin nahi.
- 66. Zer esan dute?**
- a) Gu hara joatea.
  - b) Gu hara joan gintezen.
  - c) Gu hara joateko.
  - d) Gu hara joatekoa.
- 67. "Oso zaildua itzuli zaigu semea Ingalaterratik". Hau da:**
- a) Ez dakigu nola tratatu. Zaila da, benetan, harekin hitz egitea.
  - b) Semea gizendu zaigu Ingalaterran.
  - c) Hezur hutsetan etorri zaigu gizajoa Ingalaterratik.
  - d) Ingalaterran pasatutako egonaldiak gogortu du gure semea.
- 68. Zein hitzek EZ DU zerikusirik besteekin?**
- a) Mokofin
  - b) Ahozuri
  - c) Gozozale
  - d) Ahobero
- 69. "Izugarri setatia da". Hurrengoetatik zeinek EZ DU horren esanahia biltzen?**
- a) Arras kaskagogorra da.
  - b) Biziki tematia da.
  - c) Ikaragarri burukoia da.
  - d) Arrunt burutsua da.

**70. "Laser sentsoreetan oinarritutako sistemak oin berezi baterako zapata egokia diseinatzeko ez ezik, neurrira eginiko oinetakoen merkatua hedatzeko ere balioko du". Bestela esanda:**

- a) Laser sentsoreetan oinarritutako sistemak soilik zapata egokia diseinatzeko balioko du, baina ez neurrira eginiko oinetakoen merkatua hedatzeko.
- b) Laser sentsoreetan oinarritutako sistemak oin berezi baterako zapata egokia diseinatzeko eta baita neurrira eginiko oinetakoen merkatua hedatzeko ere balioko du.
- c) Laser sentsoreetan oinarritutako sistemak ez du balioko neurrira eginiko oinetakoen merkatua zabaltzeko, baina bai oin berezi baterako zapata egokia diseinatzeko.
- d) Laser sentsoreetan oinarritzen den sistemak oin berezi baterako zapata egokia diseinatzeko ezean, neurrira egindako oinetakoen merkatua zabaltzeko balioko du.



## II. ENTZUNAREN ULERMENA

*Entzungaia liburuari erantsirik datorren CDan dago eta haren transkripzioa liburuaren bukaerako eranskinean.*

### 71. Zer da AIDAS elkartea? Zein da bere helburua?

- a) Haur hiperaktiboen guraso eta irakasleek osatutako elkartea da. Helburua bizi duten estresa arintzea da.
- b) Haur hiperaktiboen gurasoek osatutako elkartea da, eta haur horiek bizi duten estresak helduengan duen eragina aztertzea eta laguntza eskaintzea du helburu.
- c) Haur hiperaktiboen gurasoek osatzen dute elkarte hau, eta helburua argia da: guraso eta irakasleek bizi duten estres egoera horretan laguntza eskaintzea.

### 72. Hiperaktibitatearen ezaugarriak behinena ...

- a) adeitasun gabezia da.
- b) aditasun eza da.
- c) oldarkortasun falta da.

### 73. TDAH sindromeari buruzko azterketek, hasieran bestelakoa esaten bazuten ere, honakoa argitu dute:

- a) Lehen mutilek bakarrik izaten zuten sindromea dela, nahiz eta denborarekin nesken artean ere azalduz joan ziren sintoma batzuk.
- b) Bai neskek bai mutilek izan dezaketen sindromea dela, nahiz ez den neskengan hainbeste sumatzen, arreta eskasia hori ez baita horren nabarmena.
- c) Biek ala biek izan dezaketen sindromea dela, neskak hain mugituak ez diren arren.

### 74. Nolakoa zen Martin Aizpururen semea?

- a) Oso mugitua, hitzontzia eta arretari eusteko ezgauza.
- b) Batzuetan kaskagogorra, mugitua eta arazo askoren sortzaile.
- c) Alferra, mugitua eta oldarkorra.

### 75. Eta orain urtebete telebistaren bitartez izan zuten sindromearen eta elkartearen berri.

- a) Emaztea ETBko programa bat ikusten ari zela, konturatu zen bertan aipatutako sintomak semeak zituenekin bat zetozela.
- b) Emazteak ETBko programa batean entzun zuen lehendabizikoz hiperaktibitate hitza, eta semearen jokabidearekin loturaren bat izan ote zezakeen jakiteko asmoz, deitza erabaki zuen.
- c) Emazteak ETBko programa batean izan zuen bere semearen kasuaren oso antzeko baten berri, eta nazka-nazka eginda zegoenez, segituan deitu zuen laguntza eske.

**76. Eta, azkenean, elkarteak Iruñean egin zuen bilera batera joan ziren.**

- a) Eta bertatik oso pozik atera ziren. Izan ere, beraien kasua gainontzeko guztiak baino askoz arinagoa zela ikusi zuten.
- b) Eta bertatik pozaren pozez atera ziren, beraien semearena huskeria bat zela ikusi zuten-eta.
- c) Eta bertan esan zirenek oso pozik utzi zituzten. Kasu batzuekin konparatuta arinagoa baitzen beraien semearena.

**77. Gurasoen lana funtsezkoa omen da gaixotasun honetan.**

- a) Bai. Gurasoak baitira haurra frustrazio egoeratik atera dezaketen bakarrak.
- b) Izan ere, gaixotasunak lotura hertsia du gurasoek haurrari ezartzen dizkioten mugekin.
- c) Guraso askok beren haurrak motzean lotu nahi izaten dituzte. Horrek frustrazioa dakarkie haurrei eta, ondorioz, hiperaktibitatea.

**78. Mikel Olano psikologoaren esanetan, TDAH kasu baten aurrean gaudela uste dugunean ...**

- a) Pediatra edo medikuarengana jotzea da eman beharreko lehenengo pausoa. Horrek psikiatrarekin harremanetan jarriko gaitu, eta azken honek diagnostiko egokia egingo du.
- b) Lehenik eta behin, sindromean aditua den espezialista batengana jo behar dugu, haurrari egin beharreko frogak guztiak egin diezazkion. Behin diagnostiko egokia eginda, jarraibideak emango dizkigu.
- c) Lehenik eta behin, diagnostikoa egin behar da. Horretarako medikuarengana jo beharko dugu, haurrari egin beharreko frogak egin diezazkion. Hurrengo urratsa psikologo edo pedagogoarengana jotzea da.

**79. Tratamenduaren alor bat psikiatrikoa da. Bertan botikak, anfetaminak-eta erabiltzen dira.**

- a) Haurrari baretzen eta arretari eusten laguntzen dioten arren, sendakuntzan eraginkorrak izango dira baldin eta beste mota bateko neurriekin batera erabiltzen badira.
- b) Eta emaitza onak izaten badituzte ere, beste arazo askoren sortzaile ere badira, gehiegizko asaldura edo kitzikadura, esaterako.
- c) Izan ere, ezaguna da anfetaminek arretari eusten laguntzeko duten eragina. Eta Begoña Garmendia psikiatrak, oso gustukoak ez baditu ere, ezinbestekotzat jotzen ditu sindrome honen tratamenduan.

**80. Bigarren alorra psikologikoa litzateke. Psikologoaren lana ...**

- a) gurasoen, irakasleen eta psikiatraren gidari izatea da.
- b) haurrari bere burua kontrolatzen irakastea da.
- c) haurrari emozioak gordetzen irakastea da.

### III. IRAKURRIAREN ULERMENA (I) GALDERAK

- 81. Dolly ardiaren berriak mundu osoa astindu zuen eta agintari politikoak klonazioaren inguruko saiakuntzak atzeratu beharra aldarrikatzera eraman zituen. Erresuma Batuko gobernuaren erantzuna, bestalde, hauxe izan zen:**
- 1990ean onartutako lege baten arabera, giza klonazioa debekatuta dagoela bere lurralde osoan, nahiz eta giza fetuen lehenengo bi asteetan frogak egin daitezkeen.
  - 1990ean onartutako lege baten arabera, bere lurralde osoan giza klonazioa debekatuta dagoela, nahiz eta klonazio terapeutiko mota batzuk onartzen dituen.
  - 1990ean onartutako lege baten arabera, guztiz debekatuta dagoela fetuaren lehenengo 14 egunetan egin ohi diren frogez gainera beste ezer egitea.
  - Human Fertilization and Embryology legearen arabera, giza klonazioa debekaturik dagoela. Eta, beraz, klonazio terapeutikoaren inguruko ikerketarako baino ezingo dela erabili giza fetua bere lehenengo bi asteetan.
- 82. Klonazioaren gaiak auzi politiko gogorra eragin du Britainia Handian. Gauzak horrela, gobernuak ez ditu klonazio-teknikak legeztatu nahi.**
- Hasieran klonazio-teknikak medikuntzari bultzada ekonomikoa emango ziotela pentsatu zen arren.
  - Izan ere, "behi eroen" polemika piztu zenean, aditu britainiarrek tekniketan jarria zuten konfiantza galdu zuten.
  - Genetikoki aldatutako landareek osasunari eta ingurumenari ekar diezazkieketen kalteen ezjakintasunak, besteak beste, klonazioaren kontrako jarrera hartzera eraman du gobernuak.
  - Dolly sortzeko erabilitako klonazio-teknikak diru mordoa ekarriko zuten britainiar ekonomiarentzat, krisian egonda burua altxatzeko aukera emango ziotelako.
- 83. Klonazioa, halere, baliagarria izan daiteke medikuntzan.**
- Besteak beste, mitokondrietako ADNak kaltetua daukaten emakume haurdunak sendatzeko, betiere gaitz hori seme-alabei transmititzeko arriskua dagoenean.
  - Injertoetarako azala sortzeko, adibidez. Gorputz-atalen bateko azala baliatu beharrean, berria sortzen baita klonazioaren bitartez.
  - Hamaika dira klonazio terapeutikoak izan ditzakeen erabilera onuragarriak, nahiz eta gutxi batzuk baino ez dituen onartzen komunitate zientifikoak.
  - Hezurretako edo gibeletako zelula kaltetuak ordeztzeko oso baliagarria dela ederki asko frogatu bada ere, esperimentazio mailan baizik ezin da teknika hau erabili.
- 84. Kontuak kontu, hauek dira klonazioaren kontrako argudioetako batzuk:**
- Klonazioa diktadoreek beren buruaren erreplikak egiteko erabiliko duten tresna beldurgarria izango da.
  - Bi klonazioen arteko ezberdintasuna funtsik gabekoa da. Izan ere, bataren legeztatzeak bestearena ekarriko luke berehalako batean.
  - Gizakia bere baitan helburu izan beharrean, beste batzuen interesen menpe egongo den tresna bihurtuko dugu.
  - Klonazio "terapeutikoa" eta "ugalketarako" txanpon bereko bi aldeak dira. Argi dago lehenengoak bigarrenak adina arrisku dituela.

**85. Badira klonazioaren aukera medikoak eta, beraz, onuragarriak aprobetxatu behar direla uste dutenak ere. Ian Wilmut dugu horietako bat.**

- a) Klonazioak eskaintzen dizkigun aukera mediko onuragarri ugari horiek berandu baino lehen erabiltzen hastearen alde-aldekoa da.
- b) Klonazioaren arriskuak zein diren oso argi badugu ere, abantailak askoz gehiago eta nabarmenagoak direla aldarrikatzen aritu da azken bi urte eta erdi honetan.
- c) Arestian aipatutako bi klonazioak ezin dira zaku berean sartu, eta, beste askok bezala, berak ere arbuiatzen du giza klonazioa.
- d) Bere ustez, kontaezinak dira klonazioak ematen dizkigun aukera terapeutikoak; Parkinson gaitzaren sendabidea aurkitzea, esaterako.

**86. Wilmutek, halere, uste du gizakien klonazioak familien baitan identitate eta harreman arazoek gai korapilatsua mahairatu duela:**

- a) Haur klonatuak jaiotze gero, eta gurasoen esperantzei erantzun ezean, litekeena da hauei sekulako frustrazioa eragitea eta, ondorioz, haurra baztertzea sentitzea.
- b) Klonazio-tekniken bitartez ez dago nortasuna aurrez diseinatzerik, geneak ez baitira berak mugatzen duten faktore bakarrak. Hori dela eta, guraso askok zapuztuta ikus ditzakete jarritako esperantzak.
- c) Klonazio-teknikak gurasoen berdina-jaiotzea lortuko ez balu, arazoak sor litezke, afektibitate arazoak gehienbat, familiarren baitan.
- d) Klonazioaren bitartez erreplika genetikoak lortzen ditugu. Beraz, ondare genetikoak da klonatzen dena; nortasuna, sekula ez. Horrek frustrazioa ekar diezaiokete nortasun ezaugarri zehatz batzuen zain dagoenari.

**87. Klonazio terapeutikoa ikertzeko baimena lortu nahian dabiltzanek eragozpen handiak izaten dituzte; bereziki, abortuaren kontrako taldeen eskutik.**

- a) Halaxe gertatu zen Clinton presidentearen gobernuak klonazio terapeutikoa legeztatzea helburu zuen lege-proiektua aurkeztu zuenean. Hainbesteko indarra jarri zuten talde horiek proiektua bertan behera geratzeko, non Kongresuak legea eztabaidatzeari uko egin zion.
- b) Clintonen gobernuak klonazio terapeutikoa legeztatzea eta ugalketarako debekatzea helburu zuen proiektua aurkeztu zuenean, abortuaren kontrako taldeen presioek eraginda, enbrioien inguruko ikerketak finantzatzeko diru federala debekatu zuen Kongresuak.
- c) Clintonen gobernuak klonazioaren inguruko lege-proiektua aurkeztu zuenean, presioak zirela-eta, gauza bat baino ez zuen lortu: in vitro ernalketarako zelulak erabiltzeko aukera ikerketa burutu ahal izateko.
- d) Clintonen gobernuak klonazioaren inguruan aurkeztutako lege-proiektua zapuzteko eginahalak eta bi egin zituzten abortuaren kontrako taldeek. Eta hasiera batean Kongresuak proiektuari babes ekonomikorik ez ematea lortu bazuten ere, ez zuten erdietsi sektore pribatuak eskaintako laguntza ezerezean geratzea.

**88. Klonazioaren auzian Europako agintarien ikuspegia Estatu Batuetako agintarienarekin alderatuta ...**

- a) Ez da batere pragmatikoa, sinetsita baitaude klonazioak "gizakiaren duintasuna" kolokan jarriko duela. Gauzak horrela, klonazioarekin zerikusia duten ikerketa guztiak geldirik daude.
- b) Ez da hain pragmatikoa. Bizitza sorkuntzaren unean bertan hasten delako usteak itsututa, klonazioaren inguruko saiakuntzak oztopatzen dituzte ia Europa osoan.
- c) Estatu Batuetan ez bezalako ikuspegi praktikoa dute, arriskuak ondo aztertu artean, klonazioaren inguruko saiakuntzarik ez burutzea hobesten baitute.
- d) Ez da hain pragmatikoa. Izan ere, gizartean errotuta dauden hainbat ustek eraginda, debekatuta geratu dira ia Europa osoan giza klonazioaren inguruko saiakuntzak.

**89. Gobernu britainiarrak orain arte izan duen jarrera pragmatiko hori berriki aldatu eta ikuspegi etikoa ere kontuan izango duela baieztatu du.**

- a) Jarrera aldaketa hori gogo onez hartu zuten talde erlijiosoen, haien ustetan ezin baita ahaztu klonazioak hondamendia ekarriko diola gizakiari.
- b) Klonazioa merkataritzaren aldetik baloratzen dutenek ere ez dute begi onez ikusten erabaki hori, klonazioaren alorra gorantz doan honetan, eta lehiakortasunak eraginda, Britainia Handiko zientziak bertan duen goreneko tokia gal dezake-eta.
- c) Klonazioaren alorreko ikertzaileek arriskutsua deritzote erabaki horri, kanpora joan beste irtenbiderik ez baitute ikusiko lana edukiko badute.
- d) Robert Winston irakasleak ez zuen ongi hartu gobernuaren erabakia, medikuntzan hamar urtetako lanaren emaitza den aurrerapen garrantzitsu hori galbidean jar lezakeelako.

**90. Arazoak arazo, batzuk ziur daude gobernu britainiarrak azkenean horrelako ikerketarako baimena emango duela.**

- a) Izan ere, ez-morala litzateke teknika horiei bide ez ematea, arriskuak abantailak baino gutxiago direla nahikoa frogatu denean.
- b) Ikuspegi moralala tarteko, endekapenezko gaixotasunak sendatzea helburu duten teknika horiek ez baliatzea ez litzateke-eta zilegi izango.
- c) Eta ugalketa teknologiarik buruzko ikerketen aldeko erakunde bateko kide den Juliet Tizzard-ek dioen bezala, ez-morala litzateke teknika berri horien onurez esaten den guztiari bizkar eman, eta endekapenezko gaixotasunen batek jota dagoenari osatzeko dituen aukera apurrei trabak jartzea.
- d) Progress Educational Trust elkarteak kide batek ez-moraltzat jotzen du teknika horiei buruzko ikerketei oztopoak jartzea, egozten dizkieten onura guztien erdiek ere nahikoa justifikatuko bailukete ikerketekin segitzea.

### III. IRAKURRIAREN ULERMENA (II) TESTUA

#### GIZA KLONAZIOA EZTABAIDAGAI

UNESCO ALBISTARIA, 2000ko urtarrila, otsaila, apirila (egokitua)

1997ko otsailean, Ian Wilmut ikertzaile britainiarrak eta bere lankideek ardi bat klonatzea lortu zutela jakinarazi zuten. Dolly zen, hain zuzen, klonatutako ardia. Mundua harri eta zur geratu zen berri hura entzundakoan, giza klonazioari bide emango zion beldurrez. Izan ere, mundu osoko agintari politikoek eman zioten erantzuna Dolly-ren klonazioaren berriari, eta denak bat etorri ziren honetan: klonazioaren inguruko saiakuntzak atzeratu egin behar zirela mundu osoan. Erresuma Batuko gobernuak erantzun zuen, 1990ean onartutako lege baten arabera (Human Fertilization and Embryology), giza klonazioa debekatuta zegoela bere lurralde osoan. Aipatutako legean jasotzen denez, giza fetuetan lehenengo 14 egunetan baino ezin izango dira egin azterketak. Lege horrek, beraz, "klonazio terapeutikoari" (klonazioa organoak eta ehunak ordeztu edo sendatzeko erabiltzea) ireki zizkion ateak, neurri batean.

1999ko ekainean, *Human Fertilization and Embryology Authority* erakundeak legea aldatzeko proposamena egin zuen klonazio terapeutikoaren inguruko ikerketak legezkoak izan zitezkeen. Baina Erresuma Batuko gobernuak ez zuen proposamena onartu; denbora behar zuela erantzun zuen, gai horren ondorio etikoak sakon aztertu nahi zituela-eta.

Klonazioaren gaiak auzi politiko gogorra eragin du Erresuma Batuan. Ian Wilmutek eta bere lankideek erabilitako klonazio-teknika aurrerapen zientifiko garrantzitsua zela pentsatu zen hasieran, eta medikuntzan ustez izango dituen erabilera ugariak bultzada ederra emango ziotela Britainia Handiko ekonomiari (batik bat patenteak mundu osoko konpainiei saltzearen ondorioz). Baina "behi eroen" gaixotasunak kolokan utzi zuen jendeak aditu britainiarrengan jarri zuen konfiantza. Eta kezka hori areagotu egin da genetikoki aldatutako landareek sorraraz ditzaketan arriskuekin, ez baitago argi nolako kalteak eragin ditzaketan giza osasunean eta ingurumenean. Gauzak horrela, Britainia Handiko gobernuak ez du teknologia "iraultzaile" eta eztabaidagarri hori zilegiztatzeko asmorik, ez baitu bere izen ona berriro kolokan geratzerik nahi.

#### Klonazioa behar bezala erabiltzea

La inor ez dago gizakia neurri gabe klonatzearen alde. Klonazio terapeutikoak medikuntzan izan ditzakeen erabilerak, horixe da auziaren iltzea. Klonazioa baliaigarria izan daiteke, adibidez, mitokondrietako (zelulari indarra ematen dion material genetikoak). ADNa kaltetua daukaten emakumeak sendatzeko, betiere gaitz hori seme-alabei transmititzeko arriskua egonez gero, jakina. Edo, bestela, injertoetarako azala sortzeko, gaur egun gaixoen gorputz-atalen batetik hartzen baitute. Klonazioa baliaigarria ere izan daiteke hezurretako edo gibeletako zelula txarrak ordeztzeko.

"Klon" hitzak izugarritzko arbuioa eragiten dio askori, irudi jakin bat ekartzen baitie gogora: bere buruaren milaka erreplika izan nahi dituen diktadore edo izarrarena, alegia. Klonazioaren kontrakoen ustez, teknika horren bidez azken muturrera eramango dugu gi-

zakiaren instrumentalizazioa, gizaki batzuk beste batzuen interesetarako erabiliko baititugu, lehenengoan izatea ezertarako ere errespetatu gabe. Bestalde, "ugalketarako" klonazioaren eta klonazio "terapeutikoaren" arteko bereizketa hori kontu dialektiko hutsa iruditzen zaie, bigarrena legezkatuz gero, lehenengoari ere emango baitzaio bidea. Klonazioaren aukera medikoak erabat aprobeztatu behar direla uste dutenek, ordea, funtsezko deritzote aipatutako bereizketari. Horixe pentsatzen du, adibidez, Ian Wilmut-ek. Berak azken bi urte eta erdi honetan etengabe aldarrikatu ditu klonazioak eskaintzen dituen aukera apartak, eta arriskuak ere ez ditu inoiz ezkutatu. Wilmut-ek alde on ugari ikusten dizkie klonazio-teknikei, baina behar bezala erabili behar direla ere esaten du: "Ezin konta ahaleko aukerak izango genituzke ugalduek ezin diren zelula kaltetuek eragindako gaixotasunak sendatzeko. Adibidez: *Parkinson gaitza*".

Wilmut *Geron Bio-Med* enpresako zuzendari zientifikoa da egun. *Geron Bio-Med* 1999aren hasieran sortu zuten *Roslin Institutek* eta *Geron* izeneko bioteknologia-enpresa estatubatuarrek, alor horretako aurkikuntzak garatzeko asmoz.

Hala ere, Ian Wilmuten eta beste hainbaten ustez, ez dago ukatzerik gizakien klonazioak identitate eta harreman arazoek gai korapilatsua azalarazi duela, batik bat familien baitan. "Imajinatu zer gertatuko litzatekeen gure etxean haur klonatuak jaiotuz gero. Pentsatu, adibidez, nolako arazoak izango lituzketen gurasoen itxaropenei behar bezala erantzun ezean. Eta ez da zaila hori gertatzea, nortasuna ez baita izaten ondare genetikoaren emaitza hutsa". Baina, arazoak arazo, klonazioaren inguruko eztabaidaren urrats guztietan parte hartzeko irrikan dagoela argi utzi du Wilmut-ek.

Klonazio terapeutikoa ikertzeko baimena lortu nahian dabilzanek eragozpen handiak izaten dituzte. Ildo horretan, abortuaren kontra daudenen presioak aipatu behar dira bereziki, oso gogor egiten baitiote kontra klonazio-mota orori. Halaxe gertatu zen, esaterako, Clinton presidentearen gobernuak klonazioaren inguruko lege-proiektua aurkeztu zuenean. Abortuaren kontrako taldeek eginahalak egin zituzten bertan behera gararazteko. Aipatutako proiektuak bi helburu zituen: ugalketarako klonazioa debekatzea eta klonazio terapeutikoa legeztatzea. 1999aren hasieran, Osasunaren Institutu Nazionalak jakinarazi zuen, Kongresuak enbrioien inguruko ikerketak finantzatzeko diru federala erabiltzea debekatzen zuen arren, zelula-amei buruzko lanei laguntza emateko asmoa zuela. Eta, horretarako, sektore pribatuak utzitako zelulez baliatuko zirela, *in vitro* ernalketan erabili gabe geratutako zelulez, alegia.

Kongresua klonazioaren gaiari irtenbideren bat eman nahian ari da egun.

Klonazioari buruzko legedia dela-eta, European nagusitu den ikuspegia eta klonazioaren kontrako talde estatubatuarren ikuspegia oso antzekoak dira benetan. Talde horiek klonazioak "gizakiaren duintasuna" kolokan jarriko duelakoan daude. Ildo horretan, aipa dezagun gizartean biziki errotuta dagoen beste uste bat: sorkuntzaren unean bertan hasten dela bizia. Izan ere, uste horrek eraginda, Europako ia estatu guztietan debekatuta geratu da bai giza klonazioaren inguruko saiakuntzak egitea, bai enbrioiei buruzko ikerlanak burutzea. Baina Britainia Handiko eta Estatu Batuetako agintarien ikuspegia pragmatikoagoa izan da orain arte: giza klonazioak ustez eragin ditzakeen kalteak arrisku medikoak baino ez direla pentsatzen dute. Esate baterako, epe luzera klonazioak eragin ditzakeen balizko konplikazioak ez ezagutzea.

## Morala galbidean

Britainia Handiko gobernuak duela gutxi egindako adierazpen batzuei erreparatu zergo, beste jarrera bat hartu duela ematen du, eta aurrerantzean ikuspegi etikoa ere kontuan hartuko duela. Jarrera aldaketa hori gogo onez hartu zuten *Christian Action Research and Education*-ek eta gainerako presio-talde erlijiosoek. Ildo horretan, azpimarratzekoa da *Christian Action Research and Education* taldeko zuzendariak, Charles Colchester-ek, gobernuari egindako eskaria: giza klonaziorako teknikei behatzeko sortu duen erakundeak inoiz ez dezala ahaztu horrelako ikerketek agian "morala galbidean" jarriko dutela.

Klonazioaren alorrean ari ziren ikertzaileek gogor kritikatu zuten gobernuaren jarrera aldaketa hori. Robert Winston Londreseko *Royal Postgraduate School*-eko irakaslea da, eta bertan esterilitatearen inguruko gaiak irakasten ditu. Winston-ek ere ez zuen ongi hartu gobernuaren erabakia, arriskutsua iruditu baitzitzaion. Haren ustetan, Gobernuak bere erabakiari eutsiz gero, Erresuma Batuko "bururik argienetako" asko kanpora joango ziren. Haren hitzak erabiliz: "Klonazioaren inguruko eztabaidan nahasmendu handia eragin du gobernuak, eta horrela jarraituz gero, medikuntzak azken hamarkada honetan emandako aurrerapausorik garrantzitsuenetakoa izan den horri trabak baino ez dizkio jarriko".

Badira, bestalde, klonazioari beste helburu bat eman nahi diotenak ere: merkatarizarako produktuak eskuratzea. Talde horiei ere ez zitzaion batere gustatu gobernuaren erabakia. "Britainia Handiko zientzia punta-puntakoa da klonazioaren alorrean, eta ez da ahaztu behar alor hori gorantz doala", dio John Simek, Bioindustry Association-eko (bioteknologiaren alorreko langileen elkarte) buruak. "Lehia bizia dago klonazioaren alorrean, eta asko dago jokoan, bai gaixoentzat, bai ekonomiarentzat", dio John Simek.

Batzuk baikorrak dira klonazioari dagokionez, ziur baitaude, azkenean, gobernuak horrelako ikerkuntzak egiteko baimena emango duela. "Endekapenezko gaixotasunak sendatzea helburu duten teknika berri horien hobariez esaten den guztiaren erdia egia bada, ez-morala izango litzateke ikerkuntzei aurrera egiten ez uztea", adierazi du Juliet Tizzard-ek, *Progress Educational Trust* elkarteko kideak. Izan ere, *Progress Educational Trust* ugalketa teknologiari buruzko ikerketen aldeko erakundea dugu.

Baina hortxe segitzen du eztabaidak. Gizaki helduen kopia berdin-berdinak sortzeko aukera horrek lilura eragiten die batzuei, baina erabateko arbuioa beste batzuei. Klonazioaren inguruko ikerketei esker medikuntzan ustez lor daitezkeen aurrerapausoak alde batera utzita, argi dago teknika horien aldeko asko kostako zaiela aurrera jarraitzeko baimenak lortzea.



## I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. a	16. d	31. a	46. d	61. c
2. a	17. a	32. a	47. c	62. a
3. d	18. b	33. b	48. d	63. b
4. b	19. a	34. d	49. d	64. a
5. c	20. b	35. c	50. d	65. a
6. c	21. d	36. b	51. d	66. c
7. d	22. c	37. a	52. c	67. d
8. d	23. c	38. d	53. b	68. d
9. b	24. d	39. d	54. d	69. d
10. b	25. d	40. b	55. c	70. b
11. d	26. c	41. b	56. c	
12. a	27. d	42. d	57. d	
13. a	28. b	43. b	58. c	
14. d	29. b	44. a	59. d	
15. d	30. b	45. b	60. c	

## II. ENTZUNAREN ULERMENA

71. c	76. c
72. b	77. b
73. c	78. c
74. a	79. a
75. a	80. b

## III. IRAKURRIAREN ULERMENA

81. a	86. b
82. c	87. b
83. b	88. d
84. c	89. b
85. d	90. d



# EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

## PROBA IDATZIA

### Ohar garrantzitsuak

- Azterketa honek 10 orri ditu, 2 multzotan banaturik.
- Ez jarri izenik edo sinadurarik azterketa orrietan.
- Idazteko boligrafo beltza edo urdin iluna erabili.

<i>Proba idatzia</i>		<i>Puntu Kopurua</i>	
		<i>Gehienez</i>	<i>Gutxienez</i>
Idazlan laburra	100 hitz, gutxienez, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe. 2 GAI aukeran.	10	5
Idazlan luzea	300 hitz, gutxienez. 3 GAI aukeran.	30	15
Azterketa osoa gainditzeko, GUTXIENEZ, 22 puntu atera behar dira.			

## IDAZLAN LABURRA

- \* Proposatzen diren bi gaien artean **bat** aukeratu behar duzu.
  - \* Idazlana, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe, **gutxienez, 100** hitzekoa izanen da (15-20 lerro).
  - \* Proba honetan gauzak zehatz adierazteko gaitasuna baloratu nahi dugu. Hortaz, estu-estu lotu "Gaia", "Egitekoa" eta, batez ere, "Nahitaez eman behar duzun informazioa" izeneko atalei. **Labur eta argi** adierazi azaldu beharrekoa, alferrik luzatu gabe.
- Ez ahaztu atal honetan zuzentasun handia eskatuko zaizula.

### 1. idazlana

---

#### Gaia:

Herriko Euskararen Egunean parte hartzeko gonbita.



#### Egitekoa:

Herriko Euskararen Egunean antolatzaile zaren horrek, batzordearen izenean, aurtengo Nafarroako Aizkolari Txapelketako txapeldunari idatzi behar diozu zuen Euskararen Egunean parte hartzera gonbidatzeko. Egun horretan erakustaldi bat egitea proposatu behar diozu.

#### Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ▶ Kirolariaren merituak eta euskararekin izan duen harremana aipatu.
- ▶ Zuen egitasmoaren berri zehatza eman.

### 2. idazlana

---

#### Gaia:

Etxeko kalefakzioan aurrezteko aholkuak ematea.

#### Egitekoa:

Zuen atariko arduraduna zaren horrek, atariko bizilagunei idazki bat bidali behar diezu teknikariak esandakoa laburbilduz. Orain arteko gastu itzelak direla-eta, kontsumoa murrizteko aholkuak emanen dizkiezu.



#### Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ▶ Aipatu zein diren gehiegizko kontsumoak ekar ditzakeen kalteak.
- ▶ Eman itzazu zenbait aholku gastua gutxitzeko.
- ▶ Kontuan izan atariko bizilagun gehienak ez dituzula ezagutzen.

## IDAZLAN LUZEA

### OHARRAK:

- \* Proposatzen diren hiru gaien artean bat aukeratu behar duzu.
- \* Idazlanak **300 hitz** eduki behar ditu, **gutxienez**.
- \* Idazlana egiteko orri hauetako informazioa erabiltzea aukerakoa da. Beraz, ez zaude erabiltzera beharturik.
- \* Proba honetan gaia garatzeko duzun gaitasuna erakutsi behar duzu.
- \* Gogora ezazu ezin duzula zure benetako izena erabili sinatzeko.
- \* Proba baloratzeko lau alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, testuaren antolaketa (koherentzia eta kohesioa), egokitasuna eta aberastasuna.

## 1. GAIA

### JAZARPEN MORALA EDO "MOBBING" DELAKOA

*Administrazio publikoak dira, oro har, arrisku handiena duten lantokiak: Hezkuntza, Osasuna... Baina beste arlo batzuetan ere nozitzen dute arazo hau: ostalaritza eta turismoa, komunikabideak...*

"Espainian beren buruaz beste egiten dutenen % 20k pairatzen dute (edo noizbait nozitu dute) jazarpen morala".



"Langileen % 11,44 ari dira gaitz honen kalteak nozitzen: depresioak, antsietatea...".

#### Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ "Denak balio du" politika enpresa guztietara ari da hedatzen. Funtsean, langile bat bere lanpostutik kanporatzeko taktika da mobbing-a.
- ▶ Jazarpen sexuala eta ikasleen arteko "bullyng-a" ere ohikoak dira.
- ▶ Goitik beherakoa (nagusiak menpekoekiko), edo maila berekoa (langileen artean, ikasleen artean) izan daiteke.

## 2. GAIA

### GAZTEAK ETA ALKOHOLA

"Egungo gazteak 15-18 urterekin hasten dira alkohola kontsumitzen. Beti lagunekin edaten dute, kalean eta ordu jakinetan, aisialdian hain zuzen ere; eta betiere, beren erosteko ahalmenaren arabera (botilatzarrek, garagardoak, kalimotxoak...)"

"Udalek eta gainerako erakundeek gazteentzat atseginak diren alternatibak eskaini behar dituzte: kirolerako guneak, kultur eta aisialdi ekintzak, etab, asteburuetan ongi pasatzeko aukera bakarria mozkortzea izan ez dadin".



"Zaratagatik eta zikinkeriagatik auzoko bizilagunek egindako protesten ondorioz, agintariak botilatzarren erritua debekatzeko neurriak hartzen hasi dira".

#### Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Gurasoek uste izaten dute euren seme-alabak direla edaten ez duten bakarrak.
- ▶ Noren erantzukizuna da 14-15 urteko gaztetxo bat kalean ibiltzea goizaldeko ordu txikietan?
- ▶ Ardoa, sagardoa, txakolina eta patxarana, besteak beste, Euskal Herriko edari klasikoak dira. Euskaldunon egunerokoan eta kulturatan parte berezia dute. Asko edo gutxi, jende gehienak hartzen du alkohola; baita debekatzen dutenek ere: gurasoek, irakasleek, medikuek, kazetariak...

### 3. GAIA INSOMNIOA

"Sarritan lo ordutegia kaotikoa izaten da gazteen artean, baita txandaka lan egiten dutenen artean ere. Hori ez da ona. Ahal dela, egunero ordu berean jaiki eta oheratzea komeni da".

"Zortzi ordu inguru lo egitea normalizat jotzen da. Hala ere, herrialde aurreratuenetan batez bestekoa ez da zazpi ordutik gorakoa izaten".



"Adituen arabera, behar bezala lo egiteko, garrantzitsua da umetatik ondo lo egiten ikastea".

Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Loa ezinbestekoa da bizirik irauteko eta lotan ematen dugu bizitzaren herena. Lorik egin ezina, hala ere, ohiko gaitza da.
- ▶ Insomnioak arrazoi ugari izaten ditu: eguneroko tentsioa, estresa, familian edota lanean arazoak...
- ▶ Patologia guztien artean, loezinak du automedikaziorako joera nabarmenenetakoa.





# 2002ko lehenengo deialdia

2002/1

Atariko proba  
Erantzunak  
Proba idatzia



# EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

## ATARIKO PROBA

### Ohar garrantzitsuak

- EZ JARRI IZENIK EDO SINADURARIK AZTERKETA ORRIETAN ETA ERANTZUN ORRIAN, plika sistema erabiliko baita.
- Arkatzez idatzi. Honela, okertzen bazara, erantzun okerra ezaba dezakezu.
- Azterketa osoko erantzunak **ERANTZUN ORRIAN** markatu behar dira. Orri-multzo hone-tako erantzunak ez dira kontuan hartuko.
- Entzunaren ulermena goizeko **11:00**etan eginen da.

<i>Proba</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Galdera kopurua</i>	<i>Gehienezko puntu kopurua</i>
Aukera anitzeko galderak	1-8	70	70
Entzunaren ulermena	9-10	10	15
Irakurriaren ulermena	11-15	10	15
<b>Azterketa gainditzeko, gutxienez, 65 puntu atera behar dituzu.</b>			

## I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. **Poliziak kontrol bat jarri zuen eta ... inolako agiririk.**
  - a) ez nekarren
  - b) ez nuen ekartzen
  - c) ez nituen ekartzen
  - d) ez nekartzan
  
2. **“Hondakinen ekoizpena murriztekotan dira”. Hau da:**
  - a) Hondakinen ekoizpena murriztuko dute.
  - b) Hondakinen ekoizpena murrizteko asmoa dute.
  - c) Hondakinen ekoizpena murriz liteke.
  - d) Hondakinen ekoizpena murriztu beharra dago.
  
3. **Mutiko hori ez da oso betea. Beraz, ...**
  - a) atzeratua da.
  - b) estua da.
  - c) gaiztoa da.
  - d) garaia da.
  
4. **Aralarko artzainaren ustez, datorren urtea oso euri gutxikoa ...**
  - a) izanen du.
  - b) izanen ote da.
  - c) izanen da.
  - d) izaten omen daiteke.
  
5. **Martin zenak hori erraten zuen. Aukeratu baliokidea:**
  - a) Martin izena zuenak
  - b) Martin abizena zuenak
  - c) Martinek, hilda dagoenak
  - d) Martin ezizena zuenak
  
6. **Zein da zuzena?**
  - a) Iruñean, 1996ko azaroaren 5ean.
  - b) Iruñea, 1996.eko azaroaren 5.
  - c) Iruñea, 1996.ko azaroak 5ean.
  - d) Iruñean,1996ko azaroak 5ean.
  
7. **Lankideek atzo ... hitz egin zuten.**
  - a) Anerengandik
  - b) Anez
  - c) Anetaz
  - d) Anerengan

**8. Atzo kristalak ... besoa behartu nuen.**

- a) garbitzeak
- b) garbitzen
- c) garbitzera
- d) garbitzeko

**9. Inork ez du hizkuntzagatik bereizkeriarik pairatuko. Aukeratu baliokidea:**

- a) egingo
- b) jasango
- c) bideratuko
- d) inposatuko

**10. Irakurketa ... egin zuen.**

- a) irakasleak bera
- b) irakasleak berak
- c) irakasle bera
- d) irakaslek berak

**11. Guk ez daukagu zuen lana zertan ...**

- a) egiterik.
- b) egin beharrik.
- c) egiteko beharrik.
- d) eginik.

**12. Bazkideek ... egiten dute bilera.**

- a) bi urtetan behin
- b) bi urtean behin
- c) bi urtero
- d) bi urteero

**13. Jonek ez du deitu eta ...**

- a) ez dakit etorriko dela.
- b) ez dakit etorriko den.
- c) ez dakit etorriko da.
- d) ez dakit etorriko baden.

**14. Goizean gertatutakoa istripua ... zurrumurrua atera da.**

- a) izan denaren
- b) izan delaren
- c) izan den
- d) izan dela

**15. Zein da zuzena?**

- a) Oso gose naiz.
- b) Bero asko egiten du.
- c) Oso nekatutak gaude.
- d) Beste egunean Koldo ikusi nuen.

**16. Aurrerantzean aldatuko ez den agiria.**

- a) Behinik behingo agiria.
- b) Behin edo behingo agiria.
- c) Behin-behineko agiria.
- d) Behin betiko agiria.

**17. Ondorengo esaldi hauetako bat ongi dago. Zein da?**

- a) Horri honetan bi milloi hizki daude.
- b) Zihur nago lehio guztiak itxita daudela.
- c) Etorri al da norbait ospitaletik?
- d) Ihaz Koldori txintxeta bat sartu zitzaion ohinean.

**18. Ez ... da aterako, ... guztiak gorde gabe!**

- a) al                gauza
- b) ahal            gauza
- c) ahal            gauz
- d) al                gauz

**19. Zinemara lantzean behin joaten gara. Aukeratu baliokidea:**

- a) noizean behin
- b) askotan
- c) sarritan
- d) astean behin

**20. Zein da zuzena?**

- a) Ez esan txorakeririk.
- b) Famili hori ez da hemengoa.
- c) Koldok bi anaia ditu.
- d) Gauz bat ekarri dizut.

**21. Hauteskundeetan lankideek denon ordezkari aukeratu ...**

- a) zintuen.
- b) zizuten.
- c) zaituzte.
- d) dizute.

**22. Koldok ogitartekoak prestatu ditu eta ...**

- a) guk ere.
- b) baita ere guk.
- c) guk ere bai.
- d) ere bai guk.

**23. Nola idazten da 653?**

- a) Seirehun eta berrogeita hamairu
- b) Seiehun eta berrogeita hamahiru
- c) Seiehun eta berrogei ta hamairu
- d) Seirehun eta berrogei eta hamahiru

**24. Apaizari eskuan muin eman zioten. Aukeratu baliokidea:**

- a) musu
- b) ziztada
- c) min
- d) dirua

**25. Xehetasunak arestian eman dizkigute. Aukeratu baliokidea:**

- a) duela gutxi
- b) aurretik
- c) ondoren
- d) amaieran

**26. Bermeon gehiengoa ... bizi da.**

- a) arrantzatik
- b) arrantzarengandik
- c) arrantzagatik
- d) arrantzaz

**27. Honek ez du luze joko, ... bukatua egonen da.**

- a) bi hilabeteri buruz
- b) bi hilabeteren barruan
- c) bi hilabete artean
- d) bi hilabeteren buruan

**28. Unibertsitateak mintzaira biren erabilera bermatuko du. Aukeratu baliokidea:**

- a) aldarrikatuko
- b) ziurtatuko
- c) eskatuko
- d) bideratuko

**29. "Lankide berria oso pertsona zuria da". Bestela esanda:**

- a) zurbila
- b) harroputza
- c) faltsua
- d) egoskorra

**30. Liburu ... zerbait egin ahal izanen dugu.**

- a) guzti horiekin
- b) guztiekin horiekin
- c) hori guztiekin
- d) horiekin guztiekin

**31. Norbaitek arropa berria janzten duenean, zer esaten zaio?**

- a) Hau kuxidadea!
- b) A zer alea!
- c) Osasunarekin urratu!
- d) Ederki eman ere!

**32. Auto hau ... erosi dut.**

- a) 1000 eurogatik
- b) 1000 euron
- c) 1000 eurotan
- d) 1000 eurorengaitik

**33. Agirre jaunari bulegora telefonoz deitu diozu. Zer ez zenioke esango?**

- a) Agirre jaunarekin hitz egin nahi nuke.
- b) Agirre jaunarekin hitz egin nezake?
- c) Agirre jauna bulegoan al da?
- d) Agirre jauna dago?

**34. Irakasleak txitean-pitean isiltzeko esan du. Aukeratu baliokidea:**

- a) lehenbailehen
- b) berehala
- c) behin eta berriz
- d) noizean behin

**35. Zein da suhi hitzaren esanahia?**

- a) Alabaren senarra
- b) Semearen emaztea
- c) Emaztearen aita
- d) Senarraren aita



**36. Goizean irakasleak demanda egin digu. Beraz, ...**

- a) eman egin digu.
- b) agindu egin digu.
- c) galdetu egin digu.
- d) errieta egin digu.

**37. "Astoa saldu eta mandoa erosi". Zein da esaera honen esanahia?**

- a) Baten bati ziria sartu.
- b) Negozio txarra egin.
- c) Tratu baten ondorioz, irabazi ederra egin.
- d) Bizimodua atera hala edo hola.

**38. Zer nahi duzu? Aukeratu erantzun egokia:**

- a) Ezer ez.
- b) Ezerrez.
- c) Ezer.
- d) Edozer gauz.

**39. Zein zerrenda da egokia euskara batuan?**

- a) Iritzi, aurrekalde, arrain, zai.
- b) Eritzi, aurrekalde, arrai, zai.
- c) Eritzi, aurrealde, arrai, zain.
- d) Iritzi, aurrealde, arrain, zain.

**40. Ondo ordaindu ... hemengo loreak ongi zainduko ...**

- a) bazitzaizuen zenituzkeen.
- b) balitzaizue zenituzketen.
- c) balitzaizue zenuketen.
- d) balitzaizueke zintuzketen.

**41. Fabore bat zor dizut, opor-leku hori ... ezagutu bainuen.**

- a) zure esker
- b) zuregaitik
- c) zure bitartez
- d) zure bizkar

**42. Garagardo ... galdu zen.**

- a) guztia
- b) guztiz
- c) osoa
- d) erabat

**43. Mikel, ...**

- a) goaz zinemara?
- b) joaten gara zinemara?
- c) goazen zinemara?
- d) joanen gara zinemara?

**44. "Bere burua zuritu nahi izan zuen", beraz ...**

- a) bere burua margotu nahi izan zuen.
- b) bere burua justifikatu nahi izan zuen.
- c) bere burua garbitu nahi izan zuen.
- d) bere burua nabarmendu nahi izan zuen.

**45. Zenbat eta diru gehiago irabazi ...**

- a) orduan eta askoago nahi izaten da.
- b) orduan eta gehiago nahi izaten da.
- c) gero eta gehien nahi izaten da.
- d) gero eta gehiago nahi izaten da.

**46. Zein hitz bikote da zuzena?**

- a) Lautada malkartsua
- b) Pago lerdena
- c) Paper herdoildua
- d) Liburuxka mardula

**47. Hori esan zuenean total eginda zegoen. Aukeratu baliokidea:**

- a) kokoteraino
- b) horditurik
- c) nazkaturik
- d) haserreturik

**48. Zein zerrendatan ageri da ortografia-akatsen bat?**

- a) hosto, ospitale, deiadar, oin.
- b) auzo, ahizpa, saihets, altzari.
- c) hurrengo, horma, umore, onartu.
- d) urrun, lehun, hurbil, leiho.

**49. Neskek mutilek ... arazoak dituzte.**

- a) adina
- b) bezain
- c) adinako
- d) beste

**50. Ez dut uste aita bihar zure etxera joango ...**

- a) den.
- b) denik.
- c) dela.
- d) delarik.

**51. Zein da zuzena?**

- a) Zuek guk adinako indarra daukazue.
- b) Zuek guk bezain indarra daukazue.
- c) Zuek guk adina indarra daukazue.
- d) Zuek guk adinako indar daukazue.

**52. Zure lagunaren urtebetetzea da. Zer ez zenioke esango?**

- a) Anitz urtez!
- b) Zorionak!
- c) Urte askotarako!
- d) Zorion ugari!

**53. Zuek guztiok ... euro ekarri behar dituzue biharko.**

- a) bana mila
- b) bat milana
- c) mila bana
- d) milana

**54. Partidaren bukaeran arbitroari denetatik esan zioten jokalariek baina ... egin zuen.**

- a) ez zuela entzun
- b) ez entzundakoa
- c) ez entzutea
- d) ez entzunarena

**55. Gure semea oso gaizki portatzen da etxean amonak laineza ematen diolako. Aukeratu baliokidea:**

- a) laguntza
- b) inbidia
- c) amorrazioa
- d) haizea

**56. Zeinetan dira biak sinonimoak?**

- a) otzan            harro
- b) amatatu        piztu
- c) ebatsi           lapurtu
- d) artega           lasai

**57. Zein da zuzena?**

- a) Irailak 8an, lauretan
- b) Azaroaren 9an, zortzietan
- c) Abuztuak 20, hiruetan
- d) Otsailaren 11ean, seiretan

**58. Pozik etorriko nintzatekeen atzoko jaialdira, baina ...**

- a) ezin izan nintzen etorri.
- b) ezin izan nuen etorri.
- c) ezin nuen etorri.
- d) ezin ninteke etorri.

**59. Ongi ... jaialdia antolatzeari.**

- a) deritzaiogu
- b) deritzaigu
- c) derizkiogu
- d) deritzogu

**60. Botika ..., ez zara sendatuko.**

- a) ez hartzekotan
- b) hartu ezean
- c) ez hartuz gero
- d) ez hartu ezean

**61. Zein dago ongi euskara batuan?**

- a) Etxe batzutan ez dute urik.
- b) Autoa etxearen atzekaldean utzi dut.
- c) Gizon harek eman digu sarrera.
- d) Denda batean sartu dira.

**62. Familia honetan mutilak ..., neskek ere parrandazaleak dira.**

- a) ezik
- b) aparte
- c) izan ezik
- d) ez ezik

**63. ... elur jauzi batek estali gintuen.**

- a) Batbatean
- b) Bat-batean
- c) Bat batean
- d) Bapatean

**64. "Nor arduratuko da pastelak ekartzeaz?"**

- a) Nire kontu.
- b) Nik hartuko dut zama hori.
- c) Nire bizkar.
- d) Niri leporatu nahi didazu?

**65. Plangintzaren bidez, euskararen ordezkapena ekidin ez ezik, normalizazioa ere lortu nahi dugu; alegia, ...**

- a) ordezkapena ekidin ezean, normalizazioa lortu nahi dugu.
- b) ordezkapena ekidin izan ezik, normalizazioa lortu nahi dugu.
- c) ordezkapena ekiditeaz gain, normalizazioa lortu nahi dugu.
- d) ordezkapena ekiditekotan, normalizazioa lortu nahi dugu.

**66. "Auzoko behiak errapea luze". Aukeratu baliokidea:**

- a) Balizko olak burdinarik ez.
- b) Gezurrak buztana labur.
- c) Han ere txakurrak oinutsik.
- d) Urrutiko intxaurreak hamalau, gerturatu eta lau.

**67. "Afaltzera noa ... ". Osatu esaldia:**

- a) tripazain nago eta!
- b) tripa zorriak ditut eta!
- c) tripa hutsik nago eta!
- d) tripak jaten nago eta!

**68. Horrek ez du hurrengo kukurik entzungo. Zer adierazten du?**

- a) Erotu egingo dela.
- b) Galdu egingo dela.
- c) Aberastu egingo dela.
- d) Hil egingo dela.

**69. Aukeratu egokia:**

- a) Mesedez, utziko didazu komunera joaten?
- b) Mesedez, uzten komunera joaten?
- c) Mesedez, uzten didazu komunera joaten?
- d) Mesedez, uzten al didazu komunera joaten?

**70. Ipuin baten amaieran:**

- a) Egunen batean...
- b) Hala bazen ez bazen...
- c) Behin batean...
- d) Halako batean...

## II. ENTZUNAREN ULERMENA

*Entzungaia liburuari erantsirik datorren CDan dago eta haren transkripzioa liburuaren bukaerako eranskinean.*

### 71. Antraxa da ...

- a) zomorro batek larruazalean sorturiko gaitz kutsakorra.
- b) gripearentzen sintoma berak sortzen dituen gaixotasuna.
- c) bakterio ezagun batek eragindako gaixotasun infekziosoa.
- d) teknologia berriak sorturiko bakterio arriskutsua.

### 72. Nolakoa da antraxa?

- a) Gogorra da, 40 graduko sukarra eragin dezake.
- b) Ugalkorra eta gogorra, edozein ingurunetan erraz ugaltzen da.
- c) Iraunkorra eta gogorra, jakina da 100 urte baino gehiago irauten duela.
- d) Egonkorra da, lehorreko edozein ingurunetan luze bizi daiteke.

### 73. Digestio-aparatuko antraxari dagokionez, ...

- a) kasuak larruazalekoak baino gehiago dira.
- b) espora gutxi batzuk nahikoa dira bertan txikizioak egiteko.
- c) antraxarentzat ez da erraza digestio prozesua gainditzea.
- d) heriotza tasa % 95 baino handiagoa izaten da.

### 74. Arnasten denean, antraxaren hasierako sintoma(k) hau(ek) d(ir)a:

- a) ultzera antzeko plakak sortzen dira.
- b) odol galera hasten da.
- c) arnasa hartzeko zailtasun nabaria.
- d) ondoeza eta sukarra agertzen dira.

### 75. Gerra biologikorako orain arte nahiago izan da antraxa botulismoa baino. Zergatik?

- a) Antraxa pertsonatik pertsonara oso kutsakorra delako.
- b) Botulismoa erabiltzen zailagoa delako.
- c) Botulismoa hain hilgarria ez delako.
- d) Antraxa ekoiztea merkeagoa delako.

### 76. Gerra biologikoaren aurka gas-maskarak eta jantzi bereziak ez dira nahikoa ...

- a) horrela jantzita ezin daitekeelako bizi.
- b) izurrite beltzari aurre egiteko balio ez dutelako.
- c) bakterioek eragozpen guztiak gainditzen dituztelako.
- d) biztanle guztiei bana erostea oso garestia litzatekeelako.

**77. Gerra biologikoa egin ahal izateko ...**

- a) ez litzateke bestelako azpiegituraren beharrik.
- b) laborategi oso aurreratuak beharko lirateke.
- c) laborategiko langileek lana ezkutuan egin beharko lukete.
- d) biologo aditu eta aurreratuak beharko lirateke.

**78. Hiri bat kutsatzeko ...**

- a) lortzen zaila den antrax-kopuru handia beharko litzateke.
- b) hegazkin batekin hiria fumigatu besterik ez litzateke egin behar.
- c) hiriko ura kutsatu beharko litzateke.
- d) ehun zaku antrax beharko lirateke.

**79. Hauetako zein da Felix Zubia medikuaren iritzia?**

- a) Badaezpada neurriak hartu behar dira.
- b) Antraxaren aferaren helburua ahal den jende gehiena hiltzea da.
- c) Antraxaren erasotik inor ez gaude salbu.
- d) Helburu nagusia jendea beldurtzea da.

**80. Hauetako zein esaldik adierazten du ongien elkarrizketaren irakaspena?**

- a) Antraxaren aurkako tratamenduak eraginkorrak dira.
- b) Antraxa bide askotatik sar daiteke gorputzean.
- c) Ez dago antraxaren beldur izateko hainbesteko arrazoirik.
- d) Antraxak heriotza eragin dezake espora gutxi izanda ere.

### III. IRAKURRIAREN ULERMENA (I) GALDERAK

**81. Alderatzen hasita, Jon Kortazarren aburuz, ...**

- a) Euskal Herrian azken 3 urteetan argia ikusi duten 20-25 liburuen artean, gehienak euskal poesiaren gaineko kritikak dira.
- b) gurean kalean saltzen den poesia-liburu kopurua txikia da, Galizian urtero saldu ohi denaren aldean.
- c) Galizian urtean 50 poesia-liburu plazaratzen direnez gero, ezin esan daiteke Euskal Herrian argitaratzen den poesia-liburu kopurua eskasa denik.
- d) Euskal Herrian azken 3 urteotan argitaratu den helduentzako poesia-liburu kopurua, Galizian urtebetean plazaratzen denaren erdia da ozta-ozta.

**82. Jose Luis Otamendiren iritziz, ...**

- a) liburuak baino kontuan hartu ezean, aiseago azter daiteke poesiaren egiazko osasun egoera.
- b) liburugintzara bakarrik mugatuz gero, gainerako bozgorailuek itoko lukete poesiak irekitako bide berria.
- c) liburugintza pitin bat mugatu eta beste bide bati ekin behar dio poesiak, itoko ez bada: aldizkariak, fantzineak, errezitaldiak, musika, lantegiak.
- d) liburugintza ez ezik, beste adierazpen-bide batzuk ere jorratuz gero, euskal poesiaren osasun egoerak ez dirudi horren larria.

**83. Jon Benito eta Kirmen Uribe iritzi bertukoak dira.**

- a) Belaunaldien arteko eten logikoa gertatu da laurogeita hamarreko hamarkadatik gaur egun bitartean.
- b) Gaur egungo poesiak ez du zerikusirik aurrekoarekin, oparagoa baita.
- c) Euskal poesigintzan ez da haustura nabarmenik jazo laurogeita hamarreko hamarkadatik gaur egun arte.
- d) Azkenaldian leitutakoaren ondorio zuzenak dira argitaratu berri dituzten Aingurak erreketan eta Bitartean heldu eskutik.

**84. Bi literatur generoen arteko lehia dela eta, ...**

- a) maiz sentsibilitaterik eza edota erdipurdiko literatura izatea leporatzen zaio poesiari.
- b) besteak beste, idazle anitzek ere bigarren mailako literaturatzat hartu ohi du poesiagintza.
- c) gehiago bide dira genero biak bata bestearen osagarritzat jotzen dituztenak.
- d) mendez mende aztertu beharreko kontua da Uriberen ustez.



**85. Kalitateari eta kantitateari dagokienez, ...**

- a) idazleak ere ziur daude kalitatea ona izan dadin, kantitatea ezinbestekoa izaten dela.
- b) Kortazarren iduriko, hiru parametro izan behar dira gogoan kantitatearen kontua aztertzeko garaian.
- c) kalitate oneko literatur lanak, besteak beste, irakurleen oroimenean irauteko gai izan behar duelakoan dago Jon Kortazar.
- d) literatura lanaren kalitatea neurtzeko, Kortazarren arabera, aski litzateke irakurleak gustuko izan ote duen ikustea.

**86. Kantuaren eta poesiaren arteko loturari esker,**

- a) poesia hartzaile gehiagorengana hurbiltzea erdietsi da, behinik behin.
- b) ezbairik gabe bientzat izango dira onurak, Estankonak dioenaren arabera.
- c) oraindano ezezagunak zitzaizkigun kezka eta galderei aurre egiteko poetika berria jaio da.
- d) irakurle askorik ez dagoenez, errezitaldiak bihurtu dira poesiaren babesleku bakar.

**87. Galdetu zaien egile guztien artean,**

- a) Castillo Suarezena izan da ihardespentik itxaropentsuena, bere aburuz ez baita horren urria gurean argitaratzen ari den poesia kopurua.
- b) bat izan ezik, beste guztiak bat datoz: poesia gutxi argitaratzen da eta gainera ia dena berdintsua.
- c) Jon Kortazarrek esan du gure herria, gainerakoak ez bezala, krisi kulturalak jota dagoela.
- d) Otamendik baino ez du aipatu poesia argitalpenen eskasia.

**88. Poesiaren betebeharrak eta geroaz, Otamendi poetak ...**

- a) ez daki poesia gai izango ote den beharrezko adierazpideak bilatzeko eta gure artean tartetxoa aurkitzeko.
- b) uste du gure bizi-erritmoa mantsotzea dela poesiaren gaitza sendatzeko bidea.
- c) badaki ez dutela asmatuko garaian garaiko euskal poesia gizarteratzen eta beste batzuek beteko dutela eginkizun hori.
- d) ez du argi poesiaren adierazpideak gure gizartean eta gure garaian euskaraz behar bezala egokitzeke gai izango ote diren.

**89. Ondoko hauen artean, zein adierazpenek laburbiltzen du ondoen testuaren mamia?**

- a) Azken bospasei urteotako euskal poesia era askotakoa da eta gizarte literarioaren memorian irauteko gai bada, argitalpenen industriari esker izango da.
- b) Plazaratzen den poesia-kopuruari dagokionez, urte oparagoak izan ditugu baina baita idorrakoak ere. Idazle gehienen aburuz, alabaina, euskal poesia ondoezik dago.
- c) Ezin esan daiteke euskal poesia sasoi onenean dagoenik. Hala ere, euskal literatura, bere osotasunean, ez dago gaitzak jota.
- d) Onuragarria bada ere, oraindik ikusteke dago musika eta poesiaren arteko lotura berriak noraino lagun dezakeen poesia gazteengana hurbiltzen.

**90. Zein da egia?**

- a) 1980-1990 urte tartean argitaratu zen poesia-liburu kopurua 20 ingurukoa izan zen guztira.
- b) Gaur egun hezkuntzan sustatzen dira, batik bat, kultura zaletasuna eta poesia irakurketa.
- c) Anemometroa idatzi zuenaren aburuz, ez dago esaterik poesiaren osasuna ona denik.
- d) Gurean egiten diren poesia lanen kalitatea ona da, baina oraindik lan gutxi karrikatzen da.

### III. IRAKURRIAREN ULERMENA (II) TESTUA

#### POESIAREN ONDOEZA

*Euskaldunon Egunkaria*, Begia gehigarria. Ane Sarasketa, 2002ko urtarrilaren 5a, moldatua.

Azken hiru urteotan, helduentzako poesian, 20-25 liburu argitaratu dira, gutxi gorabehera. Kopuru txikia da hori, egile gehienek irudiko. 1999. eta 2000. urteetako *Euskal poesiaren kritika* argitara eman berri duen Jon Kortazarrek ere halaxe uste du: "Konparazioak eginez gero, kopuru txikia da gurean kaleratutakoa. Galizian, esaterako, 50 poesia liburu inguru kaleratzen dituzte urtero". Ez omen da, ordea, poesiaren arazoa soilik: "Euskal literatura, oro har, ez da oso joria. Ipuinak eta eleberriak ere asko egiten direnik ez zait iruditzen". Jose Luis Otamendik, bestalde, hauxe gehitu du: poesia argitalpenak gutxi izan arren, ahots askotarikoak direla gure plazan. "Liburuetara bakarrik mugatuz gero, esan beharko genuke bezero gutxi dela osasun egoera aztertzeko; osasun etxe erdi huts baten irudia letorke hortik. Baina jotzen badugu badirela bestelako bozgorailuak ere, hala nola, aldizkariak, fantzineak, errezitaldiak, musika, lantegiak, bide horrek ez dirudi horren itoa. Nola begiratzen den. Argitalpenen industriari erreparatuta, flako antzean gabiltzala aitortu beharra dago".

Erdipurdikoa iritzi dio Kirmen Uribek poesiaren osasunari –*Bitartean heldu eskutik* poesia lana argitaratu berri du-. "Liburuak kalitatea ona da, baina kantitatea txikia. Eta irakurleak ere ez dira asko". Eskasiaren arrazoiak hamaika izan badaitezke ere, hezkuntza aipatu du aurrena: "Gurean, hezkuntzan, kultura ez da garrantzitsua, eta, ondorioz, arreta ez da kulturaren paratzen". Aitzitik, 1998an *Anemometroa* eman zigun Igor Estankona baikorrago azaldu da. "Badago poesia osasuntsu dabilelako uste orokorra duenik. Horrek ez du esan nahi oinarriak sendoegiak direnik, baina bada zerbait".

#### Komertzializazioa

Egungoak baino sasoi ilunagoak zein aberatsagoak ezagutu ditu euskal poesiak. 70eko hamarkadan zortzi bat liburu kaleratzen ziren urtero; 80ko hamarkadan, batez bestekoa hogeitaz liburukoa zen. 1990. urtetik aitzinera, berriz, poesia lanen kopuruak behera egin zuen nabarmen. 90eko hamarkadan errelebo faltaz hitz egiten zen arren, orduetik gaur egun arte jazotakoa, erreleboa baino gehiago jarraipena dela esan du *Aingurak erreketan* (Susa, 2001) liburuaren egile den Jon Benitok: "Ez delako deus ere eten, ez delako deus ere irauli; garapen baten ondorio logikoa da egungo poesia. Finean, egindako irakurketen ondorio dira, hein batean, orain idatzitako poemak". Kirmen Uribek ere ez du etenik eta hutsunerik nabarmendu. Ostera, poesiaren ibilbidea beti emankorra izan dela dio: "Bestalde, egungo idazle gazteek denetik idazten dute; poesia nahiz narratiba. Beraz, urak baretu egin dira, antza".

Poesia eta narratiba senideak izanik, batzuetan etsai handi bilakatzen dira. Horra hor alderaketen bekaturik handiena. Batzuek bi generoak osagarriak direla diote. Gehienak, ordea, poesiaren onarpen ezaz mintzo dira. Uribek beste ikuspuntu batetik eutsi dio

bi generoen arteko harremanari, mendetasunaz mintzatu zaigularik: "Sarritan, garrantzi handiagoa ematen zaio narratibagintzari. Eta ni ez nago ados horrekin. Poesiari maiz egotzen zaizkio neurritz gaineko sentiberatasuna eta erdi mailako literatura izatea. Aurreiritziak dira, idazle askoren artean ere bizi-bizirik dirautenak".

## Kalitatea eta kantitatea

Kantitateak ez dakar kalitatea, halabeharrez. Eta baieztapen horren inguruan ez dute dudarik idazleek ere. Kortazarrek arazoa bestelakoa dela dio: zenbat irauten duen liburu horrek gizarte literarioaren oroimenean. "Beraz, kalitate kontu hori parametro askotatik neurtu behar da: irakurleari gustatu ote zaion; gizarte literarioaren oroimenean gelditu den; eredugarri bihurtzen den..."

Egun argitaratzen den poesia, berez, gutxi dela dio Otamendik atzera. "Argitalpenen lehorte hori bere testuinguruari lotu behar zaio; alegia, ez dago alde batera uzterik argitalpenen mundua murgilduta dagoen uniformizatzeko bide bortitza, esate baterako. *Best-sellerizazio*-tik kalte zuzena datorkio *liter-aniztasunari*". Kalitateaz baino gehiago, poesia interesgarriaz mintzatu da gero. "Alegia, hizkuntza batean bizi den komunitate bateko norbaitentzat asegarri gertatu nahi duen lana, norbaiten gaur-hemenari erantzuten eta, batez ere, galderak egiten ausartzen dena da poesia interesgarria. Homologazioaren jukutriari amore emanez gero, esango nuke normaltasuna erdietsi duela euskal poesiak; paradoxaz horrela adieraz daiteke: herri *anormal* baten poesia *normala*. Garaian garaikoa izatean dago, nire ustez, lanik handiena, eta egun badira lan interesgarriak".

Egia esan, poesia ez daiteke liburu soiletan neur. Irakurlerik ez dagoela ikusi eta, esaterako, kantuaren eta poesiaren arteko loturak sakondu dituzte. Poesia errezitaldien esperientziak adibide nabarmenak dira. Diziplina anitzek hartu dute poesia beren magalean. Edo, alderantziz, poesiak hainbat adierazpidetan kausitu du etxe berria.

Kantagintzaren eta poesiaren arteko erlazioak ekarpenik egin duela nabarmendu du Benitok: "Jendeak gertuagotik sentitzen ahal du poesia. Gutxi batzuen esparru izateari utzi dio, eta musikarekin eta beste kultur adierazpen batzuekin egindako elkarlanek egundoko garrantzia izan dute. Egungo kezkei edota itaunei aurre emateko poetika berri bat sortu da, nahiz eta kezkek historian zehar errepikatzen diren berberak izan". Estankonaren iritziz, aitzitik, ikusteko dago musikaren eta poesiaren arteko aliantza zaharra noraino iritsiko den poeta gazteekin, "garai batekoekin izan zuen arrakasta lortzea zaila izango den arren. Gainera, beti ez dago argi onuragarria den arlo bientzat".

## Lehen eta orain

Nekeza da lehengo eta oraingo poesia alderatzea, Otamendiren aburuz. "Duela bospasei urtetik hona, poeta gazteen lanek eginagoak ematen dute, helduagoak, profesionalagoak, nolabait. Baina ezin da eskuarki horren arin hitz egin. Poesiaren diagnostika egiteko eskatu eta, oro har, ondoezik dagoela diote idazleek. Castillo Suarezrek eman du iritzirik baikorrena, apika. "Poesia dezente ari da kaleratzen Euskal Herrian azken urte-

tan. Gainera, argitaratutako gehienak idazle gazteek idatzirikoak dira. Oso lan ezberdinak dira, eta aukera zabala osatu dute. Egia da, bestalde, poesia lan bat diru iturri bilakatzea zaila dela, poesia gutxi irakurtzen baita”.

Poesian ere denetik dagoela adierazi du Kortazarrek: “Korrante ugari dago, baina azpian badago krisi kultural garrantzitsua, eta ez gurean bakarrik”.

Azkenik, poesiaren funtzioaz eta etorkizunaz bi hitz gaineratu ditu Otamendik: “Poesiak beti bilatuko ditu bere adierazteko moduak. Kontua da guk geuk jakingo dugun lan hori gure gizartean, gure sasoian, gure hizkuntzan egiten; edo beste batzuek beteko duten eginkizun hori. Gizakien eta gauzen esentziarekin lotuta ikusten dut poesia. Zaila da benetan gaitz horretatik sendatzea. Alderantziz gerta daitekeela ere iruditzen zait; hots, bizkorregi bizi garela narratiba irakurtzeko eta, agian, motelegi poesia irakurtzeko, entzuteko. Gauza errazik ez dago”.



## I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. a	16. d	31. c	46. c	61. d
2. b	17. c	32. c	47. b	62. d
3. a	18. a	33. d	48. d	63. b
4. c	19. a	34. c	49. c	64. a
5. c	20. c	35. a	50. b	65. c
6. a	21. c	36. d	51. a	66. d
7. b	22. c	37. b	52. d	67. b
8. b	23. b	38. a	53. c	68. d
9. b	24. a	39. d	54. d	69. a
10. b	25. a	40. b	55. d	70. b
11. d	26. a	41. c	56. c	
12. b	27. d	42. a	57. b	
13. b	28. b	43. d	58. a	
14. c	29. c	44. b	59. d	
15. a	30. d	45. b	60. b	

## II. ENTZUNAREN ULERMENA

1. c	6. a
2. d	7. b
3. c	8. a
4. d	9. d
5. b	10. c

## III. IRAKURRIAREN ULERMENA

1. d	6. a
2. d	7. a
3. c	8. d
4. b	9. b
5. c	10. d





# EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

## PROBA IDATZIA

### Ohar garrantzitsuak

- Azterketa honek 10 orri ditu, 2 multzotan banaturik.
- Ez jarri izenik edo sinadurarik azterketa orrietan.
- Idazteko boligrafo beltza edo urdin iluna erabili.

<i>Proba idatzia</i>		<i>Puntu Kopurua</i>	
		<i>Gehienez</i>	<i>Gutxienez</i>
Idazlan laburra	100 hitz, gutxienez, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe. 2 GAI aukeran.	10	5
Idazlan luzea	300 hitz, gutxienez. 3 GAI aukeran.	30	15
Azterketa osoa gainditzeko, GUTXIENEZ, 22 puntu atera behar dira.			

## IDAZLAN LABURRA

- \* Proposatzen diren bi gaien artean **bat** aukeratu behar duzu.
- \* Idazlana, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe, **gutxienez, 100** hitzekoa izanen da (15-20 lerro).
- \* Proba honetan gauzak zehatz adierazteko gaitasuna baloratu nahi dugu. Hortaz, estu-estu lotu «Gaia», «Egitekoa» eta, batez ere, «Nahitaez eman behar duzun informazioa» izeneko atalei. **Labur eta argi** adierazi azaldu beharrekoa, alferrik luzatu gabe. Ez ahaztu atal honetan zuzentasun handia eskatuko zaizula.

### 1. idazlana

---

Gaia:

Mendi-bazterrak gero eta zikinago daude.

Egitekoa:

Naturazale amorratua zara eta mendietako zikinkeriak ikusita, Ingurumen Departamentuko buruari kexa-gutuna idatzi nahi diozu egoera salatzeko eta, bidenabar, lehenbailehen neurri egokiak har ditzan.



Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ▶ Mendi-bazterren egoera azaldu.
- ▶ Hartu beharko liratekeen neurriak adierazi.

### 2. idazlana

---

Gaia:

Hizkuntzak ikasteko ikastetxe berri baterako ikasleak erakartzea.

Egitekoa:

Hizkuntza-ikastetxe berri bateko zuzendari zara eta ikastetxera jendea erakartzeko ethez etxe banatuko den propaganda-orria prestatu behar duzu.



Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ▶ Ikastetxearen ezaugarriak: kokapena, baliabideak, irakatsiko diren hizkuntzak, ordutegiak, metodologia...
- ▶ Hizkuntzak jakitearen abantailak.

## IDAZLAN LUZEA

### OHARRAK:

- \* Proposatzen diren hiru gaien artean bat aukeratu behar duzu.
- \* Idazlanak **300 hitz** eduki behar ditu, **gutxienez**.
- \* Idazlana egiteko orri hauetako informazioa erabiltzea aukerakoa da. Beraz, ez zaude erabiltzera beharturik.
- \* Proba honetan gaia garatzeko duzun gaitasuna erakutsi behar duzu.
- \* Gogora ezazu ezin duzula zure benetako izena erabili sinatzeko.
- \* Proba baloratzeko lau alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, testuaren antolaketa (koherentzia eta kohesioa), egokitasuna eta aberastasuna.

## 1. GAIA TXAKURRA, LAGUN HORI

Udalek arazoak dituzte: % 41ek ez dute txakur erroldarik egiten, askok ez dituzte ez garbiketa arauak, ez segurtasun kontuak errespetatzen...

Jabeen laurdenek aitortzen dute txakurrak arazoak sortzen dituela: zikinkeria, usaina, kalteak altzarietan, askatasun pertsonalaren murrizketa...



Txakurra da etxe-  
abererik gustukoena.  
Etxean maskotarik dutenen artean,  
% 55ek txakurra dute.

Pedigri agiri eta guzti  
duen txakurkume batek,  
arrazaren arabera, 600  
eurotik 3.000 bitarte balio  
dezake.

### Ondoko puntu hauetaz balia zaitetzke:

- ▶ Zenbait adituren ustez, txakurra haur eta gazteen heziketarako onuragarria izan daiteke.
- ▶ Herri txikietan okerrago zaintzen dituzte txakurrak hiri handietan baino.
- ▶ Jabeak oporretara joaten direnean, txakurra lagunei eta familiakoei uzten diete. Beste askok etxean bakarrik uzten dute.

## 2. GAIA MODA

Zenbait moda-dendatan 38 taila da dagoen handiena. Horrek lodiegiak daudela pentsatzera bultzatzen ditu zenbait emakume.



Orain vigorexia da denon ahotan dabilen kontua. Vigorexikoek ez dute inoiz beren gorputza nahi bezain gihartsu ikusten, horregatik etengabe gimnasioan aritzen dira.



Anorexia eta bulimia azken urte hauetan gizarte garatuetan izugarri zabaldu dira. Iaz Osasunbidean 368 kasu izan zituzten; horietako 344, emakumezkoak.

Gero eta jende gehiago, emakumezkoak batez ere, kliniketara joaten da lifting, liposukzio eta antzeko operazioak egitera.

Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Gaur egun moda kontu estetikoak baino askoz gehiago da: negozioa, industria, merkataritza, lanbidea...
- ▶ Gaurko gazteen artean pearcing-a eta tatuajea dira arrakasta handia duten joerak.
- ▶ Egipton eta beste kultura zahar batzuetan baziren gorputza edertzeko hainbat ukendu, pintura eta apaingarri. Eredu estetikoak aldatuz joan badira ere, betidanikoa da eder egon nahia.

### 3. GAIA

#### HERIOTZA ERE NEGOZIO

Betidanik gaubeila etxean egin izan da; gaur egun, ordea, beilatokia erabiltzen da. Horregatik beilatokien artean lehia handia sortu da, norik zerbitzu hobeak eskainiko: lore, hilkutxa, hilarri eta abarren erakusketa, kafetegi-jatetxea...

Berrikuntzei dagokienez, senideek badute azken agurrak eta doluminak Interneten bidez jasotzea. Lutoa adierazteko, bestalde, kolore beltzeko adierazgarriak ia desagertu dira.



Zenbaitetik aseguru konpainia batekin poliza dute. Kasu horretan hiletarako kuota ordaintzen da hilerero. Polizan nolako hilkutxa, beilatokia edo eskela nahi den zehazten da, bestelako xehetasunekin batera.

**Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:**

- ▶ Familiako bat hiltzen denean, familiak askotan ez daki zer egin behar duen. Denbora laburrean zenbait erabaki hartu behar dira: hilkutxa, hileta elizkizunak, beila, garraioa...
- ▶ Jendeak normalean ehorzketa etxe batera joan eta zerbitzu estandarra eskatzen du: kutxa, hil autoa, eskela txiki bat eta beila. Osotara, batez beste, 1.200 euro.
- ▶ Ehorzketa etxeko langileak tratu atseginekoa izan behar du, etxekoekiko harremana asko zaindu behar da-eta. Bestalde, edozeinek ez du lanbide hau jasaten.



**2002ko  
bigarren  
deialdia**

**Atariko proba  
Erantzunak  
Proba idatzia**





# EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

## ATARIKO PROBA

### Ohar garrantzitsuak

- EZ JARRI IZENIK EDO SINADURARIK AZTERKETA ORRIETAN ETA ERANTZUN ORRIAN, plika sistema erabiliko baita.
- Arkatzez idatzi. Honela, okertzen bazara, erantzun okerra ezaba dezakezu.
- Azterketa osoko erantzunak **ERANTZUN ORRIAN** markatu behar dira. Orri-multzo hone-tako erantzunak ez dira kontuan hartuko.
- Entzunaren ulermena goizeko **11:00**etan eginen da.

<i>Proba</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Galdera kopurua</i>	<i>Gehienezko puntu kopurua</i>
Aukera anitzeko galderak	1-8	70	70
Entzunaren ulermena	9-10	10	15
Irakurriaren ulermena	11-15	10	15
<b>Azterketa gainditzeko, gutxienez, 65 puntu atera behar dituzu.</b>			

## I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. **Kinieletan asmatu dugu eta bederatzi mila euro dugu hiru lankideon artean banatzeko; beraz, ...**
  - a) hiruna mila euro tokatu zaigu.
  - b) hiru mila bana euro tokatu zaigu.
  - c) bakoitzarentzat hiru milana euro tokatu zaigu.
  - d) bakoitzari hiruna mila euro tokatu zaigu.
  
2. **Ipuin honetan igela ... bihurtzen da.**
  - a) printzea
  - b) printzean
  - c) printze batean
  - d) printzerik lirainena
  
3. **“Zer ordutan helduko dira Ultzamakoak?”**
  - a) Uste dut goizeko seiretan helduko direla.
  - b) Uste dut goizeko seietan helduko direla.
  - c) Goizeko zazpirak arte ez dira helduko.
  - d) Goizeko zazpiretara arte ez dira helduko.
  
4. **Hipermerkatura joaten bazara, ekarri .... eta ....**
  - a) bi olio litro azenario boltsa bat
  - b) bi litro olio azenario boltsa bat
  - c) bi olio litro poltsa bat azenario
  - d) bi litro olio poltsa bat azenario
  
5. **Arropa garbitu eta kanpoan zabaldu dut, eguzkitan ... dadin.**
  - a) leun
  - b) idor
  - c) haiza
  - d) lisa
  
6. **Arratsaldeko .... hasiko gara janaria banatzen.**
  - a) ordu bata laurden gutxian
  - b) ordu biak eta erdian
  - c) hirurak eta hogeit gutxitan
  - d) hirurak eta laurdenetan

**7. "Nolakoak iruditu zaizkizu prestatu ditugun jarduerak?"**

- a) Ezin hobeagoak.
- b) Ezin hobeto.
- c) Ezin hoberenak.
- d) Ezin hobeak.

**8. Lagunarteko hizkeran, zein da egokiena?**

- a) Eman diezadakezu sua?
- b) Ematen didazu sua?
- c) Emanen didazu sua?
- d) Sua eman zeniezadake?

**9. Taberna .... ospe handia du.**

- a) horretako patata tortillak
- b) horretako patatazko tortillak
- c) honen patatazko tortillak
- d) honen pataten tortillak

**10. Zuk hogeita hamazazpi urte bete dituzu; zure emazteak, .... , hogeita sei baino ez ditu oraindik.**

- a) alderantziz
- b) behinik behin
- c) bitartean
- d) berriz

**11. Nola irakurtzen da eragiketa hau?  $(35 + 10) \times 2 = 90$**

- a) Hogeita hamabost plus hamar bi aldiz berdin laurogeita hamar
- b) Hogeita hamabost gehituta hamar bider bi berdin laurogeita hamar
- c) Hogeita hamabost eta hamar bigatik berdin laurogeita hamar
- d) Hogeita hamabost gehi hamar bider bi berdin laurogeita hamar

**12. Ez, ni ez naiz ... joanen, .... joanen naiz.**

- a) larunbatan astelehenan
- b) larunbataz astelehenaz
- c) larunbatean astelehenean
- d) larunbatan astelehenean

**13. Hauetatik zein da gailendu hitzaren sinonimoa?**

- a) galdu
- b) nabarmendu
- c) beldurtu
- d) aldentu

**14. Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasleek .... argitaratzea erabaki dute.**

- a) unibertsitate aldizkari bat
- b) unibertsital aldizkari bat
- c) aldizkari unibertsitari bat
- d) unibertsitari aldizkari bat

**15. Behin eta berriro izandako kalteak .... eskatu genien.**

- a) erakutsi zizkigutela
- b) erakuts ziezazkitela
- c) erakuts ziezazkigutela
- d) erakuts zeniezaigula

**16. Zein da esaldi zuzena?**

- a) Oporrek jende askori lasaitzen diete.
- b) Gurasoek garaiz etxeratzer behartzen dute.
- c) Izugarri harritu zidan berri hark.
- d) Mundu guztiari arduratzen diona dirua da.

**17. Haiek eta gu errepide horretatik joaten gara; beraz, ...**

- a) errepide berdinetik joaten gara.
- b) errepide berberatik joaten gara.
- c) errepide berberetik joaten gara.
- d) errepide berdinatik joaten gara.

**18. Berezi nintzenetik ez dago erretzeari uzteko modurik; .... , gero eta gehiago erretzen dut.**

- a) bestalde
- b) aitzitik
- c) hala nola
- d) halaber

**19. Ondoko animalietatik bat da hegaztia. Zein?**

- a) Ahuntza.
- b) Antzara.
- c) Erbia.
- d) Aharia.

**20. ... neskei lorea eta .... guri liburua!**

- a) Emaiezu      emaguzu
- b) Emaiezu      emaignuzu
- c) Emaezu      emaignuzu
- d) Emaezu      emaguzu

**21. Zein da zuzena?**

- a) Ekainaren 21ean, ostiralez, eginen dugu afaria.
- b) Ekainak 21 eginen dugu afaria.
- c) Ostiralean, ekainak 21, eginen dugu afaria.
- d) Ekainak 21ean eginen dugu afaria.

**22. Auzia galdu dugu, baina ... aurkeztuko dugu.**

- a) ebazpena
- b) epaiketa
- c) helegitea
- d) errieta

**23. Hainbestean! Zein ez da erantzun horri dagokion galdera?**

- a) Osasunez ongi?
- b) Belaunean min duzu?
- c) Zer, bizi al gara?
- d) Zer moduz?

**24. Gazte horiekin berriro lanik ez egitea erabaki zuen, jende horrekin ... ez zegoela nabaria baitzen.**

- a) ezer ez egiteko
- b) zer eginik
- c) zer egiteko
- d) ezer ez eginik

**25. Hona nentorrela, oina zulo batean sartu eta orkatilan ikusten duzun ... atera zait.**

- a) handigarria
- b) hanpadura
- c) handigaitza
- d) handizalea

**26. Ikusiko duzu, hemendik aurrera gu, ikuskariok, anitzetan etorriko ... lan baldintzak kontrolatzera.**

- a) gatzaizkizu
- b) zatzaizkigu
- c) gatzaizu
- d) zaizkigu

**27. Zaila da ikasle hauekin moldatzea, ...**

- a) nor bihurrenik baitira.
- b) zein baino zein bihurriagoak baitira.
- c) bata besteak baino bihurriagoak baitira.
- d) nor bihurriagoak baitira.

**28. "Noiz eginen duzu txosten hori?"**

- a) Ailegatzen naizenean bulegora ekingo diot txostenari.
- b) Ailegatuko naizenean bulegora ekingo diot txostenari.
- c) Bulegora ailegatzen naizenean ekingo diot txostenari.
- d) Bulegora ailegatuko naizenean ekingo diot txostenari.

**29. Aita-alabentzat laranja bakarra hartu dute; beraz, ... janen dute.**

- a) bakoitzak erdia
- b) erdia bakoitzeko
- c) erdi bana
- d) erdiz erdi

**30. Heldu den igandean Martxeloren ... ospatu behar dute.**

- a) urteak
- b) zorionak
- c) urtebetetzea
- d) zorion eguna

**31. Merkealdien bukaeran gaudenez, ... saldu behar dute dena.**

- a) prezioen erdian
- b) prezio erdietan
- c) erdiko prezioan
- d) erdi prezioan

**32. Zein da esaldi zuzena?**

- a) Zuzendariaren aurrean eskaera aurkeztu du.
- b) Izen hori sonatzen zait.
- c) Zaharren egoitza berritu dute.
- d) Egoitza berria baldintza txarrean dago.

**33. Haiei dagokie erabakia hartzea; dena den, ...**

- a) ez dute zertan erosi behar.
- b) ez dute zertan erosi beharrik.
- c) ez dute zergatik erosi beharrik.
- d) ez dute zertan erosi.

**34. Zezenak buruan eman zion kolpea eta ... erori zen.**

- a) porru-porru eginda
- b) lur jota
- c) ziplo
- d) blai

35. Deprimitzen den bakoitzean mendira joaten da; .... , hiritik ihes egin nahi izanez gero, hura da lekurik onena.
- a) behinik behin
  - b) alegia
  - c) izan ere
  - d) egitan
36. "Zuk dituzu gibelak!". Zer esan nahi du?
- a) Gaixorik zaude.
  - b) Parte onekoa zara.
  - c) Etxalde txarrekoa zara.
  - d) Patxada handia duzu.
37. Suediak eta Finlandiak baietz erantzun zioten Europako Batasunaren amodioari. Norvegiako bikingoek, ... , ezkongai jarraitu nahi izan zuten.
- a) ordeztu
  - b) ostera
  - c) baino
  - d) gainera
38. Haiek ... egingen lukete hori.
- a) inork baino hobeki
  - b) inork baino hobe
  - c) inork baino hobea
  - d) inork baino ongien
39. "Han ere txakurrak oinutsik". Zein da esaera zahar honen esanahia?
- a) Hemengo eta hango liskarrak berberak dira.
  - b) Txakurrak nonahi ortozik ibiltzen dira.
  - c) Munduko txakur guztiak, azken batean berdinak dira.
  - d) Nonahi daude arazoak.
40. Atzo ere ekin zion negar egiteari. Ezin zaio deus esan, oso .... baita.
- a) sentibera
  - b) negargarria
  - c) sentikoia
  - d) negargura
41. Denda hori ez dute hamarrak arte irekitzen; bederatziak direnez, ...
- a) goazen kafe bat hartzera?
  - b) joaten gara kafe bat hartzera?
  - c) joanen gara kafe bat hartzera?
  - d) goaz kafe bat hartzera?

- 42. Lagun batek zerbait kontatu dizu eta harridura erakutsi nahi duzu. Zer esango zenioke?**
- a) Ez da izanen!
  - b) Horrela izanen ahal da!
  - c) Ez ahal da horrela izanen!
  - d) Ezta, ezta...!
- 43. "Mundu osoan gizon bakarra Julen izanen balitz ere, ez nintzateke berarekin oheratuko." Beste modu batean esanda:**
- a) Mundu osoan gizon bakarra Julen izanen bazen ere, ez nintzateke berarekin oheratuko.
  - b) Mundu osoan gizon bakarra Julen izatearren, ez nintzateke berarekin oheratuko.
  - c) Nahiz eta mundu osoan gizon bakarra Julen izanen den, ez nintzateke berarekin oheratuko.
  - d) Mundu osoan gizon bakarra Julen izan arren, ez nintzateke berarekin oheratuko.
- 44. Safari-Park honetan ... dauden lekura ailegatzerakoan autoko ... itxi behar dira.**
- a) lehoiak        leihoak
  - b) leohiak        leihoak
  - c) lehoiak        lehioak
  - d) leohiak        lehioak
- 45. Nola esaten zaio gramatika ikertzen duenari?**
- a) Gramatikale
  - b) Gramatikatzaile
  - c) Gramatikalari
  - d) Gramatikari
- 46. Horretarako egokiera dudanean, Argentinara joango naiz. Zein da sinonimoa?**
- a) gogoa
  - b) aukera
  - c) dirua
  - d) denbora
- 47. Ez kezkatu, aurten ez bada, datorren urtean hartuko dugu parte ...**
- a) ihardunaldian.
  - b) hiardunaldian.
  - c) jardunaldian.
  - d) iardunaldian.



**48. Ikasgelako bost haurretatik bi ilehoriak dira. Beraz, ...**

- a) bi bosten ilehoriak dira.
- b) bi bosteko ilehoriak dira.
- c) bi bosteren ilehoriak dira.
- d) bosteko bi ilehoriak dira.

**49. Aukeratu esaldi zuzena:**

- a) Hain gara alferrak, ez dugula eginen!
- b) Ez dugu eginen, hain gara alferrak!
- c) Hain gara alferrak, ezen ez dugu eginen!
- d) Halako alferrak gara, non ez baitugu eginen!

**50. Atzoko bileran denen adostasunarekin hartu zuten erabakia.**

- a) Aho betez erabaki zen.
- b) Aho batez erabaki zen.
- c) Ahapeka erabaki zen.
- d) Ahoz aho erabaki zen.

**51. Eskoletako jantokietan ikasleek lehenengo platera ez jatea arrunta da: hiru .... batek ez du jaten.**

- a) ikasletik
- b) ikaslerengatik
- c) ikasleengandik
- d) ikasleetatik

**52. Zein da zuzena?**

- a) Kasu, erori eginen zara eta!
- b) Kasu, erori eginen zarela!
- c) Kasu, erori eginen zarela eta!
- d) Kasu, eror zaitezten!

**53. Idazle horrek oso zorrotz jokatzan du bere testuak Interneten eta multimedia euskarrietan argitaratzeari ... kontratuetan.**

- a) dagozkien
- b) dagokien
- c) dagozkion
- d) dagokion

**54. Badatoz Mikel eta. Aukeratu erantzun egokia.**

- a) Garai onean!
- b) Ordu onetan!
- c) Tenore onean da!
- d) Denbora onean!

**55. "Gutunak heltzen diren heinean jasotzen ditut". Beste modu batean esanda:**

- a) Gutunak heldu ahala jasotzen ditut.
- b) Gutunak heldutakoan jasotzen ditut.
- c) Gutunak heltzen diren bezala jasotzen ditut.
- d) Gutunak heltzen diren bitartean jasotzen ditut.

**56. Nola idazten da 3.846.523?**

- a) Hiru milioi zortziehun eta berrogeitasei mila bostehun eta hogeitahiru
- b) Hiru miloi zortziehun eta berrogeita sei mila bostehun eta hogeita hiru
- c) Hiru miloi zortziehun eta berrogeita sei mila eta bostehun eta hogeita hiru
- d) Hiru milioi zortziehun eta berrogeita sei mila bostehun eta hogeita hiru

**57. Nire ustez Maite ez da hain altua, are gehiago esanen nuke nik:**

- a) Ameriketako Estatu Batuetako jokalariekiko, txikia da.
- b) Ameriketako Estatu Batuetako jokalaria aldean, txikia da.
- c) Ameriketako Estatu Batuetako jokalarien aldean, txikia da.
- d) Ameriketako Estatu Batuetako jokalarientzako, txikia da.

**58. Zein da zuzena?**

- a) Pisu batek diru asko kostatzen du.
- b) Jendeak ez dit begi onez ikusten.
- c) Neska-mutil horiek asko maite dira.
- d) Elurra ari duenez, oinez joanen gara.

**59. Bikote hauetatik zein ez dira sinonimoak?**

- a) makur - gaizto
- b) lotsagabe - petral
- c) petrikilo - sendalari
- d) buruarin - adimentsu

**60. Katuak ez dira nire gustukoak, are gehiago ...**

- a) beldurtzen didate.
- b) beldurra ematen naute.
- c) beldur diet.
- d) beldur naute.

**61. Erortzekotan egon zen, baina azkenean besoetatik heldu .... eta ez zen erori.**

- a) nuen
- b) nion
- c) nituen
- d) nintzaion

62. Bulegoan lankide bati lan bat biharko egiteko esan diozunean, honako hau erantzun dizu: "azkar eta ongi, usoak egiten du hegan". Zer esan nahi izan du esaldi honekin?
- a) Agintzen diozuna egiten duenerako, uso ugari pasatuko dela.
  - b) Azkar bezain ongi egiten saiatu, behintzat, egingo dela.
  - c) Gauzak ongi egin nahi badira, ezin dela presaka ibili.
  - d) Lana agintzerakoan, txorietan pentsatzen dabilela.
63. Zerbait egin da, baina gaurko egoera, .... , orain dela hamar urtekoa baino larriagoa da.
- a) azkenez
  - b) azken batean
  - c) azkenengo
  - d) azkenik
64. "Ez dakit gaur goizean zer gertatu den, baina arras jende gutxi etorri da orain bukatu dugun saiora." Erantzun egokia bilatu:
- a) Bai, jende anitz falta da.
  - b) Bai, jende anitz faltatzen da.
  - c) Bai, jende anitz falta ohi da.
  - d) Bai, jende anitz falta izan da.
65. Beñat oso hizlari ona da, edozein .... mintzatzen ahal da.
- a) gaiaz
  - b) gaietaz
  - c) gaitaz
  - d) gaiez
66. Ordenagailu berri bat ekarri dute eta non paratu inork ez dakienez, badaezpada ... gorde dugu.
- a) gurentzat
  - b) guretzako
  - c) guretako
  - d) gurentzako
67. "Barriolak ez du heldu den urteko txapelketa irabaziko."
- a) Irabaziko du. Noski baietz!
  - b) Ziur irabazten duen!
  - c) Baietz irabazten duela!
  - d) Irabaziko ez du, bada!

**68. Asko aldatu dira gauzak pilota munduan azken urteotan, zehatz .... Aspe eta Asegarce sortu zirenetik.**

- a) esan
- b) esaten
- c) esateaz
- d) esanda

**69. Asteburuan sagardotegian egon ginen eta gehiegi edan genuen, ...**

- a) berrogeita hamar litroen upela hustu genuen.
- b) berrogeita hamar litrotako upela hustu genuen.
- c) berrogeita hamar litroetako upela hustu genuen.
- d) berrogeita hamar litroko upela hustu genuen.

**70. Txile eta Brasil daude Hego Amerikako Barne Produktu Gordinaren ...**

- a) batez bestekotik gora.
- b) baten bestekotik gora.
- c) bataz bestekotik gora.
- d) batak bestekotik gora.

## II. ENTZUNAREN ULERMENA

*Entzungaia liburuari erantsirik datorren CDan dago eta haren transkripzioa liburuaren bukaerako eranskinean.*

### 71. EAEko Administrazioak hauxe nahi du:

- a) Nazio Batuen Erakundeak egindako aurreikuspenak EAEn ere betetzea.
- b) biztanleen % 50ek bi seme-alaba eta % 20k hiru seme-alaba edukitzea.
- c) EAEko jaiotza tasa 2,1era ahalik eta gehien hurbiltzea.
- d) datozen urteetan 2000. urtean gertatu zen % 4ko hazkundeari eustea.

### 72. Plangintzak bi kontu hauek uztartzen ditu:

- a) Familia eta lan arazoak.
- b) Laguntza ekonomikoa eta zerbitzuak.
- c) Lan ordutegiak eta laguntza ekonomikoak.
- d) Hartzaindegiak eta zerbitzuak.

### 73. Jaiotza tasak ez badu gora egiten, ...

- a) hamar urtean populazioa oraingoaren % 21 izanen da.
- b) erretiroa ordaintzea ezinezkoa izanen da.
- c) 2050ean bostetik bat laurogei urtetik gorakoa izanen da.
- d) lan egiteko gai direnak gero eta gutxiago izanen dira.

### 74. Plangintzaren arabera, lan egiten duten senar-emazteei Administrazioak dirua emanen die ...

- a) lana murriztuz gero eta diru galera konpentsatzeko.
- b) egun erdiz lan eginez gero eta haurrik ez izan arren.
- c) baldin eta lan egiteari guztiz uzten badiote.
- d) lan erdia eginez gero eta betiere soldata murriztu gabe.

### 75. Plangintzaren arabera, diru-laguntza zuzena ...

- a) edozein ume jaiotakoan emanen da.
- b) eta desgrabazioa ez dira bateragarriak izanen.
- c) umea jaio ondorengo urtean kobratuko da.
- d) ez da inolaz ere gauza berria EAEn.

### 76. Zerbitzuei dagokienez, ...

- a) 2-3 urte bitarteko guztiek tokia izanen dute hezkuntza sisteman.
- b) 2-3 urte bitartekoen % 70 eskolan dago matrikulaturik.
- c) 1-2 urte bitarteko gehienek tokia izanen dute hartzaindegian.
- d) 0-1 urte bitartekoen % 25 bakarrik geldituko da tokirik gabe.

**77. Haurtzaindegiak honelakoxeak izanen dira:**

- a) Publikoak, doakoak eta ordutegi malgukoak.
- b) Ez publikoak, ez pribatuak eta oso malguak.
- c) Pribatuak, tartekoak eta oso malguak.
- d) Oso malguak, pribatuak eta doakoak.

**78. Nafarroan 2000. urtean onartutako lege-dekretuaren arabera, ...**

- a) bigarren haurra izatean 300.000 pezeta baino gehiago ematen da.
- b) haur bat jaiotzean gurasoei beti diru-laguntza bera ematen zaie.
- c) EAEn aldi baterako lana uzteagatik edo murrizteagatik gehiago pagatzen da.
- d) gurasoetariko batek aldi baterako lana utziz gero, 35.000 pezeta ematen zaio.

**79. Iparraldean ...**

- a) hiru seme-alaba dituenak 4.000 liberako (100.000 pta diru-laguntza kobratzen du.
- b) haur bakarra dutenek 35.000 pezeta inguruko laguntza jasotzen dute.
- c) gurasoei bestelako laguntzak ematen zaizkie, ez zuzeneko laguntzarik.
- d) laguntza mota asko ematen zaizkie gurasoei, pisua alokatzekoa, kasu.

**80. Esaldi hauetako zeinek laburbiltzen du ongien entzundakoa?**

- a) Jaiotza tasa areagotzeko neurrien berri ematen da.
- b) Jaiotza tasa dela eta, Euskal Herriko administrazioen jokabideen arteko konparazioa egiten da.
- c) EAEko populazioaren arazo nagusietako bat azaltzen da.
- d) EAEn beste baby boom bat lortzeko neurriak azaltzen dira.

### III. IRAKURRIAREN ULERMENA (I) GALDERAK

#### 81. Stephen J. Gould zientziaren "ipuin-kontalari"aren ustez ...

- a) eboluzioaren teoria neodarwinista erabat kritikatzekoa da; hori dela eta, 1972an Niles Eldredgerekin elkartu eta "krezionismoa eta oreka taiduna" izeneko teoria plazaratu zuen.
- b) eboluzioaren teoria neodarwinista gizakiaren ahalmen kognitiboen eboluziorako adaptazio-eredu egokia da.
- c) eboluzioaren teoria neodarwinista garatuz lortu da oreka taiduna azaltzea.
- d) eboluzioaren teoria neodarwinista erabat kritikatzekoa da, gizakiaren ahalmen kognitiboen eboluziorako adaptazio-eredu hertsia delako.

#### 82. Oreka taidunaren arabera, ...

- a) eboluzioa bat-batean gertatzen diren aldaketa bortitzen ondorioa ez ezik, denbora laburrean izandako eten espezializatuen eragina ere bada.
- b) eboluzioan aldaketa bortitz ugari gertatzen dira. Horren ondorioz, eten laburrak sortzen dira gertakari horien artean.
- c) eboluzioa pixkanaka-pixkanaka moldatzearen ondorioz, galdu diren espezieen aldaketa behartuz sortu da.
- d) eboluzioa bat-batean gertatzen diren aldaketa bortitzen eraginez sortzen da.

#### 83. Stephen J. Gouldek hau dio:

- a) Bizitzaren historia gauza konplexua bada ere, mekanismo sinple bakarra aurkitzea espero genezake hori ulertzeko.
- b) Bizitzaren historia hain da konplexua non ez baitezakegu mekanismo sinple bakar batez azal.
- c) Bizitzaren historia oso konplexua denez, azaldu ahal izateko historiako mekanismo konplexuenera jo behar da.
- d) Bizitzaren historia konplexua izanagatik, mekanismo bakar sinpleenaren bidez azal daiteke.

#### 84. Ondorengo baieztapenen artean aukeratu egokiena: Goulden ustez, ...

- a) Darwinen teoriak oso ongi azaltzen ditu, besteak beste, zergatik dauden organismoak une bakoitzean ingurunera hain ondo moldatuta edo zergatik egiten duten eskuek lan, baina beste zenbait aldaketa alboratu egiten ditu.
- b) geneen kopia neutroak edo genomaren izaera edo geneen hainbat eta hainbat kopia izatea azaltzeko Darwinen hautespen naturala ez den beste eboluzio mota baten beharra dago.
- c) teorien artean ez dezakegu alborakuntzaz hitz egin, jarraipenaz baizik. Izan ere, eskolan Darwinen eboluzioaren teoria irakasten da eta neutralismoa, eboluzio ez-adaptatiboa, neodarwinismoa edo oreka taiduna unibertsitatean.
- d) Darwinen teoria abiapuntu egokia da eskoletan lehen aldiz eboluzioa irakasteko, hori baita muina eta horren ondorio baitira gainerako teoria guztiak.

**85. Darwin, eboluzioaren teoriaren gainean ...**

- a) kontrako iritzi asko entzun behar izanagatik, hainbat karikaturatan irudikatuta plazaratu zuten.
- b) kontrako iritzi asko entzun behar izanagatik, hainbat karikaturatan ere irudikatu zuten.
- c) kontrako iritzi asko entzun behar izateagatik, hainbat karikaturatan irudikatu zuten.
- d) kontrako iritzi asko entzun ez ezik, hainbat karikaturatan ere irudikatu zuten.

**86. Jendeari zaila egiten zaio denbora-eskala geologikoa ulertzea ...**

- a) espeziazioa milaka urtekoa izaten ahal den arren, aldaketak ez direlako oso geldoak.
- b) gure 70-80 urteko bizitza-luzera eta denbora-eskala geologikoa parekaezinak direlako.
- c) 70-80 urteko bizitza-luzeraren arabera neurtzen dugulako (profesionalak barne) eta gaur egun, oro har, jendea urte gehiagoz bizi izaten delako.
- d) espeziazio jakin batek aldatzeko 3.000 urte har ditzakeelako, eta hori oso geldo da guk sakon aztertu ahal izateko.

**87. Zergatik dio Gouldek jendea nahasi egiten dela Darwinek moldatzeaz hitz egiten duenean?**

- a) Jendeak pentsatzen duelako hurbileko ingurura hobeto moldatzeak ez duela nahitaez aldaketa bat eskatzen.
- b) Hori delako aldaketa bat eskatzen ez duen moldatzearen inguruko teoria bakarra.
- c) Darwinen ingurune lokaleko jendeak bizitzaren historiaren hobekuntza teoria horren ildotik lortzen ahal dugula pentsatzen duelako.
- d) Berez hala ez izan arren, jendeak bizitzaren historian hobekuntza legez ikusten duelako.

**88. Zein da EGIA?**

- a) Bizitzaren historian geure burua garapenaren buru gisa ikustea emozionalki zaila denez, ez zaigu batere atsegin.
- b) Bizitzaren historia gauza progresibo eta auresangarri gisa ikustera garamatzate ditugun tradizio sozial gogorrek.
- c) Bizitzaren historian geure burua garapenaren buru gisa ikustearen ondorioz, historia gauza progresibo eta auresangarri gisa ikusten dugu.
- d) Bizitzaren historian geure burua garapenaren buru gisa ikusteak tradizio sozial gogorrek izatera garamatza.



**89. Ikuspegi klasikoaren aburuz, taxonak gutxi izatetik asko eta garatuagoak izatera aldatzen dira.**

- a) Hori, ordea, duela 500 milioi urtetik gaur egunera baino ez da gertatu.
- b) Hori, ordea, nahiko atzera jo eta bakterioetatik hasiz gero gertatzen da.
- c) Halaber, 500 milioi urteotan oinarrizko eredu berak izateak kordatuak ere animalia konplexuen hasieratik zeudela baieztatzera zuzentzen gaitu.
- d) Izan ere, askotan gure pertzepzioa denbora izugarri zabalean mugitzen da, horregatik filum-kopurua ere bera dela baieztatu dezakegu.

**90. Burgess Shale toki garrantzitsua izan da Goulden ikerketetan.**

- a) Fossil-erregistro horretan lehenengo animalien erregistro guztiak aurkitu zituztelako.
- b) Normalean gertatzen ez den moduan, fossil-erregistro horretan maskorrek eta zati gogorrek besterik ez delako aurkitzen.
- c) Normalean gertatzen den moduan, fossil-erregistro horretan maskorrek eta zati gogorrek aurkitzen direlako, baina ez da uretako faunaren benetako dibertsitatearen maila ikusten.
- d) Normalean gertatzen ez den moduan, fossil-erregistro horretan maskorrek eta zati gogorrek ez ezik, uretako faunaren benetako dibertsitatearen maila ere ikusten delako.

### III. IRAKURRIAREN ULERMENA (II) TESTUA

**STEPHEN J. GOULD: zientziaren “ipuin-kontalaria”**  
*Elhuyar aldizkaria, 2002ko urtarrila (moldatua)*

#### HIZTEGIA

**Oreka taiduna:** etenak dituen oreka (tai = eten).

**Aurresangarria:** aurrez ikus daitekeena.

**Filuma:** sistema genetikoetan, oinarrizko forma batetik eratorritako organismoen saila.

**Taxona:** *Biol.* Bizidunen sailkapenean definitutako unitateetako bakoitza (klasea, ordena, familia, etab.).

**Espeziazioa:** espezieen sorrera eragiten duen prozesu biologikoa.

**Kordatua:** *Zool.* Nerbio-kordoi dorsaleko huts bat, gorputzaren aurrealdeko atzealderaino doan notokorda izeneko sostengu-organoa, uzkiaren atzean gelditzen den isats bat, zatkatzarailak eta alde biko simetria dituzten animaliez esaten da.

Zientzialari on asko dago munduan, baina ez dira asko beren ideiak ongi transmititzen dakitenak, eta are gutxiago ideia horiek publiko orokorrari transmititzen dakitenak. Stephen Jay Gould, ordea, langintza horretan asmatu dutenetakoa da.

Gould eboluzioaren eta giza adimenaren alorretan ekarpen handiak egin dituen zientzialaria ere bada. Eboluzioaren teoria neodarwinista, berak gizakiaren ahalmen kognitiboaren eboluziorako adaptazio-eredu hertsizat duena, biziki kritikatu (zer esanik ez krezionismoa) eta 1972an Niles Eldredge-rekin batera “oreka taiduna” izeneko teoria plazaratu zuen. Teoria horren arabera, eboluzioa ez da pixkanakako moldatze geldoen ondorioa, bat-bateko aldaketa bortitzen ondorioa baizik. Eboluzioa etena da, bere ustez, denbora laburrean izandako gertakariak eragiten baitute espezializazioa.

Guk Stephen Jay Gouldekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta hemen dituzue kontatu zizkigunak.

Besteak beste, jakina da *oreka taiduna* izeneko teoria plazaratu aurretik, Darwinen eboluzioaren teoria zela biziaren historia azaltzeko onartuena, baina baziren beste ikuspuntu batzuk ere (neutralismoa, eboluzio ez-adaptatiboa, neodarwinismoa bera...). Oreka taidunaren teoria plazaratzean arrakasta handia izan zuen, baina eztabaidak ez ziren amaitu, jarraitu egin zuten, eta horrek argitu baino gehiago nahasketa areagotu ez ote zuen egin galdetzean harritu egin da. Neurri batean horrela izan daitekeela esan du, “baina bizitza konplexua da eta bizitzaren historia bezalako gauza konplexuetan, ezin genezake espero hori azaltzeko mekanismo sinple bakarra egotea”. Ez du uste “organismoak moldatuko dituen hautespen naturala bezalako mekanismoek, edo aldaketa handiak lortzeko denbora luzean gertatuko diren aldaketa geldoko prozesuek, edo aldaketa txikien metaketaren bidezko prozesuek azal dezaketarik hain sistema konplexua”. Azalpen guztiak uztartzen lan zaila izan daitekeela esan du, baina Darwinen hautespen naturalarekin arazorik ez duen arren, ez deritzo nahikoa biziaren historia azaltzeko.

Hori horrela izanik ere, eskolan Darwinen eboluzioaren teoria irakasten dela azaldu diogu eta beste teoriaren berri izateko (neutralismoa, eboluzio ez-adaptatiboa, neodarwinismoa, krezionismoa edo oreka taiduna bera) unibertsitatara jo behar dugula. Beraz, edo teoria batzuk besteekiko alboratu egiten direla, edo Darwinen teoria gainerakoak ulertzeko abiapuntu egokia dela ondoriozta litekeela aipatu dugu. Bera, ordea, ez dago alboratzearen ustearekin ados. Bere aburuz, Darwinen teoriak gauza asko

azaltzen ditu, besteak beste zergatik dauden organismoak une bakoitzean ingurunera hain ondo moldatuta edo zergatik egiten duten eskuek lan azaltzeko, baina, esaterako, genomaren izaera edo geneen hainbat eta hainbat kopia izatea edo geneen kopia neutroak izatea azaltzeko beste eboluzio-mota baten beharra ikusten du, "hori ez da Darwinen hautespen naturala". Dena den, eskoletan lehen aldiz eboluzioa irakastean Darwinen teoria abiapuntu egokia dela deritzo, hori baita muina.

Darwinek eboluzioaren teoriak plazaratu zituenean, kontrako iritzia asko entzun behar izan zituen eta hainbat karikaturatan irudikatu zuten. Teoria horren arabera, bizidunok hainbat aldaketa txikiren bidez eboluzionatzen dugu eta moldatzen gara ingurunera. Aldaketa txiki horiek oso denbora-eskala luzean gertatzen direla esan zuen. Oso abiadura geldoan gertatzen dira. Urte batzuen ondoren ia mundu guztiak onartu zuen teoria hura, eta gaur egun jarraitzaile sutsuak ere baditu. Hala ere, Gouldek eta Eldredgek oreka taidunaren teoria plazaratu zuten duela 25 urte inguru. Teoria horrek ez du eboluzioa geldoa ukatzen, baina biziaren historian askoz abiadura azkarragoko etenak gertatu direla dio, baita ia bizidun-mota konplexu guztiak hasieratik sortu zirela ere.

Darwinen eta oreka taidunaren artean hiru desberdintasun nabarmen aipatu ditzkiogu. Lehena denbora-eskala izan daiteke. Eta horren inguruan lehen arazoa denbora-eskala geologikoarena dela esan du. Izan ere, jendea zaila egiten zaio eskala hori ulertzea, "profesionalok ere akatsak egiten ditugu etengabe, zeren beti gure bizitzaren eskalarekin neurtzen dugu, 70-80 urteko bizitza luzerarekin. Ezinezkoa zaigu milioika urteko terminotan pentsatzea". Adibidez, bere ustez oreka taiduna ez da bat-bateko aldaketan inguruko teoria, espeziazioak nola lan egiten duen azaltzen duen teoria baizik (nola sortzen diren espezie berriak taldeen bakartzeaz, jatorrizko taldetik banandu eta eboluzionatuz). "Espeziazio hori milaka urtekoa izan daitekeenez, oreka taidunean ere aldaketak oso-oso geldoak irudi dakizkiguke, gradualismoan bezain geldoak, baina datu geologikoetara jo eta espeziazio jakin batek 3.000 urte hartzen dituela ikusten badugu, hori bat-bateko aldaketa da".

Bigarren desberdintasuna ikuspuntuarena izan daiteke, Darwinen eboluzioa askotan nolabaiteko helburu, direkzionalitate edo hoberako moldapen gisa interpretatzen baita... "Hoberakoa bai, baina ingurune lokalean soilik; ohiko nahasketa da hori, jendeak askotan egiten duena". Darwinek moldatzeaz hitz egiten duela eta jendea nahastu egiten dela uste du, bizitzaren historian hobekuntza gisa ikusten baitu jendeak, baina berez ez da hori. "Hurbileko ingurura hobeto moldatzearen inguruko teoria da soilik, nahitaez aldaketa bat eskatzen ez duena. Darwinen eboluzioak ez dauka direkzionalitate edo aurresangarritasunik, inguru hurbilenera (denboran eta espazioan) moldatzea besterik ez da. Eguraldia hotzagoa bada animaliak molda daitezke, baina ondoren berriz epel deza... ezin dute epe luzera iragarri".

Dena den, hori jendearentzat ulertzeko zail samarra ote den, edo ikuspuntu klasikoarekiko aldaketa handiegitarra ez ote den aipatu eta ulertzeko zailtasunik ez duela erantzun du. Bere ustez oso tradizio sozial gogorrak ditugu eta atsegina zaigu bizitzaren historia gauza progresibo eta aurresangarri gisa ikustea, eta geure burua garapenaren buru gisa ikustea, noski. "Ez da zailtasun naturala, nik uste emozionalki dela zaila".

Hirugarren desberdintasun gisa taxon-kopurua eta hauen izaera aipatu ditugu. Ikuspegi klasikoan taxonak gutxitik ugari eta garatuagoetara aldatzen direla izaten da as-

kotan gure pertzepzioa. "Tira... denbora izugarri luzean bai; nahikoa atzera jo eta bakterioetatik hasiz gero, baina ez 500 milioi urteotan. 500 milioi urteotan oinarrizko eredu berak ditugu". Kordatuak ere hasieratik zeuden, "bai behintzat animalia konplexuen hasieratik". Filum-kopurua ere bera da. "(...) Espezie gehiago dago gaur egun, animalia-mota gehiago dago, baina filum nagusi berak garatu dira garai kanbriarretik hona, salbuespen batekin; brio zooak, garai ordo bizikoan (kanbriarren hurrengoan) agertu ziren. Gainerakoan, filum guztiak oso goiz agertu ziren biziaren historian".

Azkenik, bukatze aldera oreka taidunaren gaia apur bat alde batera utzita, Burgess Shale aipatu dugu. Izan ere, toki garrantzitsua izan da Goulden ikerketetan. Baina, noski, gehienok ez dugu ezagutzen eta paleontologo ez garenok non dagoen eta zer duen azaltzeko eskatu diogu. Kanadan dagoela eta oso toki polita dela esanez hura laudatzen hasi da, baina bertan zer kontserbatu den da garrantzitsua. "Normalean fosil-erregistroetan maskorrak eta zati gogorrak besterik ez da aurkitzen, eta ez da uretako faunaren benetako dibertsitatearen maila ikusten. Baina Burgess Shalek ia lehenengo bizidunak agertu ondorengo erregistroak ditu animalia filum guztietan, eta zati bigunak ere oso ongi kontserbatuta daudenez benetako dibertsitatea ikus daiteke. Horregatik da garrantzitsua".

## I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. a	16. b	31. d	46. b	61. b
2. d	17. c	32. c	47. c	62. c
3. b	18. b	33. d	48. a	63. b
4. d	19. b	34. c	49. b	64. d
5. b	20. a	35. c	50. b	65. d
6. d	21. c	36. d	51. a	66. c
7. d	22. c	37. b	52. a	67. d
8. c	23. b	38. a	53. c	68. d
9. a	24. b	39. d	54. a	69. d
10. d	25. b	40. a	55. a	70. a
11. d	26. a	41. c	56. d	
12. c	27. b	42. a	57. c	
13. b	28. c	43. d	58. d	
14. a	29. c	44. a	59. d	
15. c	30. c	45. d	60. c	

## II. ENTZUNAREN ULERMENA

1. c	6. a
2. b	7. b
3. d	8. a
4. a	9. d
5. b	10. a

## III. IRAKURRIAREN ULERMENA

1. d	6. b
2. d	7. d
3. b	8. b
4. b	9. b
5. d	10. d



# EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

## PROBA IDATZIA

### Ohar garrantzitsuak

- Azterketa honek 10 orri ditu, 2 multzotan banaturik.
- Ez jarri izenik edo sinadurarik azterketa orrietan.
- Idazteko boligrafo beltza edo urdin iluna erabili.

<i>Proba idatzia</i>		<i>Puntu Kopurua</i>	
		<i>Gehienez</i>	<i>Gutxienez</i>
Idazlan laburra	100 hitz, gutxienez, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe. 2 GAI aukeran.	10	5
Idazlan luzea	300 hitz, gutxienez. 3 GAI aukeran.	30	15
Azterketa osoa gainditzeko, GUTXIENEZ, 22 puntu atera behar dira.			

## IDAZLAN LABURRA

- \* Proposatzen diren bi gaien artean **bat** aukeratu behar duzu.
- \* Idazlana, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe, **gutxienez, 100** hitzekoa izanen da (15-20 lerro).
- \* Proba honetan gauzak zehatz adierazteko gaitasuna baloratu nahi dugu. Hortaz, estu-estu lotu «Gaia», «Egitekoa» eta, batez ere, «Nahitaez eman behar duzun informazioa» izeneko atalei. **Labur eta argi** adierazi azaldu beharrekoa, alferrik luzatu gabe. Ez ahaztu atal honetan zuzentasun handia eskatuko zaizula.

### 1. idazlana

---



#### Gaia:

Aspaldian egindako plana aldatu duzu eta orain laguna konbentzitu behar plan berria onar dezan.

#### Egitekoa:

Aspaldi honetan zurekin Donostiara joateko irrikaz dagoen laguna konbentzitu behar duzu. Horretarako, idatz iezaiozu eskutitz bat.

#### Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ▶ Plan aldaketaren zergatiak esplikatu.
- ▶ Plan berriaren nondik norako interesgarrienak azaldu.
- ▶ Konbentzitzen saiatu.

### 2. idazlana

---

#### Gaia:

Zure elkartean satellite bidezko telebista jartzea.

#### Egitekoa:

Elkartearen egoitzan duzuen telebistan ohiko kateak bakarrik ikus daitezkeenez, satellite bidezko telebista paratzeko eskaera-gutuna idatzi nahi diozu elkarteko zuzendariari.

#### Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ▶ Ez zara hori nahi duen bakarra.
- ▶ Zergatiak edota zertarako nahi duzuen argi azaldu.
- ▶ Gaiaz mintzatzeko bazkide guztien arteko bilera proposatu.





## IDAZLAN LUZEA

### OHARRAK:

- \* Proposatzen diren hiru gaien artean bat aukeratu behar duzu.
- \* Idazlanak **300 hitz** eduki behar ditu, **gutxienez**.
- \* Idazlana egiteko orri hauetako informazioa erabiltzea aukerakoa da. Beraz, ez zaude erabiltzera beharturik.
- \* Proba honetan gaia garatzeko duzun gaitasuna erakutsi behar duzu.
- \* Gogora ezazu ezin duzula zure benetako izena erabili sinatzeko.
- \* Proba baloratzeko lau alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, testuaren antolaketa (koherentzia eta kohesioa), egokitasuna eta aberastasuna.

## 1. GAIA

### AMATASUN BERANTIARRA

Suedian jaiotza-politika eraginkorra dute: haurtzaindegi sareak, umeak zaintzeko erraztasunak lanean... Hemen laguntza ekonomikoa baino ez da, eta oso murrizta, gainera.



"Seme-alabak berandu izaten dituzten gurasoak sobera permisiboak izaten dira. Gehiegi babesteko eta eskatzen duten guztia emateko joera izaten dute."

Espainiako bikoteen % 11k emakumeak 35 urte bete ondoren izaten du lehen umea. Ingalaterran 40 eta 44 urte bitarteko haurdunaldiak % 60 hazi dira azken 20 urteetan.

### Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Gaur egun normala da amatasuna hogeita hamar urte bete arte atzeratzea.
- ▶ Heziketa akademiko luzea, lanean hobetu nahia, langabezia, baliabide ekonomiko falta, eta abar izan daitezke, besteak beste, arrazoiak.
- ▶ Amatasuna ezberdin bizi izaten da 30 urtetik gora. Seme-alabak gehiago desiratzen omen dira.

## 2. GAIA LAN SEGURTASUNA

Espanian egun bakoitzeko 3-4 lagun hiltzen dira istripuz; Europar Batasunean baino hiru aldiz gehiago.



Legeari kasu eginez gero, istripuen % 90 saihets daiteke. Enpresaburuen % 54k lan arriskuaren aurre-ebaluaziorik ez du egiten, eta langileen % 11,3k baino ez du istripu prebentzioaren gainean beharrezko prestakuntzarik.

Administrazioak legea betearazi beharko luke, enpresaburuek makineria zaharberritzen inbertitu beharko lukete...

**Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:**


- ▶ Gero eta lan ezbehar gehiago dugu Euskal Herrian. Iaz 130.000 lan istripu gertatu ziren.
- ▶ Lan egoerak ba omen du zerikusia. Iaz Euskal Herrian izenpetutako kontratuen % 80 hiru hilabete baino gutxiagokoak izan ziren.
- ▶ Lan istripuen kopuru altua prebentzio kultura ezari egozten diote adituek.

### 3. GAIA TELEBISTA

80ko hamarkadan profesionalek egindako telebista zegoen, eta 90ekoan ikusleen telebista izatera pasatu da. Horren lekuko ditugu reality show eta El Gran Hermano bezalako saioak.

Telebistaren hasierako urteetan estatu bakoitzean kate bakarra zegoen. Orain oso eskaintza zabala dugu.

Herri aldizkariak arrakastaz egin diren bezala, herri telebistak ere hasi dira beren bidea egiten. Nafarroan Xaloa eta Ttipi-Ttapa aitzindariak dira. Euskara indartzeko baliabide interesgarriak izan daitezke.



#### Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Espainiako Estatuan etxebizitzaren % 52tan bi telebista edo gehiago daude.
- ▶ Bada telebistak funtzio hezitzailea eduki behar duela esaten duenik.
- ▶ Telebista munduari begira dagoen leihoa da. Aagian XX. mendeak eman duen asmakizunik handiena.



**III**

**Ahozko proba**



# AHOZKO GIDA

Azterketa hirunaka egingo duzue eta hurrengo bi ariketei aurre egin beharko diezue:

# 1

## Irakurriaren azalpena

Ariketa honen  
euskarria



Artikulua

Eman zaizun testua irakurri eta tribunalaren aurrean, taldeko hirurok batera zaudetela, horren azalpena egin beharko duzu. Hirurok gai bera duzue, baina artikulua desberdinak. Zuk zurea azalduko duzu.

20 minutu dituzu irakurtzeko eta 5 minutu azalpena egiteko epaimahaiaren aurrean.

**Prestaketarako: 20 minutu. Solasean: 5 minutu**

# 2

## Taldeko eztabaida

Ariketa honen  
euskarria



Gidoia

(Tribunalaren aurrean zaudela emango zaizu gidoia)

Taldekide bakoitzak bere artikulua azaldu ondoren, gaiaren inguruko eztabaida sortu beharko duzue. Horretarako, lagungarri izango zaizuen gidoia emango zaizue. Bertan, elkarrizketa pizteko galderak dituzue.

Hasteko, lehenengo galderaren inguruan mintzatuko zarete, gero bigarrenaren inguruan eta horrela segituko duzue 10 minutuak bete arte.

Galderak zuen arteko eztabaida lortzeko pentsatuak daude. Hartara, zuek ikusi noiz pasatu nahi duzuen hurrengora: galdera erantzunda dagoenean edo gehiagorako ematen ez duenean.

**Bat-batean. Solasean: hiruren artean, 10 minutu.**





### ETORKINAK: HIZKUNTZAK ETA LANA

---

Hizkuntza bakarra zen garaian, ekialdetik etorritakoak Shinarko lurretan finkatu eta elkarri esan zioten: "Eraiki dezagun herri bat eta dorre bat, zerura iritsiko dena". Eta Jehova herria ikustera jaitsi zenean, dorrea eraikitzea harrokeria izugarria iruditu zitzaionez, erabaki bat hartu zuen: hizkuntza desberdinak hitz eginaraztea, ondokoak zioena ulertzeko modurik ez izateko.

Horrela, Lur osoko hizkuntzak bereizirik eta herritarrak sakabanaturik geratu ziren.

---

### ETORKINAK BILBOKO SAN FRANTZISKO AUZOAN

#### Beatriz Diaz, Bilboko San Frantzisko auzoko bizilaguna

Euskal Herria ez da salbuespena. Gure artean ere nekez onartzen ditugu etorkinak, gero eta gehiago diren arren. Benetako egoera zertan den jakiteko, Bilbora hurbildu gara, bertako auzokidea den Beatriz Diazen eskutik. Hasteko, etorkinek beste hizkuntza bat ikasi behar dutela kontuan hartu dugu eta hizkuntzen erabilerari erreparatu.

#### Hizkuntzen erabilera

Bilboko San Frantzisko da erlijio gehien praktikatzen eta hizkuntza gehien mintzatzten den auzoa. Jende askok, batez ere afrikarrek, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dute eguneroko solasaldietan, solaskide berberarekin ere bai.

Idazketari dagokionez, hizkuntza afrikarrek ez dute idatzizko tradiziorik (horrek ez du esan nahi, ordea, literaturarik ez dutenik). Orainsu arte, historia, ipuinak, mitoak, tradizioak eta herri bakoitzeko pasadizoak ahoz aho transmititzen ziren. Bazeuden leku guztietan herri osoaren begirunea merezi zuten pertsonak, ezagutza horiek buruan gorde eta besteei transmititzen zizkietenak. Oraindik ere horrela jarraitzen dute, nahiz eta komunikabide modernoak gero eta gehiago erabiltzen dituzten, irrati-telebista eta prentsa batez ere.

## Ali (salerosle ganbiarra)

Tambassan jaioa da. Tambassaren parean *mandinga*-herri bat bizi da. Hiritik kanpoko inguruetan, artzain-talde *peul* bat dago aspalditik finkatuta. Hurbilen dagoen hiriburuan salerosle *wolof* asko daude eta *diola*-herrixkak ere bai. Dendarik handienak *arabiarren* eskuetan daude. Ali-k arabiera Tambassan dagoen eskola koranikoan ikasi zuen; bada hirian ingelesa ikasteko eskola bat ere.

Horregatik Ali hizkuntza anitzetan mintzatzen da: *ingelese*, *euskaraz*, *gaztelaniaz*, *arabieraz*, *frantsesez*, *wolofez*, *mandingaz* eta *sarakolez*. Hala ere, jende askok uste du "beltzak ez dakiela hitz egiten edo ez duela deus ere ulertzen". Hori dela eta, txorakeria franko entzun behar izaten dute, hizkuntza bat edo agian bi besterik erabiltzen ez dakienaren ahotik.

## Momudu

Goizean esnatu bezain laster, bere otoitzak egiteko *arabiera*, Koraneko hizkuntza, erabiltzen du; etxebizitzako kideekin *wolof* beren ama-hizkuntza; azoka txikian gaztelania, beste salerosle marokoarrek eta aljeriarrek frantses-arabiera nahasia. Eguerdian bere herritarrek bazkaltzen du eta *wolof* hizkuntzan mintzatzen da telebistako gaztelaniazko albisteak komentatzeko. Arratsaldeko bostak aldean arabieraz egiten du berriro bere otoitza. Kalera salgai bila eta auzoko kideekin egotera ateratzen denean hizkuntza anitz erabiltzen ditu, solaskidearen hizkuntza zein den: *wolofa*, *frantsesa*, *gaztelania* edo *arabiera*.

Legez kontrako edo ez-moraltzat jotzen diren gauzak salerosten aritzen direnek (legez kontrako maila apaleko drogak, pertsonen trafikoa edo prostituzioa) kontuz ibili behar izaten dute ingurukoekin, eta jendeak ulertzen ez dituen hizkuntzetan mintzatzen dira.

**Demba, Malin jaiotako marinel gaztea:** duela urtebete San Frantzisko auzoan bizi da. Demba *bambara* herrikoa da eta hainbat herrialdetako marinel batzuekin batera bizi da, senegaldar *serere*, *diola*, *peul* eta *mandingekin*. *Wolof* mintzaira erabiltzen dute etxean, nahiz eta inoren ama-hizkuntza ez izan, hori baita Senegalen hedatuen dagoen hizkuntza; oker edo zuzen, aski ongi moldatzen dira elkarrekin hitz egiteko. Oraindik orain Baba, Maliko gazte *bambara*, etorri zen auzora. Zalantza-izpirik gabe Dembak lekutxo bat egin zion etxean oso estu bizi ziren arren (gela bakoitzean pertsona bat baino gehiago beti, askotan koltxoia ere partekatu beharrean).

Batzuetan itzultzaile batengana jotzen dute zenbait zereginetarako, ez baitute behar hainbateko hizkuntz mailarik edo bere buruarekiko konfiantzarik: medikuarengana edo guardiako epaitegira joan behar dutenean, edo norbaitek neskaren bati gustukoa duela deklaratzeko. Batzuetan ez da itzulpen kontua soilik izaten, larruazalaren koloreari lotzen zaion azentua ezkutatu nahia edo beharra baizik. Esate baterako, etxe bat errentan hartzeko.

### ETORKINAK: HIZKUNTZAK ETA LANA

---

Hizkuntza bakarra zen garaian, ekialdetik etorritakoak Shinarko lurretan finkatu eta elkarri esan zioten: "Eraiki dezagun herri bat eta dorre bat, zerura iritsiko dena". Eta Jehova herria ikustera jaitsi zenean, dorrea eraikitzea harrokeria izugarria iruditu zitzaionez, erabaki bat hartu zuen: hizkuntza desberdinak hitz eginaraztea, ondokoak zioena ulertzeko modurik ez izateko.

Horrela, Lur osoko hizkuntzak bereizirik eta herritarrak sakabanaturik geratu ziren.

---

### ETORKINAK BILBOKO SAN FRANTZISKO AUZOAN

Auzo horretan hizkuntza eta kultura hain desberdinak elkarrekin bizi direnez, ezinbestez sortzen dira komunikazio-arazoak ere. Gaizki ulertuak eta konfiantzarik ezak sor ditzaketen sesioak errazago saihestu ditzakete hizkuntza anitz ezagutzen dituztenek. Im-migrazio-kontuetan eskarmentu handiagoa duena eta gaztelaniaz hobeto mintzatzen dena erreferentzia-gune eta bitarteko bihurtu daiteke gestio askotan.

#### **Rose, Nigeriako emakume gaztea, John bere herrikideaz mintzo:**

"Bilbon emakume nigeriar asko bizi gara. Batzuek zenbait urte egin ditugu hemen, baina ez dugu gaztelania ondo ikasi. Gu ingelesez mintzatzen gara, eta zaila egiten zaigu gaztelania ikastea. Egun osoan tabernan sartuta lanean, eta gestioaren bat egin behar dugunean ez gara ondo moldatzen: dokumenturen bat berriro behar denean, edo zerbait bidali nahi dugunean. Askok Johnengana jotzen dugu: itzuli egiten dizu, esplikatzen lagundu. Ia ezagutzen ez bazaitu ere, beti egoten da laguntzeko prest."

Batzuk bakarrik joaten dira, eta egoera jakin batzuetan, "*Helduen Hezkuntzarako Ikastetxe Berezi*" batera gaztelania ikastera.

### **Aisha marokoarra:**

“Si tú quieres prender hablar, lo que tienes que hacer es hablar con la gente en la calle. (...) Cuando no tienes más remedio es cuando prendes.”

### **Sergio senegaldarra:**

*Wolof* hizkuntzaz hitz egiten du eta kaleko salerosketan aritzen da. Honela mintzo zaigu:

“Para vender la calle no hace falta hablar castellano. Es mejor si no sabes. Mucho mejor, porque la gente compra más. Piensan que no tiendes y que te pueden gañar, y compran más. Pero no gaña la gente, no. No nesitas castellano, sólo la calculadora. Haces la cuenta, cobras y ya está.”

Aishak klubetan lan eginez ikasi zuen gaztelania. Sergiok, Bizkaiko herrietako kale eta tabernetan. Bizimodua ateratzeko saldu beharrak bultzatu zituen gaztelania ikastera. Aishak eta Sergiok bezala, auzoko kanpotarrek eguneroko martxan ikasten dituzte hizkuntzak. Dembak marinel euskaldunekin ikasi zuen gaztelania. Johnek kartzelan hobetu egin zuen; beste batzuek Almeriako “plastikozko itsasoan” lortu zuten ikastea, gizonetakoek emakume espainiarren batekin edo alderantziz; beste batzuek etxean bizi ziren hizkuntza desberdineko kideekin. Askok erosketak egiteko bakarrik erabiltzen dute gaztelania eta ama-hizkuntza gaztelania ez duten eta lanean edo aisialdian elkarrekin ibiltzen diren pertsonekin. Horregatik, bakoitzak bere hizkera berezia eta propioa du, etorkin gisa egin duen ibilbidearen arabera.

### **Jon senegaldarra**

Jonek aski ongi hitz egiten du gaztelaniaz, Tarragonako eta Bilboko ostatueta, etxebizitzetan eta kartzeletan hamabost urtez ibili eta gero. Batzuetan, gaztelaniaz mintzatzen denean, “mané” esanez hasten da (*wolof*-ez “hau da” esan nahi du) eta “rek” beste makulu-hitz batekin amaitzen du (“besterik gabe” esan nahi du). Ahapetik kantatzen dituen abestiak, esaerak eta errefrauek, ingelesez ateratzen zaizkio, txikitik ingeleza ikasi baitzuen; diosalak eta agurrak, berriz, euskaraz.

San Frantzisko auzoan gertatzen denak adierazten digu hizkuntzak ez direla ikastaroetan bakarrik ikasten; eta beste kulturak eta ikuspuntuak trukatzeko ez dela norbere herrialdetik edo hiritik urrutira joan behar; aski dela inguruko jendeari erreparatzea, entzutea eta harekin hitz egitea. Horixe da Bilboko San Frantzisko auzoko etorkinek hizkuntzak ikasteko erabiltzen duten metodoa.

### ETORKINAK: HIZKUNTZAK ETA LANA

#### ETORKINAK ETA LANA

Gaur egun, askoz ere etorkin gehiago daude gure artean, zeren lan eskaintza handitu egin da sektore berrietan eta hemengo jendeak egin nahi ez dituen lanetan. Marinel senegaldar asko daude gure kostako herrietan, arrantzari lotutako lanetan. Etorkin asko eraikuntzan, baso-lanetan, fabriketan (kautxua, arraina, haragia saltzeko prestatzen) edo supermerkatuetan (*Mercabilbao*, *Eroski*) aritzen dira. Beste asko igeltserotzan aritzen dira, edo maila apaleko droga-trafikoan, elektrizitatean, iturgintzan, okindegietan, gozotegietan, zurgintzan, itzultzaile-lanetan, hizkuntzak edo dantzak irakasten, lorezaintzan edo musikari gisa.

Etorkin askok ofizioz aldatu behar izan dute. Badaude abokatuak, gizaseme nahiz emakume, zaharrak zaintzen aritzen direnak, klinikako laguntzaileak joskintzan; edo mekanikariak, irakasleak edo informatika-teknikariak azoka txikietan gauzak saltzen dabiltzanak.

Emakumerik gehienak etxeko lanetarako hartzen dituzte, haurrak edo zaharrak zaintzeko, klinika edo eritegi pribatuetan, tabernetan edo klubetan. Beste hainbat beren etxeko lanetan aritzen dira, eta badira bestelako ofizioetan saiatzen direnak ere: irakasle, pintore, jostun eta sukaldari gisa.

Bestalde, emakume asko prest daude egoera kaskarrean ere lan egiteko, jaioterrian dauden hurrei eta familiakoei lagundu behar izaten dietelako, edo zorrak ezinbestean kitatu behar dituztelako. Egoera hori aprobeztatuz, hemengo jende askok aukera ezin hobea du emakume horien lanaz baliatzeko.

Etorkinik gehienek aldian-aldian dirua bidali behar izaten diete familiakoei, nahiz eta beraiek ia ezer gabe geratu.

Etorkinek edozein herritarren moduan jardun nahi dute, baina Atzerriartasunaren Legeak eta gobernuek diskriminatzen dituzte.

Bi lan deigarri aipa daitezke Bilboko San Frantzisko auzoan: legez kontrako droga-trafikoak eta salerosketak, dendaren batean edo kalean.

San Frantziskon ijito ez zirenak hasi ziren trafiko-kontuan; gero, ijitoek jarraitu zuten, eta denbora asko ez dela etorkin atzeritarrak hasi dira horretan. Denak ez dira mai-

la berdinean sartzen: batzuk bitartekoak dira eta neurri txikian aritzen dira, beste batzuk kopuru handiagoetan. Etorkin batzuk kokainaren eta heroinaren mendean daude, askotan kalean egiten dute lo, batez ere aspaldi Magreb-etik etorriek; gutxiago dira afrikar beltzak, nahiz eta ugaritzen ari diren.

Etorkin asko kalean hasi ziren gauzak saltzen, gero azoka txikietan salmenta-postuak lortu zituzten eta zenbait salgairekin proba egin: imitaziozko bitxiak, poltsak, arropa, alfonbrak, telefonoak, harategi musulmanak, tabernak... Etorkin horiei urteetan barrera beste salerosle asko gehitu zaizkie: ekuatoreginearrak, angolarrak, nigeriarrak, txinatarrak, hinduak, jaioterriko janari-saltzaileak, *Todo a Cien*, musika-dendak, ile-apaindegi afrikarrak... Bezerorik gehienak etorkinak berak dira, nahiz eta hemen jaiok, gero eta gehiago joaten diren.

Askotan gertatu ohi da, poliziaren batek kalean saltzen ari den bati, atxilotzeko edo itauntzeko unean, esku artean zuen dirua edo salgairen batzuk lapurtzea. Era horretako lapurreta batzuk salatu izan dira. Baina, beste asko gordean geratu dira, isilpean, polizien mendekuen edo kanpora bidaliko dituzten beldurrez, edo behar bezalako dokumentaziorik ez dutelako.

Ohikoak eta normalak dira familiako negozioak edo herrikideen artekoak. Esan behar da asko laguntzen diotela elkarri. Azoka txikietako postuak elkarren artean banatzen dituzte, etorri berriari kalean saltzen laguntzen diote; jatekoa eta ostatua ziurtatzen dizkiote etorri berriari, dirua irabazteko modurik ez duen bitartean. Etorkin batzuk saltzaileak ziren jaioterrian ere, ijitoen artean gertatzen den bezala. Beste batzuk prestakuntza profesional, tekniko eta unibertsitarioarekin etorri dira jaioterritik, baina dokumentazioa legeztatuta ez dutenez, eta gobernuek ezartzen dituzten eragozpenak handiak direnez, ezin izaten dute beren lanbidean jardun.

## ETORKINAK: HIZKUNTZAK ETA LANA

### TALDEKO EZTABAIDARAKO GIDOIA

1. Zuen ustez, toleranteak gara etorkinen hizkuntzekin? Nor dira malguagoak: gazteak, herrikoak, hirikoak, euskaldunak, unibertsitarioak...?
2. Etorkinak, oro har, saiatzen dira gure kultura ezagutzen? Nongoak gehiago?
3. Atzerritar gehienek gaztelania kalean ikasten dute. Euskara ere berdin ikasten ahal da?
4. Etorkinak gizarte aberats honetako esklaboak al dira? Justuak gara etorkinekin? Eta etorkinak beste etorkinekin?
5. Etorkinak prostituzioarekin, droga-trafikoarekin eta delinkuentziarekin identifikatzen ditugu maiz. Bidezkoa al da lotura hori egitea?





### BELDURRAK ETA FOBIAK

#### Angustia eta fobia erreakzioak

Zentzuzko beldur bat fobia bihur liteke ikasketen edo kulturaren eta gizartearen eraginez. Zenbait fobia agertu egiten da pertsona helduarengan, txikitik gurasoek edo lagunek ia arriskurik gabeko egoeren aurrean beldurtu zutelako. Angustiaren adierazpen landua fobiak izaten dira.

Fobien interpretazioak (zergatiak eta sendatzeko metodo terapeutikoak) bat baino gehiago dira. Fobia duenak beti angustia eta sufrimendua izaten ditu berekin.

#### Fobia espazialak

Fobia espaziala ohikoena izaten da eta bi era kontrajarritan agertu ohi da:

- (a) agorafobia edo gune irekietara irteteko beldurra.
- (b) klaustrofobia edo leku itxiei beldurra izatea.

Klaustrofobiarik ohikoena igogailuetan, bulegoetan, jatetxeetan, elizetan edo tuneletan harrapaturik geratzeko beldurra izaten da. Horietaz gain, autobusean, hegazkinean, trenetan edo autoan bidaiak egiteko beldurra duen jendea ere badago.

#### Fobia sozialak

Bigarren fobia sozialak gizarte ingurunearekin du zerikusia. Honako honetan, beste pertsona batzuekin edo animaliekin banaka edo taldean harremanak izateak beldur ikaragarria eragiten du. Esate baterako: lotsaz gorritzeko fobia, zenbait pertsonari aurpegira begiratzekoa, besteren aurrean idaztekoa.

Era berean, bakarrik egoteko premia eta beldur batzuk: kutsatzekoa, barandak edo heldulekuak ukitzekoa, komun publikoak erabiltzekoa, taberna edo jatetxeetan sartzekoa, animalia handi zein txikiekiko fobia..., denak dira fobia sozialak.

## **Fobiak dituztenek zer egiten duten**

Eguneroko bizitzan bi jokaera mota erakusten dituzte: egoerak saihestea eta beren burua lasaitzea. Lehenengoan, pertsonak saihestu egiten ditu fobia eragiten dioten egoerak eta, horren eraginez, ihes egiteko hainbat modu erakusten du, sentitzen duen angustiaren arabera. Beste zenbaitek, berriz, aurrez erabakitako ibilbideak egiten ditu beti. Beste batzuek "aurrera ihes" egiten dute. Joera lasaigarriarekin, berriz, beren burua lasaitu eta fobia gainditzea lortu nahi izaten da. "Objektu salbatzaileak" aukeratzen dituzte, talismanak, kutunak eta maskotak.

## **Fobiak senda daitezke**

Fobia guztiek dute tratamendua. Eskuarki, fobia txikiei norberak bakarrik egin diezaieke aurre. Fobiak konplikatuagoak direnean, profesional gaituen esku jartzea komeni izaten da.

### BELDURRAK ETA FOBIAK

#### Beldurrak eta fobiak

Beldurra maiz izan daiteke erakargarria. Jende askok gustuko du zinemara beldurrezko filmak ikustera joatea edo jolas-parkeetan ikara handiena sortzen duten atrakzioetan ibiltzea. Baina badira beste beldur mota batzuk, ezin neurtuzkoak eta kasu batzuetan eguneroko bizitza mugatzera irits daitezkeenak. Beldur horiek fobiak dira.

Fobiak beldur irrazionalak eta neurritz kanpokoak dira. Animalia, objektu edo egoera batzuei izan dakiekeen izua da. Fobiak errealitatearekin alderatuta erabat neurrigabeak dira eta ezin daitezke ez esplikatatu, ezta arrazoitu ere. Norberaren kontrola baino indartsuagoak direnez, oso zaila izaten da haiei aurre egitea eta estutasuna sortzen dion egoera saihestea beste irtenbiderik ez du izaten fobia duen pertsonak.

Gaur egungo gizartean, fobia sortzen duten egoerak eta arrazoiak, eta fobia duten pertsonen kopurua areagotu egin dira, batez ere, populazio-dentsitate handia dagoen lekuetan. Ikerketa baten arabera, biztanleen % 77k daukate fobiaren bat. Hauek dira sintoma fisikoak: pulsuaren azelerazioa, arnasa hartzeko zailtasunak, izerditzea, dardarak, ahoa idortzea eta muturreko kasu batzuetan blokeatzea eta paralizatzea. Pentsamendu dramatikoak ere izaten dituzte, hiltzeko eta erotzeko inpresioa, besteak beste.

#### Ezin bizi

Biztanleen % 77k fobiaren bat badute ere, normalean, ez da oso nabarmena izaten, egoera batzuk saihestea ez baita batere zaila. Baina badira askoz ere jasangaitzagoak eta gogaikarriagoak diren beste fobia batzuk. Adibidez, agorafobia, leku irekietan fobia, edonorentzat bihur daiteke jasangaitz. Ikara horrekin bizi den pertsona, epe luzean, etxetik atera gabe bizitzera kondenatuta dago.

Alderantzizko fobia, leku itxiekiko beldurrean oinarritua, klaustrofobia da. Fobia hori saihestea errazagoa da, etxea ez badago 11. solairuan bederen. Izan ere, ohikoena, estutasuna igogailuetan eta gela txikietan sartzean izatea baita.

## Ikerketa berriak

Fobia gehienak ezagunak eta arruntak dira. Adibidez, hegazkinez bidaiatzeak, leku itxiek, sugeek edo armiarmek sor dezakete estutasuna. Fobia ez da gaixotasun bat, ikasitako erreakzio emozional bat baizik. Azken finean, fobia sentitzen duten pertsonek beldurra senti dezakete, baina ez beren jokaerak adierazten duen adinakoa.

Ikerketa batzuen emaitzen arabera, fobia beste gauza asko bezala, ikasi egiten omen da. Beste aditu batzuen arabera, berriz, fobiek esanahi sinbolikoak dituzte. Bikotea banatzean ere sor omen daitezke fobiak, batez ere umeengan eta besteekiko mendekotasun handia duten pertsonengan.

Galdera horien erantzunak argitzen joan diren heinean, hainbat tratamendu kalerratu dira. Iaz kalerratu zen fobia sozialak dituztenentzat lehen medikamentua.

Fobiak gainditzeko beste terapietako bat portaera-terapia da. Terapia horren bidez, pazienteak neurririk gabeko portaerak aldatu eta ohitura horiek ahazten ikasten du.

Tratamendu berriena, nahiz eta oraindik ikerketa fasean dagoen, errealitate birtualean oinarritua dago. Helburua, beldurrezko filmetan bezala, egoera kontrolatu ahal izatea da.

### BELDURRAK ETA FOBIAK

#### METODOA

Pazientea 22 urteko emakume bat da, ezkongabea eta unibertsitateko ikaslea. Ez du arazo ekonomikorik eta bere guraso eta hiru ahizpekin bizi da; bera zaharrena da.

Berak dioenez, bere eguneroko bizitzan agertzen zaizkion egoera sozial gehienetsuenak saihesten ditu; besteak beste, bere fakultateko tabernara joateko eta bere ikaskideekin eta irakasleekin hitz egiteko zailtasunak ditu. Ez da asteburuetan ateratzen, ez da festetara joaten, ez du jendearen aurrean jaten, oso zaila egiten zaio jende talde baten aurrean hitz egitea (3 pertsona), ez da jendearekin irteten, asko kostatzen zaio ikasketekin erlazionaturik ez dauden elkarrizketak hasi eta mantentzea.

Egoerak zailagoak gertatzen zaizkio gizonekin, pertsona ezezagunekin, talde handietan eta egoera ez formaletan. Pentsamendu nagusiak ondokoak dira: "gorritu egingo naiz", "ez dut jakingo zer egin", "arraroa naizela pentsatuko dute", etab. Oso kezkatuak dago besteak berari buruz pentsatzen dutenarekin.

Bere burua lotsatitzat jo izan du beti, baina institutuan bere arazoa areagotu egin zen. Igeritokira joateari eta jendearekin ateratzeari utzi zion eta bere barnean eta ikasketetan gero eta gehiago sartu zen.

Gero eta okerrago sentitzen da eta etxean komentatzen duenean gehiegikeria dela pentsatzen dute. Ez dauka osasun arazorik eta ez du inoiz kontsultatu arazo honegatik. Bere zaletasun nagusiak irakurtzea eta zinera joatea dira, baina ez da inoiz bakarrik joatera ausartu.

Neskak sendagilearen laguntza eskatu du.

#### TRATAMENDUA

Ebaluazioa egin ondoren, fobia sozialari eta berau gaur egun mantentzen duten faktoreei buruzko informazio argia eta zehatza eman zitzaion pazienteari. Fobia zer den eta zer sintoma dituen azaldu zitzaion.

Zortzi saioko programa terapeutikoa izan zen, taldean (5 paziente), astean behin. Saioak bi ordu eta erdikoak izan ziren.

## **ONDORIOAK**

Proposatutako tratamendua laburra da, ongi egituratua dago eta pazientearentzat lagungarria da bere arazoa nola mantentzen den ulertzeko eta egoera sozialei aurre egiteko estrategiak ikasteko.

## BELDURRAK ETA FOBIAK

### TALDEKO EZTABAIDARAKO GIDOIA

1. Ba al duzue fobiarik?
2. Ezagutzen al duzue fobiarik duen inor?
3. Badiozue beldurrik zerbaiti?
4. Aurkezpenen bat-edo egingo zenukete 200 lagunen aurrean?
5. Zer diozue beldurrezko filmi buruz?
6. Arriskurik ikusten ez duen jendea: arduragabea da? Konfiantza handiegia du?





# **IV**

## **Eranskina:**

### **entzungaien transkripzioa**



**NOLA SORTZEN DIRA IZARRAK? (01-05-15)**

**Bide Batez:** Ai... izar bat da eta! Urrun samar dago egia esan, baina erraldoia omen da eta merezi du berari buruz hitz egiteak, ze bitxikeria asko ditu. Esate baterako, izena: N 132 D, izen hori jarri diote. Nonbait bukatu egin zaizkie astronomoei izarrak izendatzeko zituzten izen bitxi horiek eta horregatik orain zenbaki eta letrak erabiltzen hasi dira. Azkena, aurkitutako batek, izar batek, esan dugun bezala, izen horixe du: N 132 D. Eta ba al dakizue noiz sortu zen izar hori? Orain mila urte, baina orain gutxi arte ez dute deskubritu. Eta zergatik hori? Ba, oraintxe galdetuko diogu hori Jesus Arregiri, bera astronomiaz asko dakiena baita, Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle eta berak argituko digu puntu hori eta beste jakin min asko. Nola sortzen dira, esate baterako, izarrak?

N 132 D izarra izar erraldoia da, esan dugun bezala. Bere diametroa, alegia, alde batetik bestera neurtzen duena, bi argi-urteko omen da. Galduta gaude, erabat galduta! Zenbat urte da hori?

**B.B.** Jesus Arregi, egun on dizula.

**J.A.** Kaixo, egun on.

**B.B.** Zeruko izarren artean bezalaxe, gu galduta gaude, e? Bi argi-urteko diametroa duen izarra; nolakoa imajinatu behar dugu hori, Jesus?

**J.A.** Ba, gauza izugarria, bai. Ideatxo bat egiteko esango dugu, adibidez, Eguzkitik Lurre-rainoko distantzia 8 argi-minutukoa dela, hau da, argiak 8 minutu behar ditu Eguzkitik Lurrera iristeko. Aldiz, izar horretan alde batetik besteraino joateko bi urte beharko lituzke argiak, bere izugarri abiadura handiarekin. Segundo batean 300.000 km egiten ditu argiak; hortaz, zortzi minututan Eguzkitik Lurreraino etortzeko egin behar ditu 150 milioi kilometro. Bueno, ba, izar horretan alde batetik besteraino joateko, bi urtetan 300.000 km segundoko egin beharko lituzke. Izugarrizko distantzia.

**B.B.** Izugarria da, e?

- J.A.** Izugarria, bai.
- B.B.** Izugarria da izarra, erraldoia omen da. Aizu, eta guk ikus ditzakegun izarrik handienek zer neurri dute? Konparazio bat egiteko,...
- J.A.** Ba, buelta horretakoak izaten dira, e? Hau dugu tamainan handienetakoa edo horrela.
- B.B.** Bai, irakurri dugu erraldoia omen dela.
- J.A.** Bai, erraldoia da eta, gorabeherak izaten dituzte izarrak beraien bizitzan zehar; azken aldera zabaldu egiten dira eta, eguzkia bera hiltzera, hil-ordua iristen zaionean, zabaldu egingo da eta Eguzkiaren materialea Lurraren orbitaraino iritsiko da, e? Hortaz, fase ezberdinetan tamaina ezberdinak dituzte, baino esan dezagun, beraien heldutasun bizitza zati luzeenean konparatzen baldin baditugu, ba hau dugu handienetakoa.
- B.B.** Zer esan nahi duzu? Izarrak jaio eta hil egiten direla?
- J.A.** Bai, bai, halaxe da, bai. Jaio eta hil egiten dira eta zenbat eta handiagoak izan eta masa handiagoa izan, orduan eta bizitza laburragoa dute. Bai, izarrik handienak, esan dezagun, bueno ba, masari begiratuz gero ba, izan dezakete Eguzkiak baino askoz ere masa handiagoa, 150 aldiz handiagoa, Eguzkiarena baino, adibidez, handienetakoak. Hortaz, bizitzak, izar hauen kasuan, milioi bat urte besterik ez du irauten.
- B.B.** Besterik? Milioi bat urte besterik ez...
- J.A.** Bai, besterik esaten dut eta beharbada ulertuko duzu orain zergaitik esaten dudan horrela. Eguzkiak, esan dugu, beste izar honek baino 150 aldiz masa gutxiago duela. Ba, Eguzkiak izango du bizitza bat, gutxi gorabehera 9.000 milioi urtekoa edo, eta orain bere bizitzaren erdian dago. Beraz, biziak ditu 4.500 milioi urte inguru eta beste hainbeste edo biziko ditu.
- B.B.** Eta izarrak milioi bat urte...
- J.A.** Eta beste izar handi honek milioi bat bakarrik.
- B.B.** Horrekin konparatuta egia da, gutxi da.
- J.A.** Beraz, mila aldiz gutxiago, bada zeozer, ezta?
- B.B.** Ja. Lehentxeago aipatu dugu, Jesus Arregi, nahiz eta orain dela mila urte sortu izan izar hau, orain deskubritu dutela. Nola liteke hori? Nola esplikatzen da hori?
- J.A.** Bai, berriz ere lehen jarri dudan adibidera joko dut. Esan dugu Eguzkitik Lurrera argiak 8 minutu behar dituela. (Bai). Horrek esan nahi du Eguzkian gertatzen denaren berri, guk, 8 minutuko atzerapenarekin jakiten dugula. (Bai). Hortaz, Eguzkia lehertuko balitz ere, guk 8 minutu izango genituzke...
- B.B.** Alde egiteko?
- J.A.** Alde egiteko jakin gabe. Hortaz, bueno, ba, hurrengo izarra, Eguzkiaz beste hurrengo izarra dago lau argi-urtetara; horrek esan nahi du hurbilen dugun bigarren izarretik –Eguzkia izango litzateke lehenengoa-, eta bigarrenetik, argiak lau urte behar ditu

gureganaino iristeko, hortaz, ba, lau urteko atzerapenarekin ikusten ditugu gauzak, ezta? Beraz, zenbat eta urrunago guk atzerapen handiagoarekin ikusten dugu. Hortaz, izarra piztu bada mila argi-urtetara, adibidez, ba, mila urte pasatu beharko dute guk haren lehenengo argia ikusi artean. Hortaz, ba, behetik ikusten ditugu atzerapenarekin gauzak, ezta? Gainera bueno, hainbeste dira zeruan dauden izarrak, kasualdidez haraxe apuntatu behar dela ere hura ikusteko, ezta? Orduan, ba, ...

**B.B.** Bueno, bai, edonola ere esan liteke izar hau, N 132 D izendatu duten izar hau, 1899an sortua izanen da.

**J.A.** Bai, bai.

**B.B.** Bai, ezta? Mila urte atzera... A, ez, mila ez! (mila, mila,...) Ez, 899. urtean sortua izango litzateke. (Hori da). Aizu, Jesus, eta nola sortzen dira izarrak?

**J.A.** Ba, izarrak sortzen dira, batez ere, gasez eta hauts pixka batez osatutako hodei erraldoi, izugarri handitan, e? Hodei hauek oso zabalak, oso handiak eta ilunak daude espazioan eta, bueno, ba, inguruan gertatzen den fenomeno bortitz bereziren bat dela edo, ba, hasten dira uzkuztzen, konprimitzen, ezta? Adibidez, izan daiteke inguruan beste izar bat lehertu egiten dela, adibidez, eta haren, leherketa haren uhinak edo talka uhinak edo txoke uhinak sortzen du inguruko beste hodei batean mugimendua edo konpresioa. Orduan hautsa eta gasa –batez ere gasa da hodei horien osagaia-, biltzen hasten da eta bildu ahala, ba, berotu egiten da eta oso pilatu denean gasa, bola handi-handi bat eginez, barru-barruan tenperatura oso handia da eta erreakzio nuklearrak hasten dira, e? Zentral nuklear batean gertatzen diren erreakzioak, baino neurrik gabe eta inolako kontrolik gabe, eta orduan izugarritzko su eta garrak sortzen dira hor, eta orduantxe esaten dugu izarra piztu egin dela, izarra sortu dela eta orduan hasten da argia ematen.

**B.B.** Aja! Esan duzu izugarritako suak sortzen direla eta izugarritzko beroa. (Bai). Hiru milioi gradutako berotasuna daukala jakin dugu, izar honek. Hori da. Hiru milioi gradutako berotasuna...

**J.A.** Hiru milioi, bai.

**B.B.** Hiru milioi gradutako berotasuna daukala jakin dugu, izar honek...

**J.A.** Hori da.

**B.B.** Hiru milioi gradutako berotasuna!

**J.A.** Hiru milioi gradutakoa eta...

**B.B.** Eskerrak hain urrun dagan, e? Bai, bestela...

**J.A.** Bai, baina hiru milioi gradutako tenperatura, hori da gainera izarraren kanpoaldean.

**B.B.** Barruan gehiago?

**J.A.** Askoz ere handiagoa da, 30.000 milioikoa izan daiteke.

**B.B.** Aizu, eta egia al da izenak agortu egin direla izarrak izendatzeko? Eta orain letrak eta zenbakiak jartzen hasi direla, hain inbertsonalak, izar gaixoak?

**J.A.** Bai, bai, bai, alde batetik pena bada, ezta?

- B.B.** Bai, oso izen itsusia da N 132 D.
- J.A.** Bai, erromantizismo kutsu hori ia galdu dute izarrok ere, ezta? Bai, gertatzen dena da garai batean, ba, aztertzen zirela, ba, begi hutsez ikus zitezkeen izarrak eta horiek gutxi ere ez dira, zeren begi hutsez hola gau garbi-garbi batean, ba, guk ikusten dugun zero zatian bi mila ta asko, hiru mila inguru ikus daitezke eta hortaz, ba, horien artean argitsuenak behitzat, ba, beraien izen propioak zituzten. Eta gerora, ba, teleskopioekin gero eta gehiago eta, gero eta gehiago nola aurkitzen diren, ba, ja katalogoak egiten dira eta bueno, ba, horrelaxe jartzen zaie letra bat eta zenbaki bat eta aurrera, ez? Katalogoan sartu eta aire.
- B.B.** Horrenbeste dira aurkitzen direnak, ezta?
- J.A.** Bai.
- B.B.** "Txandra" izeneko espazio obserbatorioari esker aurkitu dute izar hau. Eta nola konturatzen dira astronomoak izar berri bat dagoela, horrenbesteren artean?
- J.A.** Bai, bai. Izar berriak esan dugunez, ba, sortzen dira hodei erraldoi handi horietan, eta gainera hain dira handiak hodei horiek, ba, sortzen dituztela batera izar asko, ezta? Orduan ingurune horiek berezitasunak dituzte, ezagutzeko modukoak, orduan ba, bertan sortu direnak daude sortu berriak eta ja, ba, pixka bat bizitakoak eta beste ingurune batean ikusten da sortzeko izango direla eta gainera, ba, izarren argitasuna ere ezberdina da bai sortu berri direnean eta beraien heldutasun sasoi horretan, eta baita hiltzera doazenean, ezta?
- B.B.** Milaka batzuk urte bizi direnean, ezta?
- J.A.** Hori da, milaka eta milioika batzuk urte bizitakoan, hori da. Argiaren berezitasun horiekin, ba, adina atera daiteke.
- B.B.** Zenbateko argitasuna duten, hainbeste urte izan ditzakete, ezta?
- J.A.** Bai, zenbatekoa eta gero nolakoa den, ba, koloreari dagokionean eta, ba, ez da bakarrik ikusten den argia, gero, ba, argi infragorria, eta X izpiak, eta ultramoreak, eta...
- B.B.** ... konbinazio bat da...
- J.A.** Denetik emititzen dute, nahiz eta guk begiekin bakarrik koloreak ikusi, ba, gero ikusten ez ditugun beste uhin edo argitasun mota batzuk daude eta guzti horien analisiak posible egiten du, ba, adina jakitea, sortu berria den jakitea, edo bere heldutasunean dagoen, edo...
- B.B.** Bueno, Jesus Agirrerekin ari gara hizketan; bide batez, berak astronomiaz asko daki, konturatuko zineten honez gero; ni behintzat ari naiz hortaz konturatzen eta berari deitu diogu ba, deskubritu dugulako N 132 D izarra, deskubritu dutela era berean izar erraldoia dela eta... Bueno, honen aitzakian eta horrenbeste datu eta horrenbeste komeria esaten ari gara, Jesus, baina gizakiok ikusi al dezakegu izar hori gure begiekin edo gure begiekin ez bada, teleskopio baten laguntzaz?
- J.A.** Bai, bai, teleskopioa behar da eta teleskopioa erabiltzen jakin behar da, ezta?
- B.B.** Bestela ezin da ikusi...
- J.A.** Bestela ezin da ikusi, ez.

- B.B.** Ba, eskerrak erraldoia den, bestela... Teleskopioa behar-beharrezkoa da orduan, nahiz eta izugarri handia izan.
- J.A.** Bai, bai, argitasuna ere oso handia du, baino oso urruti dago eta ez da posible...
- B.B.** Lurretik, esan dugu, Lurretik 180.000 milioi argi-urtera... Hori... pentsa ezazu non dagoen! Bai. Zuretzat inportantea al da izar hau aurkitu izana?
- J.A.** Bai, garrantzia dute, batez ere, izarrak, bueno, esan dugu handienak bizitza labur xamarra dutela, baina "labur" hori ere kakotxen artean jarri behar dugu, ezta? Hortaz, ba, bizitza luzea izanik, ikusten ditugun izar gehienak, ba, bere bizitzaren fase heldu horretan daude eta oso-oso gutxi dira ikus ditzakegunak heriotze orduan edo sortu orduan, jaio berritan. Hortaz, ba, bi fase horiek ondo ezagutzeko oso interesgarriak dira, ba, sasoi horietan dauden izarrak aurkitzea. Hortaz, horrek du garrantzia, ezta? Izar gazteak aurkitzeak gutxi ezagutzen direlako garrantzia du, horrela sortze prozesua aztertzeko datu oso interesgarriak bildu daitezkeelako.
- B.B.** Eta kontsideratzen da lehen esan dugun bezala, nahiz eta mila urte izan izar hau sortu zela, gaztea da, (oso-oso), oso gaztea da, jaio berri-berria da zuentzat...
- J.A.** Jaio berria da, ze, bueno, ba, orain arte bizi duena mila aldiz biziko du. (Pentsa!) Milioi bat urte biziko duelako, gutxienez milioi bat urte, edo akaso 5 milioi, edo hiru milioi, ezta? Baina milioi gutxi batzuren kontua izango da.
- B.B.** Segun zer osasun duen...
- J.A.** Hori da.
- B.B.** Eta ja bukatzeko, Jesus, beste kuriosidade bat, agurtu baino lehen. Zure lanbideari erreparatu diogunean, ikusi dugu arkeo-astronomian aritzen zarela. Zer da hori?
- J.A.** Bueno, izan-izan, fisikaria naiz, baino afizioz beti astronomiaren alorrera jo dut eta bai, holako lantxo batzuk eginak ditut. Arkeo-astronomia da neurri batean, ba, arkeologia eta historiaurrearen kontu horiek aztertzen duen zientzia, baina astronomiaren ikuspuntutik. Adibidez, ba, konstelazioak dira izar multzotxoak, bakoitzak bere izena duena, Pizis, eta Libra, eta ezagutzen ditugu horiek denok edo, (horoskopotik), Hartza Nagusia, eta horrelakoak, ezta? Orduan arazo bat argitu gabe dagoena oraindik da horien izenak eta horien irudiak zein zibilizaziok eta noiz sortu zuen, ezta? Hortaz, hori da arkeo-astronomiaren arazoetako bat. Ikusten da, ezta? Pixka bat da historiarekin eta kulturarekin lotura dituzten arazoak, baino baita astronomiarekin ere. Orduan, ba, bueno, adibidez, horretan egin dut lan pixka bat...
- B.B.** Oso ederki. Ba, bueno, kuriosidade asko aztertu ditugu gaur zure laguntzarekin, izarrei buruzko kuriosidade asko, eta hor daukagu N 132 D izarra, naturaren beste oparietako bat, ezta? Ezagutu egin nahi genuen eta ezagutu dugu lehen baino askoz ere hobeto gainera. Eskerrik asko, Jesus Arregi, gurekin izateagatik igande eguerdi honetan, eta segi ondo. Eta berriz ere horrelako laguntza behar dugunean, joko dugu zuregana, e?
- J.A.** Bai, ez izan zalantzarik, e?
- B.B.** Oso ondo. Mila esker.
- J.A.** Eskerrik asko eta hurrengo arte.





### HIPERAKTIBITATEA (01-09-01)

**Euskadi Irratia.** Hiperaktibitatea aipatzerakoan, ezin dugu honen inguruan dagoen eztabaida ahaztu, behin baino gehiagotan hiperaktibitatearen izaera ezbaian jarri delako. Gaixotasun osoa bezala hartzen dute batzuek; besteek, berriz, syndrome bat besterik ez dela uste dute. Bata edo bestea izan, kontua da 7 urtetik aurrera agertzen den sindromea dela, baina zenbaitetan haurra helduagoa denean ere aurki daiteke eta azken hila-beteetan kasuek gora egin dute. Biderkatu diren kasu hauei aurre egiteko sortu da AIDAS elkarte, haur hiperaktiboek gurasoek osatutakoa. Laz sortu ziren oraingoz hiru lurraldetan dauden talde hauek. Nafarroan izan zen lehenengoa eta, adibide hori jarraituz, apirilean Bizkaikoa abian jarri zuten. Azkena pasa den abenduan sortutakoa da: Gipuzkoako AIDAS elkarte. Hiruak ere, helburu argiarekin: guraso eta irakasleek bizi duten estresa aztertu eta lagundu, haurren hiperaktibitatearen eragina inguruan duten helduetan agertzen delako.

Hiperaktibitatea duten haurrak definitzen hasterakoan, mugimendua aipatzen da, hori baita bere ezaugarrietako bat, baina ez bakarra. Mikel Olano Gipuzkoako AIDAS elkartearekin lana egiten duen psikologoa da. Berak azaldu dizkigu hiperaktibitate honen ezaugarriak.

**Mikel Olano.** Sintoma nagusiak hauek dira: oldarkortasuna edo kontrol eza, hiperaktibitatea bera eta aditasun gabezia. Oldarkortasuna edo kontrol eza –bueno, hobeto ulertzeko inpulsibitatea esaten dena esango dudala–, honako portaera hauetan ikus dezakegu: umeak pentsatu gabe erantzuten duela, ez die araei kasurik egiten, beste batzuen jarduerak eragozten ditu, eta abar. Bigarren, hiperaktibitatea bera, hau da, umeak eskuak, oinak, eta abar mugitzen dituela, jazarlekutik altxatzen dela... Eta azkenik, aditasun gabezia. Hau dela syndrome hau definitzen duen sintomarik nagusia, hau da, umeak ez die xehetasunei erreparatzen, arretari eusteko zailtasuna du, badirudi ez duela entzuten, ez ditu eskolako eginkizunak betetzen, eta abar.

**E.I.** Horiek ezaugarri orokorrak, baina bigarren mailakoak ere badaude, aipatu hiru horien ondorioz sortutakoak. Garrantzitsuena, agian, haur hauek izan ditzakeen istripuak dira, aditasun ezagatik gauzak bat-batean egiten dutelako, ezbeharrak gerta

daitezkeelako. Horiek ezaugarriak, baina gaixotasun honi buruz hitz egiterakoan, izendapena beste bat dela esan behar dugu, ezaugarrietako bat bakarrik kontuan hartu ohi dugulako.

**M.O.** Bueno, hiperaktibitate izena, hasteko, oso-oso murrizta da, ez? Esan genezake etiketa osoa aditasun gabeziak eragindako nahasketa hiperaktibitate eta oldarkortasunarekin dela. Nahiz eta oso-oso luzea izan, azpimarratu behar dena hori dela, zeren jendea hiperaktibotasunaren izen horrekin gelditzen da eta ez da gaixotasun hau definitzen duen sintomarik nagusia, bai dela osatzen duen sintometako bat, baino sintoma nagusia aditasun gabezia dela, nahiz eta hiperaktibitatea beste sintoma bat izan. Oldarkortasuna beste sintoma da eta esan genezake kontrol eza... holako zerbait dela, inpultsibitatea edo.

**E.I.** TDAH hizkiekin izendatu duten sindrome honi buruzko azterketa ugari egin dira. Orain urte batzuk egin ziren lehenengoak, baina nahiko ondorio nahasiak lortu zituzten. Hasieran, mutilek bakarrik izaten zutelako uste baitzuten. Orain argitu da, baina neskek eta baita mutilek izan dezaketen sindromea dela agertu da, baina nesketan ez dela horrenbeste azalerazten, mugimendua ez dela horrenbesterako. Baina teoriak dioena alde batera utzi eta gauzak nolakoak diren ezagutu nahi dugu. Haur hiperaktibo baten aitari egin diogu gonbitea.

**E.I.** Martin Aizpuru, egun on.

**Martin Aizpuru:** Berdin.

**E.I.** Ondo ezagutzen duzu zuk gai hori, ezta?

**M.A.** Bai, etxean bertan tokatzen zait eta horregatik ezagutzen dut.

**E.I.** Semea da hiperaktiboa, ezta?

**M.A.** Bai.

**E.I.** Nola jakin zenuten zuek?

**M.A.** Bueno, guk jakin, egia esan, jakin edo definitu hiperaktiboa dena, ba, duela urtebete edo definitu gendun. Orain hamalau urte ditu, oseake hamahiru urte arte guk beti bizi izan dugu haurrarekin erabat berezia zela, bere birtute edo karakteristikarik handienetako zen gehiegi mugitzen zela. Haur guztiak mugituak dira, baina bereziki besteak baino gehiago mugitzen zela, bai etxean eta edonon. Bronka asko izaten genuen etxean, eta gero hitz egin, asko hitz egiten zuela.

**E.I.** Ez zenuten pentsatzen hiperaktiboa zela, ez zenuten ezagutzen gaixotasun hori, ezta?

**M.A.** Inondikan ere! Guk ez genekigun ezta existitzen zenikan ere! Erabat berezia zela bai, osea, gehiegizkoa zela. Tokatu egin zaizu horrelakoa eta onartu egin behar duzu eta horrekin bizi zinen eta..., baino etxean ere, bere izateko moduak problemak sortzen zituen, gure arteko istiluak eta, bueno, ba, denetikan. Beste ondorio bat, semearena, zen ikastola. Ikasteko garaian problema asko zituen, zeren ez zuen atentziorik prestatzen, gelan nahiko geldi..., edozein horrek..., gela guztia aztoratzen zuten, maixua kargatzen zen, zigortzen zuten... Hori jakitean, etxean ere zigortu egiten duzu... Bidaltzen dizuten notak eta gero erantzun bezala urte bukae-

ran gauzak gaizki joaten ziren gainera. Orduan, berak atentzio ez edukitze hori, zuk zerbait esaten diozu, horrela, esaten zenion eta ez zuen entzuten, nahiz eta begira egon, ez zuen entzuten. Eta guk..., ba, guk begiratu genion badaezpada ere sendagilean, ba, berak belarriko problemarrikan bazeukan, edo beste zerbait bazeukan, eta zenbait lekutan ibili ginen, medikuarengana eraman genuen eta bueno, han esan ziguten erabat mutila, alde horretatik, normala zela. Bueno, ba, ez zuela ikasten nahi ez zuelako, alper xamarra zelako.

**E.I.** Hori da kasu hauetan behin eta berriz errepikatzen den gauza, ezta? Esan ohi da hiperaktiboak direnak, jakin aurretik gaixotasun hori dutela, alperrak direla. Zuek gero hori pentsatzen zenuten etxean?

**M.A.** Bai, etxean baita ere, e? Nik pertsonalki behintzat lanerako inongo gogorikan ez nion ikusten eta zerbait, esfortzua behar zenean, liburu bat hartu eta esfortzu bat egin, beti bronkan ibiltzen ginen; berakin negoziatzen bazenuen, "ordu erdi bat ikas ezazu orain", ahal bazuen pixka bat berandu hasiko zen, ordu erdia baino lehenagotikan eskapo nahiean, eta betidanikan horrela ibili izandu da, e?

**E.I.** Zuen kasua gainera nahiko berezia bada, zeren zuek esan duzue ez zenutela eza gutzen hiperaktibitatea zer zen, existitzen zenik ere ez zenekiten eta telebistaren bitartez jakin zenuten hori, ezta?

**M.A.** Bai, duela urtebete, urte eta zerbait, ETBn hitz egin zuten hiperaktibitateari buruz. Bizkaian orduan ja erakunde bat behintzat sortua zen eta hango presidentak eta Nafarroakoak hitz egin zuten eta nere emazteak entzun zuen eta nere emazteak programa hori entzunaz konturatu zen, berak esaten zun: "Hauek nire semeataz hitz egiten ari dira". Han esaten ziren gauzak ziren gure semeari gertatzen zitzaizkionak, bere jokabidea behintzat berdin-berdina zen eta orduan hartu zuen telefona hitz egiteko eta hori dena, baina, berez, horrela utzi zuen. Eta handik igual bi edo hiru astera edo, egun batean nazka-nazka eginikan zegoela semearekin eta ia nerbioetatikan zerbait emateko momentuan zegoela,...

**E.I.** Oso nekatuta haurrarekin, ezta?

**M.A.** Bai, bai, erabat, baina erabat, asko nekatzen baitute. Eta orduan, berak esan zidan nola telebistan ikusi zuen programa batean eta hiperaktibitateari buruz hitz egin zutela, eta gero sintomak edo izate-modu hori behintzat gure semearekin bat zetorrela. Eta bueno, lehenbailehen hitz egin beharko genuela, aber laguntza eskeintzen zuten edo zerbait jakin behintzat, zer zen hori. Eta Iruñako presindeta hori, Elizondokoa baita, eta berakin hitz egin genuen. Eta berak esan zigun ostiral hartan Iruñean zegoela bilera bat. Bilera hartara joan ginen eta han bakoitzak azaltzen zuen zenbateko semea zeukan, zer jokabide zuen bai etxean eta eskolatikan zer zekiten, zer egiten zuten, eta horrela. Eta, bueno, guretzako izan zen aberasgarria, zergatik ikusi genun gauza nahiko normala zela eta gainera, ba, beste aldetikan, ikusi gendun gure semea, han kontatzen zituzten gauzatikan ez zela hain grabea. Han gauza harrigarriak entzun nituen: bere buruakin pareta joaz ibiltzen zirela batzuk, eta batzuek buruko minak izaten zituztela, ... Azken finean atera ginen, "Jo, zer suerte daukagun!, guk ez daukagu horrelako gauzarrikan, askoz hobeto dago" ... Eta pozikan atera ginen.

**E.I.** Gurasoen aipamena ez da arrazoirik gabe egindakoa, psikiatra, psikologo, guraso eta irakasleen elkarlana derrigorrezkoa baita haur hauek aurrera egiteko. Laguntza berezia behar baitute eta etxetik bertatik bultzatu behar da.

**Emakume bat.** Gauza bat niretzat garrantzitsua dena da gurasoak papera handia duela haur horiek kalmatzeko eta mugak jartzeko. Eta gaurko egunean, hori nire iritzia pertsonala da, baina gaurko egunean haur gutxiago daude eta kasu asko egiten zaie eta, "kasu asko" horren barruan askotan nik uste dut dagoela muga gutxi jartzea, batzuetan denbora guztian bat lanean dagoelako eta etxera iristen denean, ba, ez delako hasiko denari ezetz esaten eta guzti hori. Eta beste aldetik, pentsatzen det gure historiak ere zerikusi izango duela, lehen edukazio oso gogorra eta orain badirudi bakoitzak nahi duena egitea duela, eta hor nik uste dut, bai gurasoak eta haurrak konfusio batean sartzen direla eta ez dela erreza mugak jartzea. Eta mugak inoiz ez baldin badituzu, nola agoantatu frustrazioa? Eta hortan ikasi ez baldin baduzu, zaila da agoantatzea, eta, ordun, bueno hiperaktibitateak nik uste dut horrekin ere zerikusi handia duela, ez?

**E.I.** Gurasoei haurraren jarrera susmagarria dela iruditzen zaienean, alegia, TDAH delako hori izan dezakeela uste dutenean, hiru dira jarraitu beharreko pausoak. Mikel Olano.

**M.O.** Lehenengo pausoa izango litzateke medikuarengana jo, medikuarengana edo pediatriarengana, eta honek esango dizu gaitza hau jasaten duen ala ez; froga batzuen arabera esango dizu zer-nolako gaitza duen. Lehenik eta behin deskartatu behar dira beste gaitzak, eta horretarako elektroenzefalograma eta beste proba batzuk egiten dira. Bigarren pausoa izango litzateke bai psikologoarengana edo pedagogoarengana jo, eta honek ja jartzen ditu pautak edo, eta azalduko dizkie gurasoei bai gaitz honen kausak eta zeintzuk dira soluzioak edo irtenbideak.

Psikiatraren lana, esan dugu, lehenengo pauso horretan sar genezake, ez? Diagnostikoa ordun bai psikiatra, bai medikuak egin dezake.

**E.I.** Etorkizunera ere begiratu behar dugu, haur eta gazte hauen bizi kalitatea hobetzeko lehen saiakerak egiten hasi direlako. Tratamenduak bi arlo ditu: psikiatrarena batetik, eta honekin batera psikologoarena. Psikiatraren sendabide horretan botikak erabiltzen dira. Nolakoak diren eta eraginik izan dezaketen jakin nahi dugu. Begoña Garmendiak eman digu erantzuna.

**B.G.** Hau, Estatu Batuetan konturatu ziren gauza honetaz; anfetaminak erabiltzen dira eta, bueno, badakigu anfetaminak eszitazio handia sortzen dutela eta justu pertsona hauek eszitazio handin dauden pertsonak dire; baina konturatu ziren kontrako efektoa egiten zuela jende hontan, ez? Eta hori frogatuta dagoen gauza bat da, anfetaminak ematen di(r)e eta lasaitu egiten dira, kontzentratzen laguntzen (...). Baina esan behar da medikamentu hauek ez direla dena konpontzen dutena, beste gauza batzuk ere inguruan egin behar direla: familiarekin lana egin behar da, eskolarekin lana egin behar da, giroa pixka bat aldatzeko eta haur horri –gehienetan haurrak izaten dira- pixka bat laguntzeko hobeto zentratzen.

Baita ere anfetaminak izanda, ba, jakin egin behar da zer arazo mota sortu daitezkeen geroago, ez? Norbait ohitzen baldin bada bera lasaiago egoteko eta hobeto egote-

ko sustantzia bat hartu beharrean, zer gertatzen da hori bukatzen denean? Gainera, tratamendu hau deskantsuekin egiten da, eskolako oporretan normalean ez da hartzen, asteburuetan ezta ere, baina, bueno, niretzat ere galdera bat da, ez? Drogadizio aldetik zer eragin izan daitekeen. Horrek ez du esan nahi beharrezkoa denean ez dela erabili behar, baina kontutan hartu behar den gauza dela.

- E.I.** Sendagilearengana joatearekin batera psikologoaren lana ere hor dago. Mikel Olanok, AIDAS elkartearekin lan egiten duen psikologoak bere lana zertan datzan esan digu.
- M.O.** Behin diagnostikoa eginda, bai psikiatrak edo bai medikuak psikofarmakoak agintzen dizkio gurasoei, eta hori da lana egiteko oinarria. Hortik aurrera psikologoaren figura edo azaltzen zaigu. Psikologoaren lana bi arlotan finkatu daiteke: lehenengo arloa da plano indibidualan eta hortan umearekin astean behin lan egiten du: autokontrola, emozioen kontrola... irakasten dio. Bigarren arloa izango litzateke elkarlanean jarri, bai irakasleak, bai psikiatra, bai gurasoak,...



**ANTRAXA (02-05-11)**

**LAURETAN BABEL.** Antraxi buruz hitz egin behar dugu gaur, Felix. Hasteko, zer da antraxa?

**FELIX ZUBIA.** Antraxa edo karbunkoa. Hemen, berez, gaztelerazko izena karbunkoa da. Hemen ezaguna izan da. Gaixotasun infekzioso bat da. Hau da, xomorro batekin aurreko astean esan genuen bezala. Kasu honetan bakterio batek eragindako gaixotasun bat da. Gaixotasun hori sortzen da bakterioa gure gorputzaren barrura sartu eta bertan bere sintomak edo bere eragina izaten denean.

**L.B.** Nola transmititzen da antraxa?

**F.Z.** Antraxa, alde batetik, berez bere bizilekua oso bakterio gogorra da. Izaki bizidun guztiok behar dugu arnasa, edo behintzat arnasketa prozesu bat, ura behar dugu eta zer jana behar dugu. Beraz, mikroorganismorik gehienak edo xomorrerik gehienak ingurunean utzita hil egiten dira ez direlako bertan bizitzeko gauza. Antraxa edo bakterio hau oso-oso gogorra da. Esporak osatzen ditu, bere izakera edo itxura aldatzen du eta ingurunean lehortean 40 gradutik gora aguanta dezake; ikusi da urteak iraun ditzaketela, batzuek esaten dute 100 urtetik gora. Eta beraz oso-oso egonkorra da eta edozein ingurunetan hazteko gaitasuna du eta ez da hiltzen, eta berez, bere bizileku normala lurra da. Naturan daude eta oraindik naturan kasuak ematen dira, lurrian egoten da eta baldintza egokiak direnean ugaltzen egiten da. Eta, batez ere, bertan dabilten izaki bizidunei eragiten die: ardiei, behiei, zaldiei eta batez ere naturan eta hola baldin bada gizakiongan irits daiteke.

**L.B.** Eta guk nola jasotzen dugu hori?

**F.Z.** Eta gizonarengan bere sarrera moduaren arabera hiru forma daude eta batez ere da espora kopuruaren arabera. Espora gutxi batzuk baldin badaude, adibidez, gerta liteke... kasu hauetan karta-azalak irekitzean, adibidez, oso gutxi baldin badira, larruazaletik sartzen da. Eta larruazaletik sartzean puntu hortan hasiera batetik hantura sortzen da edo inflamazio bat, ondoren hori nekrosatu egiten da, hor pla-

ka bat agertzen da, ultzera antzeko zerbait, jendeak uler dezan, eta hantura hori... eta min egiten du, baina ez du gauza gehiago egiten, sukarrarekin edo ondoezarekin baino gehiago gabe. Eta ez du hainbesteko hilkortasunik, tratamendurik gabe % 30a eta tratamendu medikua izanez % 5 baino gutxiago.

Kontua da espora horiek ugaltzen direnean eta geroz eta gehiago direnean, arnasbidetik sar daitezkeela. Guk hartzen ditugu..., hori..., lehen esaten zen artilea jutzen zuten langileengan gertatzen zen, adibidez, arnasbidetik sartu, biriketara iritsi eta biriketan ugaltzen dira. Eta biriketan bai, dena txikitzeko eta dena jateko gaitasuna dute, birikarik gabe gelditzen gara eta honen hilkortasuna % 95 edo gehiago.

**L.B.** Horretarako espora asko behar dira.

**F.Z.** Bai asko behar dira, ez da edozein ingurutan gertatzen, izugarri hartu beharko genituzke. Eta hirugarren bide bat izango litzateke janarien bidez. Baita ere espora asko behar dira urdaila pasa behar delako eta bertako liseriketa prozesu guztiari bizirik iraun behar diolako eta kasu horietan sabel aldera iristen da eta baita ere sabel aldean bere txikizioak egiten ditu, dena jaten du eta honen hilkortasuna % 60 inguru, halako zerbait da.

Beraz, espora gutxi batzuk izanda, eta batez ere kasurik gehienak, .???.. ezagutzen diren % 95 baino gehiago larruzalekoak dira.

**L.B.** Sintomak..., esan duzu zer den... Handitu egiten da. Ultzera sortzen du. Arnasten dugunean sintomak zeintzuk dira?

**F.Z.** Hasiera batean, aurreneko hiru edo lau egunetan gripe baten edo beste arnasen aparatuko gaixotasun askoren sintomak dituzte: ondoeza, kalentura edo sukarra, hotzikara eta eztul pixka bat. Hirugarren edo laugarren egunetik hasten gara odola botatzen bertan jaten dihoazelako, kalentura askoz ere gehiago igotzen da, tentsioa lurreraino jaisten da, arnasa hartzeko zailtasuna eta batez ere pertsona hori itota hiltzen da, bai.

**L.B.** **Estatu Batuetan pertsona bakarra hil da eta batez ere arnasbidetik hartu egin zuelako, ezta?**

**F.Z.** Kasu bakarra, bai. Bueno bai, berari espora asko tokatuko zitzaizkiolako.

**L.B.** Gerra biologikoa aipatzen ari da eta jendea toki batzuetan gas maskarak ari da erosten. Hori nahiko izango litzateke.

**F.Z.** Bueno, ez. Berez, gerra biologikoaz hitz egiten denean, edozein mikroorganismo, edozein xomorro erabil daiteke. -Antraxa erabiltzen ari gara azken hauetan zabaldu dena delako-. Edozein gerra egiteko, beti bezala, kaltea sortzea delako helburu, ez? Ahalik eta jende gehiena hiltzea edo kaltetzea behintzat, ez? Hortarako naturan dauden mikroorganismo guztiak erabil daitezke, ez? Teoria batean, gauza da aukeratu egiten direnak, hori dago oso buru argia izaten dugulako, -eta, esan bezala, antraxa oso gogorra delako antraxa aukeratzen da- kilometrotara bidali daitekeelako sobre baten barruan, azalean, hegazkin batean, edozein ingurutan eta bizirik irauten duelako.

Gainontzekoek ez dute gaitasun hori. Beste batzuk, berriz, beste mikroorganismo batzuk ere erabili izan dira. Adibidez, bada bat, botulismoa. Botulismoa ez dakit



ezagutzen duzuen. Da garai batean hemen kontserbak gaizki egin eta azaltzen zen gaixotasun bat eta munduan ezagutzen den pozoirik indartsuena du. Eta baita ere bakterio batek sortzen duen substantzia bat da. Adibidez, botulismoa botako balitz hiri bateko ur depositora hiri guztia hilko litzateke, muskuluak geldituta. Oso zaila da hori egitea, teknologia handia behar delako, ez? Gero beste bat izango litzateke izurrite beltza, erderaz *peste bubónica* izenez ezagutzen dena. Honek ere hilkortasun handia sortuko luke pertsonatik pertsonara oso kutsakorra delako.

Orduan, hauetako batek, bakoitzak bere hedatzeko bideari jarraituz, han bere bidea izango luke eta, segun zer bide duen, neurriek horren arabera beharko lukete, ez? Adibidez, arnasaren bidez transmititzen direnentzat, arnasterako maskarak beharko lirateke, baina adibidez karbunkoak jandakoa baldin bada edo azalekoa baldin bada, ez du balio –ez dago horren kontra ezer egiterik- adibidez, esango digute arropa egokia erabiltzeko, ikusten ditugu, gaur egun zer buzo erabiltzen dituzten eta ze gauzak, talde bereziak... gauza da eguneroko bizitzan ezin dugula horrela bizi –ez- eta batez ere erasoen helburua da jendea beldurtzea eta esatea niri zergatik ez zait pasako? edo zergatik ez?... bueno...

**L.B.** Zuk zeuk esaten zenuena, % 5a da azaletik sartzen den antraxaren hilkortasuna. Beraz, oso handia ere ez da.

**F.Z.** Bai, kasu berezietan... jende gehienak... sendatu egiten da. Eta botikan sartuta, izango litzateke ura eta janari guztiak irakin eta beroagatik deuseztu. Antraxa berrogei gradutaraino irauten du bizirik, beraz, 40tik gora irakin beharko genuke ura, ezta? Kasu guztietan beti. Bueno, gero gaixotasun bakoitzak behintzat, edo txertoa har daiteke, gogoratu gripearri buruz hitz egiten genuenean txertoa zen ez da gure gorputzari xomorro horren zati bat sartzea defentsak hor izateko. Bada antraxaren aurkako txerto bat, oraindik bere eraginkortasuna ez dela hain ona, orain arte ez delako landu horrelako ...

**L.B.** **Batzuk ... Estatu Batuek dute txerto hori han ejertzituko langileentzat.**

**F.Z.** Bai, hala ere, oso emaitza onarekin eta beste gauza bat da antibiotikoak hartzea. Antibiotikoak dira mikroorganismoak hiltzen dituzte botikak eta, beraz, botika hori odolean baldin badugu mikroorganismoa sartzen denerako hil egingo genuke sartu orduko, hori da helburua. Bakarrik gauza da ez garela egongo 30 egun egunero egunero antibiotiko hori hartzen bere ondorioak ere badituztelako eta, klaro, jende guztiari antibiotikoak ematea, alde batetik garestia delako, ia ezinezkoa da denengana iristea eta beste aldetik osasunetik begiratuta, zentzu handirik ez duelako, ezta?

**L.B.** Eta hori orekatu behar delako arriskua eta antibiotikoak hartzearen arteko oreka hori nahiz eta AEBetan asteburu honetan botika askotan antibiotikorik gabe gelditu diren.

**F.Z.** (Kartel bat jarrita zegoen 15 egun arte edo...) Antibiotikorik gabe baino gehiago esango genuke antibiotiko mota hori gabe. Hau guztia egiteko teknologia aurreratu behar da. Hain arriskutsuak diren xomorroak edo mikroorganismoak guk manejatzeko eta prestatu eta bidaltzeko ezin edozein modutan egin. Laborategi oso aurreratu bat behar da teknologia oso aurreratuarekin, lehendabizi horrekin lanean

ari den, manejatzen duen langilea ezkutatzeko eta ez hiltzeko. Hori kanpai baten barruan egin behar da, guante berezi batzuk behar ditugu eta baldintza berezieta-ko laborategi bat behar dugu, hori ezin dugu edozein modutan egin, ez? Beraz, hor beti zalantzak daude, hor zurrumurruak daude, halako zein ote zen edo beste bat izango ote zen... hori ya... azpiegitura handi bat behar dela, horrelako zerbait egi-teko, ez?

- L.B.** Gurutze Gorriak esan du Afganistanen horrelako azpiegiturarik ez dagoela eta ho-rregatik beraiek suposatzen dutela handik ez dela atera.
- F.Z.** Ezagun ez, behintzat. Egon, egon liteke baina ezagunik ez, behintzat.
- L.B.** Eta beste datutxo bat, bukatu aurretik, Felix. Oso hilkorra izateko eta hiri bat kut-satzeko kilo asko beharko genituzke.
- F.Z.** Hori bai. Bueno, suposaketak dira baina esaten dute hiri bat, hiri haundi bat, milioi biztanle hiltzeko 100 kilo antrax beharko lirakekeela; 100 kilo antrax zakuka izan-go lirakeke, ez? Zaku batzuk hartu, hegazkin batean sartu eta fumigatu. Hori ezi-nezkoa da egitea.
- L.B.** Gauzak dauden bezala egonda ez da posible.
- F.Z.** Oso zaila da baita ere 100 kilo antrax produzitzea. Laborategian... azkenean hauek izaki bizidunak dira, hazten dira bere neurri batean, ez? Eta hainbeste kanti-tate sortu, norbere ezkutatzeko moduan ia ezinezkoa izango litzateke, ez? Hori nik uste dut gehiago dela suposizio bat edo zerbait, baten batek egindako ideia bat... Ez, gaur egun, batez ere, nik uste dut, bilatzen ari direna da hautsean sartu, hor-tan bai irauten duelako, kantitate txikiak dira, jendeari bidali eta jendea bide hor-tan bildurtu, ez? Zer ote zait pasako? Edo ez zait pasako? Edo behintzat... hori...
- L.B.** Horretarako, beti bezala informazioa ezinbestekoa da, eta hori egin dugu gaur, in-formazioa banatu nahiz eta hemen beldurra izateko arrazoirik ez dugun... Inoiz ezin dugu esan ezetz...
- F.Z.** Ez, nik uste dut zentzu handirik..., askoz arriskutsuagoa dela egunero bidean ibil-tzea, istripu bat izateko arriskua daukagulako, kaletik jaten ibiltzea, edo edozein gauza egitea, azken finean bizitzak berak arrisku batzuk ditu, ez? Eta arriskua oso-oso bakana da. Nik ez dakit zer interes izango genukeen gu bezalako edozeini e-txea holako karta bat bidaltzea. Nik uste dut inolakorik ez, ez? Ez da, nik uste, ba-ten bat garrantzitsuago baten bila edo behintzat... .. Behin gertatuko balitzake ere, eta jasoko bagenu ere, azaleko forma bat izango genuke, oso arina dena, nor-malean egun batzuk txarrak pasa eta ez da gehiago izango.
- L.B.** Sendatzen da, alegia. Bada, Felix Zubia, eskerrik asko, benetan, informazio guztia emateagatik.
- F.Z.** Zuei.
- L.B.** Datorren astera arte.

### HAUR GEHIAGO IZATEKO LAGUNTZAK (02-09-07)

**BIDE BATEZ.** Mende hasiera honetan haurrak, seme-alabak, harribitxi bihurtu dira nahi adina gauza jasotzen dutela, hori entzun duguna eta guztia eman nahi izate horrek haurren kopurua murriztu omen du. Hori da behintzat adituek diotena. Datuek argi eta garbi azaltzen dute hori. Euskal Autonomia Erkidegoan ez da haur batera iristen emakume bakoitzeko. Nafarroan pixka bat handiagoa da kopurua, 1'19koa, baina alde handiena Ipar Euskal Herriarekin alderatzen dugunean ikusten dugu, batez beste, bi haur sortzen dute emakumeko Iparraldean.

Beldur handiena aurrera begira gertatu litekeena azaltzerakoan. Hori orain gutxi kaleratu diren inkestek diotena betetzen baldin bada, Hego Euskal Herriak biztanleen kopuru handi bat galduko duelako eta adinekoen kopuruak izugarri egingo du gora. Lan egiteko gai izango direnak gutxiago izango direlako eta, hortaz, erretiroa ordaintzeko ere, jende gutxiago izango da. Datu horiek ez dira bakarrik hemen emango. Nazio Batuen Erakundeak egin duen aurre-ikuspenaren arabera, 2050. urtean 5 pertsonatik 1 hirurogei urtetik gorakoa izango da.

Baina hori ez da beti horrela izan. Ez dira urte asko Euskal Herrian *baby boom* izeneko gertakaria eman zela. Hirurogeigarren hamarkadaren bukaeran eta hirurogeita hamargarrenaren lehen urteetan eman ziren jaiotze tasa handienak. Kopuru horiek errepikatatu ez, baina ahalik eta gehien handitu nahi dute egungo tasa Administrazioetik. Hortik dator plangintza egiteko beharra. Egia da 2000 urtean Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako haurren kopuruak gora egin duela % 4, baina ez da nahikoa eta bien bitartean euskaldunen asmoa bestelakoa. Uztailean egin zen inkesta baten arabera, biztanleen erdiak baino gehiago bi haur izan nahi ditu eta ia % 20rentzat hiru seme-alabena da zenbaki egokiena.

Asmoak, horiek; baina jaiotako haurrak, gutxi. Batez besteko bikoteko ez da seme-alaba batera iristen eta zenbaki egokiena behin baino gehiagotan entzun dugun 2'1 hori, belaunaldien arteko oinordekotza (?) (ordezkotza?) ziurtatzen duena. Plangintzak 2'1eko zenbaki hori ordun eta gertuago izan nahi du. Arrazoiak bikoteei galdetuz aurkitu dituzte. Anjeles Iztueta, Gizarte Gaietarako sailburuordea:

**ANJELES IZTUETA.** Galdetzen zaionean jendeak esaten du, alde batetikan, begira, seme-alabak izatea gaur egun oso garestia da. Beste alde batetikan, ezinezkoa zaigu edo ezinezkoa da lana eta famili-bizitza bateratzea eta ordun nahi baldin badira ere seme-alabak izan, ba, oztopo ekonomikoak direla, antolaketa oztopoak direla, ba, ez dira seme-alabak izaten nahi adina. Plan honek, nik uste det, duen bertuterik handiena zera dela, ez dela... uztartzen dituela... alde batetikan, dirua ematen da eta, beste alde batetikan, zerbitzuak garatzen dira. Zeren eta askotan erreza baita dirua eman umea jaiotzean eta agur. Baina... eta neurri ekonomikoak bakarrik ez dute laguntzen, ez dute laguntzen. Ordun plan honek uztartzen ditu bi gauza: alde batetikan, dirua emango da eta beste alde batetikan hartzaindegiak eta zerbitzuak garatuko dira.

**B. B.** Jaiotze tasa ez badu gora egiten, eraginak hemendik hamar bat urtera antzemango ditugu. Populazioa % 21 jaitsiko dela diote aurre-ikuspenek eta lan egiteko prest dauden herritarrak, esan dugu geroz eta gutxiago izango direla. Horri aurre egiteko diru laguntzak aztertzen ari dira. Lau ardatz dituen plangintzak banatuko ditu laguntza horiek lan mundua eta familia elkartu nahirik lehen lehenik. Anjeles Iztueta.

**A. I.** Lanean dauden bikotean gizon-emazteak, senar-emazte biak lanean baldin badaude, ba erraztuko da aldi baterako lana uztea. Aldi baterako lana uzten baldin bada, horregatikan dirua emango zaio bikoteari eta beste aldetikan, guztiz lana utzi dezake edo bai amak bai aitak, baina hori baino gehiago bultzatu nahi duguna da, ba... edo diru gehiago emango da lana murrizteagatikan, osea, lanean jarraitu, baina ez egun osoz baizik eta edo egun erdiz edo hiru egunetikan bat lan eginez. Orduan, ba... lanean jarraitu baina ordu gutxiago. Ordun, ordu gutxiago lan egiten denez, diru gutxiago, soldata txikiagoa da. Ordun, nolabait ere Administrazioak hori osatuko luke.

**B. B.** Europako bi herrietako eredia hartuko dute plangintza hori osatzeko: Finlandia eta Danimarka. Populazio txikia duten herriak Europako besteekin alderatzen baditugu, 5 milioi biztanle eta jaiotze tasa handiak dituzte baina are garrantzitsuagoa dena: gizon eta emakumeen arteko oreka lortu nahi baitute. Izan ere, hori da plangintzaren beste helburua: jaiotze tasa suspertu bai baina oreka hori lortzea aita-ama eta familia eta lan munduaren arteko oreka.

**A. I.** Seme-alabak eta izan behar dira, baina emakumearen nahiak ere bete behar dira. Ez det esaten emakumeak, emakumearen eta gizonaren arteko oreka hori gordez izan behar dira nahi ditugun seme-alabak. Ordun, dena uztartu behar da. Dena uztartu behar da ezin delako, ba, bestea izango litzatekeelako, ba, tranpa bat edo... Nik uste det helburua dela batez ere dela, oreka, bai gizon eta emakumeengan eta oreka ere bai familia bizitza eta lan bizitzaren artean.

**B. B.** Erakunde arteko batzordea sortu dute guztia zuzentzeko, enpresari eta sindikatuekin hitz egiteko, besteak beste. Planaren beste ataletako batek desgrabazio fiskalak aurre-ikusten baititu. Zenbat eta haur gehiago, orduan eta murrizpen handiagoa errenta aitopenean. Baina plangintzaren berrikuntza jaiotzen den haurrekin zuzenean jaso den kopurua. Bigarren seme-alabatik aurrera bikoteari emango zaio diru laguntza hori. Eusko Jaurlaritzatik ez dute oraindik kopururik zehaztu nahi izan

baino zabaldu da 500.000 pezeta ingurukoa izan daitekeela laguntza hori, haurra jaiotzen den urtean bertan jasoko dena. Baina zuzeneko diru kopuru hori ezingo da fiskalitate arloan emandako denarekin batera egin. Lehenengo urtean, beraz, bata ala bestea. Bigarren ardatza izango litzateke desgrabazioarena. Hortaz, galdera egin diogu Anjeles Iztuetari.

- A. I.** Diru laguntzak egongo dira, bai, fiskalitate aldetik, osea, deklarazioa egiterakoan, lehen semearentzat 65.000 pezeta kenduko ditugu, lehen semearengatik. Bigarrenarengatik 80.000 pezeta. Hirugarrenarengatik 120.000 pezeta eta laugarrenarengatik 150.000 pezeta. Horiek dira... horiek batu egiten dira, osea, batek baldin baditu 2 seme-alaba, 65 gehi 80.
- B. B.** Aipatu bi neurriak garrantzitsuak dira oso, baina plangintzak zerbitzuei tarte handia egin die, diru-laguntzak bezain garrantzitsuak direlako. Haurtzaindegien zerbitzua da jarri nahi dutena, Anjeles Iztuetak azaldu digunez:
  - A. I.** Horiek garrantzia baldin badute, horiek, nik uste det, horiek beste garrantzi bat dutela edo gehiago haurtzaindegiarekin eta zerbitzuarekin lotutakoak eta hortik azpimarratuko nuke gauz bat. Alde batetik egingo dena da: bi urtetatik 3 urte bitarteko umeentzat denak edukiko dute plaza ume eskola batetan. Hori hezkuntza sistemaren barruan, bitikan hirura. Orain ia badago, %90ak badauka baina beste % 10 hori falta. Ordun osatuko da % 10 hori. Eta hori bakarrikan ez. Urte batetik bira % 25a, hau da 8 urtetatik bat plaza edukiko du haurtzaindegian eta jaio berriak, zerotik batera, lautatikan batek.
  - B. B.** Gurasoen behar eta ordutegi moldatutakoen haurtzaindegia izango dira horiek. Administrazioak diruz lagunduko ditu eta horretaz gain haurtzaindegi zerbitzurik ez dauden herrietan Danimarkako adibidea jarraituko dute. Nolabait haurtzaindegi ibiltariak sortu nahi dituzte, beharrak dauden bitartean soilik martxan izango direnak.
- A. I.** Erantsi dioguna edo bertuterik handiena da haurtzaindegi horiek, alde batetik, izango dira... Administrazioak subentzionatuko ditu. Ez dira izango ez publikoak ez pribatuak, tartekoak. Ordutegiak-eta oso flexibleak izango dira zeren eta orain dagoen arazoetako bat da ordutegia eta batzuetan murrizak direla, oso rijidoak direla, eta zaila egiten zaie gurasoei haurtzaindegiko ordutegia eta laneko ordutegia bateratzea. Ordun, alde batetik Administrazioak subentzionatutakoak izango dira; beste batetik, ordutegia ere askoz flexiblea izango da eta gero beste gauz bat, herri txikietan ere haurtzaindegiak egongo dira baina haurtzaindegiak beste era batetakoak. Orain begiratzen ari gara Danimarkan ematen den eredu batetan... han daude haurtzaindegi batzuk herriko etxe batetan, momentuz herriko etxe bat haurtzaindegi bihurtzen da eta herriko beste andre edo neska batek besteen umeak zaintzen ditu. Horregatik Administrazioak ordaintzen dio baina umeak hazitzen direnean haurtzaindegi hura desegiten da. Orduan, dira haurtzaindegiak, ba, beharra dagoen bitartean dauden haurtzaindegiak. Kalitatea eta finantziak Administrazioak bermatzen du.
- B. B.** Horiek planaren hiru ardatzak, baina helburu guztiak bete daitezkeen derrigorrezkoa da sentsibilizazioa, herritarrak haurrak izatearen garrantziaz jabetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, azaldu dugu hori guztia. Nafarroan, berriaz, 2000. urtean onartu zuten lege dekretua. Bigarren haurra izaterakoan, 300.000 pezeta pasatxoko laguntza ematen zaie aldi baterako gurasoei eta 55.000 pezeta gurasoetariko batek eszedentzia eskatzen baldin badu. Eusko Jaur-laritzak eszedentzia eta lanorduak murrizten diren kasuetan zenbateko laguntza emango duen ez du zehaztu, baina kopurua Nafarroakoaren antzekoa izan daitekeela ere esan dute.

Baina, dudarik gabe, kopuruei begiratzen baldin badiegu, laguntza handiena Iparraldekoa da gurasoei emandako zuzeneko laguntzak, pisua alokatzekoak eta beste asko daudelako. Haur bakarra dutenek 1.000 liberako, 25.000 pezeta inguruko laguntza jasotzen dute. Bi izanez gero, 700 libera gehiago (17.000 pezeta) haurrak hogei urte bete bitartean eta hiru seme-alaba izanez gero, 900 libera (22.000 pezeta) jasotzen dituzte bakoitzeko. Hori guztia...